

# **ZUMAIAN HITANOA BULTZATZEKO EGITASMOA**

**Erabilera eta transmisioa  
giltzarri**

**Xabier Azkue Ibarbia**

**2009ko uztaila**

## AURKIBIDEA

|                                                     |                 |
|-----------------------------------------------------|-----------------|
| <b>1. ATARIKOAK</b>                                 | <b>3. or.</b>   |
| <b>2. HURBILPEN TEORIKOA</b>                        | <b>6. or.</b>   |
| 2.1. Zer da hitanoa?                                |                 |
| 2.2. Tratamendu motak eta bilakaera euskaraz        |                 |
| 2.3. Alokutiboak eta debeku sintaktikoak            |                 |
| 2.4. Hitanoa norekin erabili                        |                 |
| 2.5. Hitanoa sexista?                               |                 |
| <b>3. HITANOAREN EGOERA EUSKAL HERRIAN</b>          | <b>27. or.</b>  |
| 3.1. Egoera orokorra: galtzear?                     |                 |
| 3.2. Herrietako azterketa bereziak                  |                 |
| 3.3. Hitanoa inguruko herrietan                     |                 |
| 3.4. Hitanoa hedabideetan                           |                 |
| 3.5. Hitanoa kulturean                              |                 |
| 3.6. Hitanoa irakaskuntzan                          |                 |
| <b>4. ZUMIAKO OHITURAK ETA EGOERA TALDEKA</b>       | <b>53. or.</b>  |
| 4.1. Baserritarrak                                  |                 |
| 4.2. Koadrilak                                      |                 |
| 4.3. Irakasleak                                     |                 |
| <b>5. ERABILERAREN ETA TRANSMISIOAREN AZTERKETA</b> | <b>64. or.</b>  |
| 5.1. Datu orokor batzuk                             |                 |
| 5.2. Gaztetxoen emaitzak                            |                 |
| 5.3. Gurasoen emaitzak                              |                 |
| <b>6. NOLA BULTZATU HITANOA?</b>                    | <b>89. or.</b>  |
| 6.1. Esparru garrantzitsu batzuk                    |                 |
| 6.2. Plangintza: helburuak eta ekintzak             |                 |
| 6.3. Zenbait material lagungarri                    |                 |
| <b>7. BIBLIOGRAFIA</b>                              | <b>112. or.</b> |

# I. ATARIKOAK

## ORO-MINTZO

Baiña nik, izkuntza larreakoa,  
nai **aunat** ere noranaikoa:  
yakite-egoek igoa;  
soiña zaar, berri gogoa;  
azal orizta, muin betirakoa.

**Xabier Lizardi**  
*Biotz Begietan*

## 1. ATARIKOAK

Aitorpen batekin hasiko naiz: lanaren zati handi bat lehendik egindakoa da, 1998 inguruan. Orduan Zumaiaiko Udalak beka bat atera zuen hitanoaren egoera aztertu eta formak biltzeko, eta lan hartan aritu nintzen urtebetez. Lanean hasi eta berehala ohartu nintzen, ordea, biltzea bakarrik neurri batean alferrikakoa zela, atzetik hitanoa bultzatzeko proiektu bat egon ezean. Xabier Alberdi irakasleak ere horixe adierazi zuen, hitzaurrean<sup>1</sup>.

2000. urtean argitaratutako liburuxka ikerketa baten emaitza bat zen, beraz, baina ez zuen jaso lanerako proposamenik edo estrategiarik. Azken urteotan Udalak pare bat saio egin ditu lantaldetxo bat osatu eta material berezi bat sortzeko, baina oraindik ez da ezer gauzatu. Herriko egoerari dagokionez, itxura batean 10 urtean aldaketa handirik ez da ikusten oro har: irakaskuntzan ez da lantzen, transmisioan etena handituz joan dela dirudi, mutilak txiki-txikitatik oker erabiltzen hasten dira ondorioz, neskek ia batere ez dute erabiltzen...

Hiznetek ematen didan aukera baliatu nahiko nuke; batetik, herri mailan egindako azterketa hari beste dimentsio bat eman, han eta hemen hitanoari buruz plazaratu diren lanak eta iritziak bilduta; eta bestetik, egoera horri buelta ematen saiatzeko estrategia edo proposamen batzuk plazaratu nahiko nituzke.

Zumaiaiko errealitateari lotutako lana da hau, proposamenak ere bertarako egin ditut, baina horrek ez du esan nahi inguruko herrietarako balio ez dutenik, antzeko egoera ikusi baitut eskualdeko eta gertuko herrietan.

Mikel Zalbideri ikasi diogu “arnasguneak” zer diren, eta beste herri batzuetan euskararen erabilera nahikoa kezka izango den arren, funtsezkoa iruditzen zait gurean herriko hizkera eta hitanoa berreskuratzeko ahaleginak egitea. Izan ere, arnasguneen ezaugarrietako bat zalantzan ikusten baitugu, hitanoari dagokionez: transmisio naturala. Bestea masa da, kontzentrazio demografikoa, neurri batean oraindik osasuntsu dirudiena.

Lanaren eskemara etorrira, azaletik bada ere alderdi teorikoari gainbegiratu bat eman nahi nioke bigarren atalean, eta gaia nolabait kokatu. Bertan, hurrengo ataletan agertuko diren kontzeptuei buruzko azalpen labur batzuk eskaintzen ditut.

Hirugarren atalean, hitanoak bizi duen egoerari buruzko argazki batzuk erakutsi nahiko nituzke, larritasunaz ohartzeko eta hau bezalako egitasmoen beharra nolabait justifikatzeko. Zumaia inguruko herri batzuen xehetasunak ere ematen saiatu naiz.

Jarraian, erabilerari dagokionez hitanoa Zumaian nola dagoen erakutsi nahi nuke, eta horretarako, zenbait talde bereziki aztertu ditut: baserritarrak, gazteak, irakasleak...

Hurrengo atalean, berriz, inkesta baten emaitzek transmisioari dagokionez Zumaian nola gauden adieraziko digute, hau da, gurasoek seme-alabei hika edo zuka nola zuzentzen zaizkien, zergatik, eta belaunaldi edo generazio batetik bestera gauzak nola aldatu diren.

<sup>1</sup> (...) zumaiaiek badute herriko hitanoaren bizitzaren “diagnostiko” zehatza, baita lagunarteko tratamenduari arnas berria emateko gako batzuk ere. Beharrezko neurriak garaiz hartuz gero, guztiz sinesturik nago liburu hau oso baliagarria izan daitekeela Zumaiaiko hitanoaren iraupenerako eta are susperraldirako ere. (Azkue 2000).

Aurreko ataletako ondorioei eta gakoei erreparatuta, lan honen funtsa dator: zer egin hitanoa berreskuratzeko? Beste alor batzuetako proposamenak ikusi, baliagarriak izan daitezkeen ereduak zerrendatu eta, azkenik, plangintza baterako oinarriak jartzen saiatuko naiz.

Gaian sakondu nahi duenak edota puntu jakin bat garatu (noka edo emakumeen hiketa, esaterako), bibliografian aurkitu du oinarri gehiago.

Lan hau erabilgarri izango ahal da!



## HURBILPEN TEORIKOA

### KONTRAPAS

(...)

Heuskara  
lalgi **adi** mundura

Lengoajetan ohi **inzan**  
Estimatze gutitan  
Orai aldiz hik behar **duk**  
Ohoria orotan.

(...)

Oraidano egon **bahiz**  
Inprimitu bagerik  
**Hi** engoitik ebiliren  
Mundu guzietarik.

(...)

Heuskara  
lalji **adi** danzara.

**Bernard Etxepare,**  
*Linguae Vasconum Primitiae*

## 2. HURBILPEN TEORIKOA

Atal honen xedea ez da hitanoari buruzko azterketa teoriko bat egitea, gaia zertxobait kokatu eta gero lanean azalduko diren zenbait kontzeptu azaltzea baizik.

### 2.1. Zer da hitanoa?

Hitanoa hikako tratamendua edo hizkera da, azken batean.

“*Hi* izenordainaren erabileran oinarri duen lagunarteko tratamendua. *Hi* bigarren pertsona aditzaren *nor*, *nork* edo *nori* kasua denean, dagozkion adizkia erabiltzen da, eta *hi* pertsona aditzaren partaide ez denean, dagozkion forma alokutiboak erabili behar dira.”

(Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoa)

Ibon Sarasolak, bestalde, labur definitzen ditu hitanoa eta antzekoak, *Euskal hiztegia* lanean. Urteek eta mendeek idatziz lehen aldiz noiz agertzen den adierazten dute, eta hiztegian hainbat adibide ere ematen ditu.

- **hitano.** iz (1897). Hikako hitz egite era, hiketa.
- **2 hika.** nola *adlag.* (XVII ea.). Hi izenordaina eta dagozkion aditz formak erabiliaz.
- **hiketa.** iz. (\*1923, 1927). Hika hitz egitea, hitanoa.
- **2 hikatu, hika** edo **hikatu, hikatzten.** du *ad* (XVII ea.). *G. er.* (Norbaiti) hika mintzatu.
- **no.** (1643). *Batez ere ipar.* (Beh.). **1.** Emakumeei deitzeko erabiltzen den hitza. **2.** (1657) Emakume bati zerbait ematen zaiola adierazteko hitza.
- **noka.** nola *adlag.* (1935). Emakume bati hika.
- **noketa.** iz. \*(1924). Emakumearekiko hitanoa.
- **1 to.** (1630). *Beh.* (Batez ere ipar.). **1.** Gizonezkoei edo animalia arrei deitzeko erabiltzen den hitza
- **1 toka.** nola *adlag.* (\*XVIIlea., 1889). Gizonezko bati hika.
- **toketa.** iz. (1872). Gizonezkoarekiko hitanoa. *Toketan jardun.*

Hitanoaren lehen definizioan egiten den bereizketa argitzea komeniko da, aurrera ekin baino lehen. Amaieran forma alokutiboak aipatzen ditu; baina **zer dira forma alokutiboak?**

Euskaltzaindiak argitara eman zuen EGLU II gramatikan honelaxe azaltzen du alokutiboen kontua.

“NOR, NORI eta NORK sintagmei dagozkien pertsona markez gainera, ager daiteke aditz multzoan beste pertsona marka bat gehiago. Pertsona marka hau ez dagokio perpauseko ezein sintagmari, hiztunak aurrean duen hizketa lagunari baizik”. (387 or.)

Pare bat adibide ikusita errazago ulertuko da:

- a) Julene **etorri da** Aitorren bila.
- b) Julene **etorri dun** Aitorren bila.

Bietan ere mezua oso antzekoa dela ikusten da, eta biek dute perpausaren nor sintagmarekin komunztadura, baina bigarrenak informazio gehiago ematen digu. Izan ere, Julene etorri dela esateaz gain hitzunak hizketa-laguna ere gogoan duela adierazten du. Hau da:

*Etorri dun + hirekin ari naun*

Forma hauek dira alokutibo delakoak, eta hitanoaren kasuan hauei esker hitzunak aurrean duena gizonezkoa ala emakumezkoa den ere jakin ahal izaten dugu: goiko kasuan, emakumezkoa dela adierazten zaigu.

Forma alokutiboetara itzuliz, bigarren pertsonari (hau da, solaskideari) dagozkion forma batzuk hartzen dituzte (-K/-A-; -N/-NA-) perpauseko izen sintagmek ezartzen dizkieten komunztadura-markez gainera. Bestela esanda, lehen eta hirugarren pertsonari dagozkien forma bereziak dira, bigarren pertsonako marka jakin batzuk erakusten dituztenak. Hikako forma hauek ez dira alokutibo bakarrak, ekialdeko euskalkietan *Zuka eta Xuka alokutiboak* ere aurki baikenitzake:

Esate baterako, "Gizona joan da" esateko:

*Gizona joan duzu/düzü*  
*Gizona joan duxu*

Euskaltzaindiak 14. arauarekin finkatu zituen 1995ean hikako moldeko adizki alokutiboak. Koldo Zuazok aitortzen du ez zela lantegi erraza izan<sup>2</sup>. Bestalde, kontuan hartu behar da aditz-formak finkatu zituela, ez zela sartu erabilera kontuetan<sup>3</sup>.

Gaia pixka bat gehiago sakontzeko, hara bi erreferentzia interesgarri:

- Idazkera-liburua (Zubimendi eta Esnal, 1993): kontuan hartu behar da artean finkatu gabe zeudela hikako aditz alokutiboak eta Sarasolak osatu gabea zuela *Hauta-lanerako Euskal Hiztegia* ere.
- Oinarrizko gramatika (Alberdi, 2008): bestelako alokutiboak, adibideak, mugak...

<sup>2</sup> Ez zen samurra izan hitanoko adizkiak bateratzea, eta horrexegatik atzeratu zen erabakia. Alde batetik, asko aldatzen dira hizkera batetik bestera eta, bestetik, berriz, ahozkotasanari lotuta egon dira eta leku txikia izan dute literatura idatzian. Ez da, beraz, idatzirako eredurik garatu, eta eredu ezak areagotu egin du, jakina, leku batetik besterako aldakortasuna. (...) Euskalkien egiturari begiratuta, zuzena eta egokia iruditzen zait Euskaltzaindiaren erabakia, baina bestela uste dutenak ere badira, jakina. (Zuazo, 2005)

<sup>3</sup> Euskaltzaindiaren lana adizkeren formaren finkatzea izan da, eta ez da sartu erabilera arazoetan. Jakina denez, korapilo asko ditu erabilerak, bai morfosintaxiaren aldetik, bai eta, are gehiago, gizarteko baliagarritasunaren aldetik ere. (Euskaltzaindia, 14. arauaren sarrera)



## 2.2. Tratamendu motak eta bilakaera

Aurrera jarraitu baino lehen, zehaztu nahi nuke aurrerantzean “tratamendu” deitzen diodan horri zenbait autorek “erregistro” izenez deitu izan diotela, baina Xabier Alberdik esandakoari men eginez, “erregistro hitza hizkuntza baten oinarritzko hizkera-mailak ere (hizkera jaso edo landua, estandarra, lagunartekoa, herrikoa, arrunta...) izendatzeko erabiltzen denez, nahasgarri gerta daiteke”.

Zumaiarro dagokigunari helduta, Hego Euskal Herriko toki askotan bezala, oinarritzko bi tratamendu ditugula esan genezake:

- a) Tratamendu neutroa edo eztabadakoa, 2. pertsona singulartzat ZU duena:

*Zu etorri zara*  
*Mikel joan da*

- b) Tratamendu markatua (hitanoa, lagunartekoa ere deitua), 2. pertsona singulartzat HI duena:

*Hi etorri haiz*  
*Mikel joan duk/n*

Gehienontzat bereizketa hau HIKA edota ZUKA tratatzea da, baina aintzat har dezagun bata edo bestea aukeratu, ondorio desberdinak sortzen direla. Solaskideari ZU egiten badiogu, forma neutroak edo eztabadakoak erabiliko ditugu. HI eginez gero, berriz, nahitaez hikako forma alokutiboak erabiltzera behartuta gaude, ez da zilegi tratamenduz aldatzea.

|                                             |                 |
|---------------------------------------------|-----------------|
| <i>Zu etorri zarenean joan da Ander</i>     | <i>(zuzena)</i> |
| <i>* Hi etorri haizenean joan da Ander</i>  | <i>(okerra)</i> |
| <i>Hi etorri haizenean joan duk/n Ander</i> | <i>(zuzena)</i> |

Bi hauez gain, beste tratamendu bat ere erabili izan da duela gutxira arte, eta oraindik ere zenbait pertsonak erabiltzen du beste pertsona jakin batzuekin: BERORIKA deiturikoa da. Gaztelaniaren eraginez-edo sortua dela diote zenbaitek, “usted” izenordainaren pareko bat izateko. Bigarren pertsona NOR, NORI edo NORK bada, aditzak hirugarren pertsona balitz bezala hartzen du, komunztadurari dagokionez.

*Berori berandu etorri da*

Batez ere apaizekin erabiltzen zen tratamendu-mota hau, baina baita mediku, jauntxo eta adineko zenbait lagunekin ere (aitona-amon, guraso...). Tratamendu honek, ordea, hitanoak eta zutanoak (zuka alokutiboak) ez bezala, ez du forma alokutiborik.

*Berori joan da eta hura etorri da*

## Bilakaera euskaraz

Xabier Alberdik bere lan mardulean gai honi buruz ematen dituen zenbait azalpen ekarri nahi nituzke lan honetara. Alberdiren ustez, *zu* izenordain begirunezkoaren bilakaera honelakoxea izan da:

zu plurala → zu plurala/zu begirunezkoa (sing) → zu begirunezkoa

Hau da, lehen urratsa begirunea adierazteko pluraltasunaz baliatzea izango zen, izenordain bera zeregin bitarako erabiliz. Bigarren urratsa *zu*-ren singularitzea izango zen, aurreko urratsaren ondorioz sortutako anbiguotasuna saihesteko, eta honekin lotuta *zuek* izenordain plural berrituaren sorrera egongo zen. *Zu* izenordain begirunezkoaren antzinako pluraltasuna eta *zuek* pluralaren berritasuna agerian uzten dituzten arrazoiak nahiko sendoak dira: *i/u* erro desberdinak, bien pluralgileak, zenbait lekukotasun, eta abar.

Alberdiren ustez nahiko arrazoizkoa litzateke pentsatzea euskarak bilakabide hau alboko hizkuntza goitarragoen eraginez egin zuela, hau da, frantsesaren eta gaztelaniaren eraginez (*vous* eta *vos* begirunezkoak).

Mendeen joan-etorrian hegoaldeko euskararen *hi/zu* bikoteari hirugarren maila bat erantsi zaio: *berori* izenordain “hiperbegirunezkoa”, hain zuzen ere. Baina Xabier Alberdik aipatzen duenez, badira arrazoiak beroriketa tratamendua hegoaldeko euskararen berrikuntza ez oso antzinakotzat hartzeko. Gainera, ez omen dirudi *zu* eta *berori* izenordainen artean sekula zinezko alternantziarik egon denik, eta izenordain honen gainbehera neurri handi batean beraren erabilera asimetrikoagatik esplik daiteke —hau da, batek berori esan besteari eta besteak hika edo zuka erantzun—, *berorik* botere-zama handiegia zeraman itsatsita erabilera neutroan arrakasta izateko.

Hikako aditz-joko alokutiboaren antzinatasunaz, berriz, ez dago zalantzarik, lehenbiziko testuetatik dokumentatuta dagoelako eta halako sistema morfologiko korapilatua ezin daitekeelako goizetik gauera eraiki. Alokutiboak adizkera neutroarekin alderatuz gero, ordea, alokutiboen geroagokotasuna eta izaera markatua azpimarratu beharrean gaude. Aditz-joko alokutiboa, jatorriz, solaskidea azpimarratzeko eta hizketaldiaren harira biltzeko enuntziazio-eragiketa adierazkor baten emaitza ihartua litzateke. Hau da, forma alokutiboen jatorria adizkera biltzailean topatu beharko genuke. Gaur euskaran ere egiten dira horrelako “egitura biltzaileak”, helburutzat solaskidearen arreta jasotzea dutenak:

Gure baserritarra zintzoa da → Gure baserritarra zintzoa duzu

Sinkroniaren ikuspuntutik adizkera “biltzaileak” eta “alokutiboak” fenomeno desberdinak eta ongi bereizi beharrekoak badira ere, diakroniaren ikuspuntutik, beti ere Schuchardten interpretazioaren arabera, solaskidearen “bilketa” edo “inplikazio eragiketa” egongo zen aditz-joko alokutiboen sustraian.

Bestalde, aditz-joko alokutiboentzat, ondorengo hurrenkera proposatzen du Alberdik: lehenik hitanoa dugu, ondoren zutanoa (alokutiboa), aurrekotik analogia bidez sortua eta azkenik, xuketa (alokutiboa), zuzenean zutanotik palatalizazio bidez erakarria.

## 2.3. Alokutiboak eta debeku sintaktikoak

Forma alokutiboekin amaitzeko pare bat ohar egin nahi nituzke. Batetik, forma alokutiboak beti ere 1. edo 3. pertsonari dagozkienak izango dira; beraz, alferrik izango da “egin duzue” edota “jaso duk” formen alokutiboaren bila hastea. Bestetik, testuinguru sintaktikoak zenbait muga eta debeku ezartzen dizkigu zenbait kasutan. Esate baterako, mendeko perpausak ez dute forma alokutiborik onartzen:

\* *Ez zioat esan Telmo etorri du(k)ala*  
(Zumaian, dekela) OKERRA

Galderazko eta harridurazko perpausetan ere ez da forma alokutiborik onartzen, joera nagusi bezala behintzat ez<sup>4</sup>. Badirudi forma alokutiboa zuzenean baieztatua edo enuntziatua denerako gordetzen dela.

\* *Mikel etorri al duk?* OKERRA  
*Mikel etorri al da?* ZUZENA  
\* *Egindakoa damutuko ahal zaion!* OKERRA  
*Egindakoa damutuko ahal zaio!* ZUZENA

Debeku guztiak ez dira neurri berean errespetatzen eta froga gisa, badirudi galde-perpausetan bestetan baino errazago sartzen direla alokutiboak. Bestalde, euskalki eta lurraldearen arabera ere joera desberdinak daude; esaterako, Bizkaiko zonalde batean mendeko perpausetan alokutiboak erruz sartzen dira. Hala erakusten du Gotzon Aurrekoetxeak Euskal Herriko Hizkuntz Atlas (EHHA) aztertuz egindakoa artikulua.

Debeku hauei buruz, aipagarria da batez ere gaztetxoek ia ez dutela bat bera ere errespetatzen, eta ondorioz, “etorri dekela” eta “jun dekenian” bezalakoak barra-barra entzuten dira. Zenbaitek hala uste badu ere, ez da oraingo kontua, ordea. Txillardegik Euskera agerkariko artikulua batean ere jasotzen baititu antzeko adibideak<sup>5</sup>.

Euskal Herrian oso hedatuta dagoen ohitura edo akatsa da gaur egun, eta Anjel Lertxundik zutabetxoa eskaini zio BERRIA egunkarian, *hitz beste* izeneko atalean (BERRIA, 2003-12-17):

<sup>4</sup> Nolanahi ere, herri askotan erruz erabiltzen dira galderetan eta baldintzazko perpausetan, eta malgu jokatu beharko genuke herri mailako proposamenetan

<sup>5</sup> (...) hika-ren aldeko mogimendu zabal bat sortu da Euskal Herrian Literaturaren bidez. Baiña batzuk behar bezin sakonki problema ez ezaguturik, sekulan esan ez diran formak idazten hasi dira, hizkuntzaren bidetik baztertuz. Esate baterako: etorri *dukala* esan dik, joan *dukan* gizona harrapatu ditek, nor erori duk hire ustez? Hika mintzatuagatik ere, ez baitira forma aldatuak kasu guztietan erabiltzen. (Txillardegi, 1968)

## JATORRIKA

Euskararen zoko batzuetan joera natural baten gisa bizi izan bada ere, azken urteotan gero eta gazte gehiagok ageri du hitanoa sintaxiaren soro, bazter eta zanga guztietara eramateko joera. Urola bailaran ez dakit beste tokietan gaitza zenbateraino hedatua dagoen nagusitzen ari da aditz asmatuekin osatutako hitanoaren gehiegizko erabilera. «Etorri naukenean hi ez hengozen zineko atean». «Hik zer pentsatzen duk, tontoa dukela, ala?» «Hik badakik ondo asko nolakoak gaituken». «Berandu etorri nauk, eguraldia petraldu dukelako». Jario natural baten moduan bizi den joera bat da. Jatorraren jatorrez, pentsatzen da erabilerarik garbiena, sanoena, naturalena dela. Jatorren (jator usteen) hika horri jatorrika deitzea proposatuko nuke nik, baldin esperantzarik banu espresioak irabaziko duela bazterren baten zerutxo gure gramatikarien begirune oskarbian.

Fermin Etxegoien kritikoak telebistan ere ikusia du erabilera oker hori, Wazemank programan esaterako<sup>6</sup>. *Benetako* Euzkitzek eta Tolosak erabiltzen ez dituzten formak eta egiturak erabiltzen dituzte, bai, agian ia gidoirik gabeko saio inprobisatuak direlako horiek?

Debekuak ezagutu eta hika zuen egitea ez da kontu erraza, are eta gutxiago etxean eta inguruan eredu onik jaso ez bada. Horregatik, badirudi Euskaltzaindian aztertu izan dutela erabilera eta arauak nolabait malgutzea, aukera errazagoak proposatzea. Lazarragaren eskuizkribuak aztertzerakoan, Xabier Kintanak aukera ikusten du eredu horri jarraitu eta hitanoa galbidetik aldentzeko<sup>7</sup>. Nolanahi ere, proposamen horrek ez du arrakastarik izan, Koldo Mitxelenak berak antzeko zerbaiten premia ikusten zuen arren<sup>8</sup>.

<sup>6</sup> Euren erdarakada guztiekin ere, Wazemank saioko pertsonaien euskalduntasuna hizkuntzari dagokionez eredugarria baita (tira, dudatxo bat: hika-noka nola egiten duten zoragarria zait, noski, baina ez dut uste Euzkitze batek, adibidez, «dittukela» forma inoiz erabiliko lukeenik. «Dittuk» bai, baina ondorioz «direla»; «nauk» bai, baina «naukela» ez, «naizela» baizik). (Berria, 2005-10-27)

<sup>7</sup> Hitanoari doakionez, trataera horrek mendez mende garatu duen alokuzio-sistema gero eta korapilatsuagoaren orde, Lazarragaren denboran eta Arabako euskara hartan behintzat, hi pertsona erabiltzeak ez zekarren aldean pertsona hori preseski aipatzen ez zen gainerako adizkera guztietan ere horrexen genero-marka azaldu beharra, hau da, "hi haiz eta ni naiz" esatea zilegi zen, hor nahitaez, gaur bezala, nauk edo naun adizkerak sartu beharrik gabe. Horrek, noski, erabat errazten zuen hika jardutea, gaurko aberastasun pitxiek zailtzen duten bezainbat. (...)

Honek geure gaurko trataera-sistema berrikusteko aukera ematen digu, oraingo usadioko hitano zaildua ikasteko eragozpenagatik, aspaldian ikasleen artean, abusu nabarmenaz, zukako tratua bultzatzen ari garelako, gure hizkuntzaren trataera jatorragoaren kaltean. Lazarragak zerabilen bezala, hitano oinarritzako honekin hasteak, orde, pixkanaka gainerako adizkerak ikasiz joateko bidea erraztuko luke, eta hi pertsona orain daraman galbidetik berreskuratzeko ere bai. (DEIA, 2005-05-29)

<sup>8</sup> Arazo hau dela eta, duela urte asko, Mitxelena zenarekin mintzatu nintzen, galdetuz ea berak ezagutzen ote zuen inor hitanoa adizkera guztietan ondo erabiltzen zuenik. Gogoan dut ezetz erantzun zidala: "-Oro har, hika egiten dutenek, orainaldiko eta lehenaldiko adizkera ezagunenetan erabiltzen dute, eta inoiz hipotetikoetan ere bai, baina zaila da potentzialak hika entzutea".

Nik orduan galdetu nion ez ote litzatekeen hobe izango, hika erabat gal ez dadin, metodologiaz bederen, hasieran, gutxienezko hitanoarekin hastea (hi, hik, hiri), horien aldamenean gainerako adizkerak mantenduz (*naiz, dute, nintzen, luke etab., nauk/n, ditek/n, nindu(n)an, likek/n* eta abar hasieran saihesturik) eta geroago, pixkanaka, maiztasun handiko formak ikasiz joan ahala, horiek ere pixkanaka sartzen joateko (*zagok, zihoak, sartu gaituk, ekarri zian, etab.*). Berak erantzun zidan bere ustez horixe zatekeela, segurenetik, bide egoki bakarra, hika, oraingo bidetik erabat galduko zen eta. (Erabili.com, 2005-06-13)



Irudigilea: **Antton Olariaga** (*Zaldibiako euskara*, Etxabe eta Garmendia, 2003)

## 2.4. Hitanoa norekin erabili

Galdera bati erantzunez, Azpeitiko Euskara patronatuak hauxe proposatu zuen (erabili.com, 2003-06-06):

HIKA lagunarterako hizkera da batez ere, baina ez lagunarterakoa soilik. Hurbiltasunarekin, etxekotasunarekin eta adiskidetasunarekin du zerikusia, etxean bertan ere ez zaio nornahiri hitz egiten, ordea.

Hona hemen zenbait adibide:

- Seme-alabek ez diete hika egin ohi gurasoei.
- Gurasoek haurtxoei ere ez.
- Senide artean, berriz, lekuan lekuko ohitura izaten da nagusi.
- Gehienetan emazte eta senarraren artean zuka (ezkondu aurretik eta serio atera aurretik elkarri hika egin arren).
- Nork bere buruari hika hitz egin ohi dio.
- Ezezagunei zuka.
- Jainkoari zuka baina deabruari hika.
- Morroiak ez dio hitz egiten hika nagusiari, ezta neskameak etxekoandreari ere. Nagusi-etxekoandreek, aldiz, hika nahiz zuka egiten diete euren menpekoei.
- Jendaurreko mintzaldiak zuka egin behar dira, dirudienez, baita komunikabideetako elkarrizketak ere.
- Literaturan, antzerkian eta zineman, ordea, hika mintza daitezke kontalaria ez beste guztiak.
- Animaliei hikako mutil forman egiten zaie, arra edo emea den bereiztu gabe. Erleei, ordea, zuka egiten zaie.
- Eskolan ikaskideen artean hika, irakasleari zuka.

Interneteko gunen horretan bertan artikulua mamitsua plazaratu zuen Xabier Alberdik (Alberdi, 2003a), eta hitanoaren erabilera baldintzatzen duten oinarritzko aldagai soziolinguistikoak aztertu zituen, banan-banan:

1. Gaia (hizketagaia).
2. Hizketaldiaren testuingurua.
3. Adina.
4. Belaunaldia.
5. Sexua.
6. Senidetasun-maila.
7. Dialektoa.
8. Talde-kidetasuna.
9. Aginpidea (legal edo politikoa), eskubide eta betebeharren gaineko aginpidea.
10. Sentipenezko elkartasuna, elkartasun psikologikoa (hau da, sinpatia, antipatia, begikotasuna, elkarrenganako ezinikusia, e.a.).

Horiek aldagai orokorrak dira, beste hizkuntza batzuetan kontuan hartzen direnak, baina beharbada euskaraz besteren bat ere kontuan hartu beharko litzateke, Alberdik berak dioenez<sup>9</sup>.

Hitanoa nola eta zenbateraino erabiltzen den ikusteko, Xabier Alberdiren beste artikulua batek ematen du informazio osatua (Alberdi, 2003b): Familiako erabilera,

<sup>9</sup> Gu geu, euskararen kasurako "baserritar/kaletar" jatorria ausartuko ginateke proposatzera aldagai soziolinguistikotzat. Esan beharrik ez dago baserri-giroan edo baserri-girokoen artean inon baino hobeto eta biziago atxikitzen dela hikako tratamendua. (Alberdi, 2003a)

haurrekiko jokabidea, barne-bakarriketa, animaliekin, lagunartean... Nabarmentzeko modukoa da erregistroei buruz azaltzen duena, joera handia egon delako hitanoa erregistro apalekin identifikatzeko<sup>10</sup>.

Ikus ditzagun orain erabilera berezi batzuk, debeku eta mugekin jolasean dabiltzanak:

Andu Lertxundi adibide polita dakar, esaterako, *Letrak kalekantoitik* liburuan:

Euskara nahiko herdoildurik zuen apaizgai bat herriko erretorearengana joan zen parrokiako lanetan laguntza eskaintzeko, eta berebiziko perla bat osatu zuen ustekabeen, hiru tratamenduak (berorika, zuka eta hika) nahasturik:  
—Berorrek nahi baduzu etorriko gaituk!

*ZIRIKADAK* liburuan Juan San Martinek antzekoa bildu zuen:

#### IKASI BEHAR DU BEHEKOAK

Abade jaunak deitu zetsan dotriñan ebillen ume baten gurasuari ta esan zetsan:

—I, Paulo, ire semiari berbetarako edukaziño pixkat emon biar detsak; ze, ikan tratatzen najok eta. Ba-dakik ori eztana itxura bestien aurrerako be.

—Lelo madarikatua. Orrenbeste jakin biar eban ba. Ikan tratau abade jaunari? Ederki orixe. En fiñ, lotsagabe txamarra be bada-ta; baña, neuk erakutsiko detsat ari, gizonak da batez be abade jaunak nola tratau biar diran. Txakurto alena.

Ettxera juañ zan Paulo eta semeari esaten detsa:

—I, baña, ik eztakik abade jaunari "berori" deitu biar jakona ala?

—Izena aldatu detse ala?

—Ez!, ze izenea aldatu ta ze otxo-kuarto. Izena aldatu detselako ez; abadiari errezepturako beti olaxen deitu biar jakuelako.

Ondoren emon zetsan milla esplikaziño, berorika zelan ein biar zan konprendidu eian.

Urrengo egunian juañ zan dotriñara ta soltau zetsazen, abadiari, "berorikada" batzuek. Abadia poztu zan gurasuak bere esana aintzakotzat artu ebala ta mutillan edukaziñua leunduko zala pentsaurik. Ala be, berekautan pentsatzen eban zuka eingo balezkio be naikua litzakiala. Ta modu onian preguntau zetsan:

—Norek esan deuk "berori" ein biar jatala?

—Ba, aita esan jestak iri "berori" esateko.

<sup>10</sup> Gure artean "tratamendu" eta "erregistro" terminoak era nahasian erabili izan dira, bata eta bestea erabat parekatuz. Horrela, adibidez, hikako tratamendua hizkuntzaren erregistro apalekin identifikatu izan da, esanez "lagunarteko erregistroa" dela, "arrunkeria" dela eta abar. Gure ustez, berdintze hori, nahi gabe, kaltegarri gerta daiteke hitanoaren iraupen eta zabalkunde "normalerako", adierazpen horretatik honako gaizki-ulertua sor daiteke eta (...) Hitanoa "elkartasunaren" (berau kidetasunaren zentzuan ulertuta), etxekotasunaren eta lagunartekotasunaren tratamendua da, hizkuntzaren maila estandarrean eta jasoan ere elkarriketaren orduan eta aipatu helburu adierazkorrez jantzita guztiz erabilgarri eta egoki gerta daitekeena. Gure ustez, beraz, "erregistro" eta "tratamendu" terminoak ez dira kontzeptu parekagarriak, nahiz eta sarritan batera gertatzen diren: hikako tratamendua "lagunarteko erregistroan" gertatzen da maiz, baina horrek ez du esan nahi erregistro horretara mugatua geratu behar duenik (hizkera herrikoian, arruntean eta bestetan ere gerta daiteke-eta); hots, gure aburuz, tratamenduetariko bakoitzak ez du zertan egonik hizkuntzaren erregistroetariko bati (hizkera jasoari, estandarrari, lagunartekoari, herrikoari edo arruntari) atxikirik.



Hitanoak ez du fama onik izan, eta askotan ijitoekin lotu izan da, gutxiesteko<sup>11</sup>. Jose Ramon Zubimendiri jasotako erreferentzia hau horren adibide (DV, 1995-06-27):

—Zer beardek, aita?

Se recoge la frase, como de gitanos euskaldunes, que tuteaban a todos los suyos.  
**(Justo Mokoroaren bilduna, 91017 zk.)**

Beste adibide batzuetan, mugak eta debekuak malgutzen eta lausotzen ari direla ikus dezakegu. Esterako, apaizgaiek (edota apaizek) elkarri hika egitea zilegi da? Joxe Mari Iriondok Aranalderi buruzko artikulua batean jaso zuenez<sup>12</sup>, egin izan da, behintzat.

Eta seme-alabek gurasoei hika egitea onartu beharko litzateke? Garai batean pentsaezina zen, baina Joxerra Garziak hasiera batean ez zizkion ateak itxi, “Usadioarekin borrokan” izeneko zutabea<sup>13</sup>. Hika egin zalea da Joxerra, ikasleren batek hika egin izan dionean ere ez du txartzat hartu, baina etxean? Zer gertatu zen semeak hitanoaren plazera aurkitu zuenean? *Kurrin-kurrun vitae* liburuan eman zigun horren berri<sup>14</sup>, 1991ko zutabe hura inor gutxi gogoratuko zuela pentsatuz, beharbada.

<sup>11</sup> (...) euskaldun askoren gusturako hitanoak konnotazio txarrak ditu: ijitoen edo buhameen mintzaira, basokoen edo baserritarren hizkera, hizkuntza zakar, gordin, gogorra eta abar luzea. Gauzak horrela, gurasoengandik seme-alabenganako hitanoaren transmisioa berariaz moztu izan dute familia askotan, itsusia delakoan, motza delakoan eta antzerako aurreiritzien eraginez, nahiz eta gero etxetik kanpo hika egiteari erabat ez utzi. (Alberdi, 2003a).

<sup>12</sup> Hizkuntzari dagokionez, euskara izan zen eta da beti haien etxeko hizkuntza. Baina hiru trataera ezberdin erabili izan dute haienean, Euskal Herriko beste familia askotan ere erabiliko den bezalaxe, seguruena: Anaia-arreba eta lagun artean, hika hitz egiten zuten eta dute; aitari, osaba-izeba eta adinekoei, zuka; eta amari, beti berorika. Behin kontatu zidanez, inoiz edo behin ama gogor haserretu omen zitzaion, bere apaiz lagunei eta hika hitz egiten zuelako. Baina entzunaren entzunez ohitu egin zen gero. **(erabili.com, 2006-02-10)**

<sup>13</sup> Azkueri jaramon egitekotan duela urte bete hasia behar nukeen, orain sei urte dituen semea hika hitz egiten. Aitortzen dut ez dudala legea betetzen, zuka egiten didala oraindik. (...) Zakar erizten bide zion Azkuek hitanoari: zakar, gordin, gogor... haur txikiak behintzat. Haur horiek mutiko eta neskato hazi bitartean beste gozotasun batez mintzatu behar: zuka. (...) Etorriko da, bai, haurrari hika egiteko garaia. Nirea beste hitanorik ez du, agian, entzungo gizarajoak, eta martziano samarra irudituko zaio. Ikastola aldetik ez dut, egia esan, esperantza handirik. Telebistako marrazki zenbaitetan, akaso. Dena dela, hasiko natzaio, bai, aurki hika.

Zalantza handi bat badut ordurako. Utziko al diot nigandik ikasia nirekin praktikatzan? Utziko al diot aitari hika hitz egiten? Sakrilegio galanta litzateke hori tradizioaren aldetik. Baina haurtzaroaren iraupenez batera guraso eta seme-alaben arteko harremanak ere aldatu egin dira, gurean behintzat.

Guretzat zaharrak diren usadioak noizbait sortuak izango dira, orduko zaharren kaltetan. Nork hitz egiten dio gaur egun berorika aitari?

Harreman berriek ez ote dute hizketan ere beren islada behar? Usadioaren morroi behar ote dugu beti, hitzez hitz harturik? Tristeia litzateke usadio berriak sortzeko gaitasuna betirako galdu dugula aitortu behar izatea.

**(Euskaldunon Egunkaria, 1991-09-13)**

<sup>14</sup> Ikasleei hitanoz hitz egin zalea naiz. Ez noski irakas-jarduna denentzat denean, ikasleei banaka ari natzaiane baizik. Inoiz edo behin, hitanoz erantzuten didan ikasleren bat agertzen da, eta ez zait gaizki iruditzen hala egitea.

Fraideek *usted*ka hitz egiten ziguten, eta baita guk haiei ere noski. Bistan denez, errespetua ez dago hizkuntzan, ez behintzat hizkuntzan bakarrik.

Ez naiz, ordea, hizkuntza kontuetan dena libre uzten duten horietakoa. Gure semeak, hitanoaren plazera deskubritu zuenean, hika hasi zitzaidan behin. Ez nion ezer erantzun, baina berorika hasi nintzaion. Airean ulertu zuen esan ez niona. (Garzia, 2004a)



Jose Inazio Ansorenak (Mirri pailazoak) gai hori hizpide izan du beste zutabe edo artikulu batean, haur hizkera aztertzen ari zela<sup>15</sup>. Xabier Euzkitzek bestela jokatu izan du, ordea, eta halaxe aitortu zuen Uztarrria aldizkarian 2006an egin zioten elkarrizketan<sup>16</sup>. Aurrerago ikusiko dugunez, badira semeei hika eta alabei zuka egiten dieten gurasoek; ez da horietakoa Euzkitze<sup>17</sup>.

Gertukotasun hori gustuko duena da Koldo Zuazo ere, eta Juan San Martinekin zeukan harremana azaltzerakoan ederki frogatzen du<sup>18</sup>.

Beste balizko debeku bat: ikasleek ezin diote irakasleari hika egin. Unibertsitateko ikasle batek (Ekaitz Santaziliak) galdera egiten du artikulu batean<sup>19</sup>: zergatik ezin dio ikasleak irakasleari hika egin, horrekin hitanoa zabalduko bada?

Hitzarmen edo adoste moduko bat balego ikasle eta irakasleen artean, bidezkoa dirudi horrela jokatzek, eta badirudi irakasle batzuk konforme daudela, Pello Salaburu, adibidez<sup>20</sup>. Beste irakasle batek, Txipi Ormaetxeak adoste horren bi adibide ematen ditu, artikuluaren erantzunetan<sup>21</sup>.

<sup>15</sup> Haurrari beti zuka egiten zaio. Gaur egun zenbait lekutan zabaldu diren hiketa ohiturak bestelakoak izan arren, tradizioan zazpi-zortzi urte arte (beti ere haurraren arabera) ez da erabili izan. **(Argia, 1687. zk)**

<sup>16</sup> **Aner semeak 5 urte ditu eta hika egiten dizu.** Neuk geure aitona Guillermoni gauza bera egiten nion. Akordatu egiten naiz horrekin. Amona Elvirari ez zitzaion batere gustatzen hori eta gozo-gozo esaten zidan: "Xabier, aittitteri 'zu' esan behar zaio, 'hi' esatea oso zatarra da". Aitonak: "Hik ez egin kasorik, hik niri 'hi' esan", eta barregura ematen zion. Anerri jendeak esaten dio: "Aitari hika egiten al diozu?". Bera ohartu egiten da hor badagoela zerbait ezohikoa-edo, eta: "Bai, barregura ematen diolako". Hitanoa naturaltasunez eta egokitasunez erabiltzen den lekuan badakit mutil kozkorak aitari zuka egitea dela normalena, baina uste dut gure mutilak hika ondo egiten ikasi behar duela, eta horregatik egin izan diot betitik hika. Gainera, orain ondo egiten ikasteko ez du beste eredurik, lagunek ere 'zu' esaten diotelako. Ederki egiten du hika Anerrek. Neuk hitanoari balore handia ematen diot, eta Tolosarekin ETBn hala egiten dut, ETBko euskara arduradunek zalantzak eta desadostasunak agertu izan arren. **(Uztarrria, 78. zk.)**

<sup>17</sup> **Alaba txikiari nola?** Hika, noka. Eta Aner ohartzen da eta nahastuta egiten dio, baina hika egiten dionean, oso egoki egiten dio noka, ez toka. **(Uztarrria, 78. zk.)**

<sup>18</sup> Juan San Martinen etxera joan eta berak zabaldu zigun atea. Laneko jantziekin zegoen, traje eta gorbatarekin, eta ikusi bezain laster agur haxe egin zidan: "Hi haiz, orduan, Zuazo? Ezautzen jittuat hire gurasuak...". Edozein eibartarren moduan hitz egin zidan: herriko euskarari eta hitanoari. Berehala galdu nuen beldurra eta berehala askatu zen nire barrena, eta neuk ere herriko euskarari jardun nuen lasai eta nasai. Historiako lana nola egin esateaz gainera, beste ikasgai bat eman zidan: hartu-eman gertukoa izango bada, hizkuntzak ere gertukoa izan behar duela. Irakaslea naiz bizibidez, eta beti izan dut ikasgai hori gogoan. **(erabili.com, 2005-06-01)**

<sup>19</sup> Euskal Filologian ari naiz UPV-EHUn. Irakasle batzuk, ez denak, ikasleoi hika zuzentzen zaizkigu, bai eskoletan bai eskoletarik kanpo. Ikasleok nola erantzun beharko genukeen da neure buruari galdetzen diodana. (...)

Hau ikusirik duda izpirik ez dagoela ematen du, irakasleek ikasleoi hika zein zuka egiteko aukera dute eta ikasleok zuka egin behar diegu beti, gainera honek horrela behar du, zeinahi dela testuinguru edo egoera.

Baina nik haratago joan nahi nuke. Alberdik aski ongi daki zenbait eremutan hitanoa atzera ari dela erruz. Horren arrazoia honakoa izan daiteke: nolabait testuinguru akademikoak hitanoaren erabilera ez duela bultzatzen esan dugu, baina kontuan har dezagun gero eta euskaldun gehiago eskolan euskaldundu direla (edo garela), beraz hitanoaren ezagutza erabat mugatzen zaie. (..)

Beraz, nire proposamena orain arteko erabilera esparru hori hedatzea da. Hitanoa gero eta gutxiago erabiltzen bada, eman diezaiozun gehiagotan agertzeko aukera. Aukera desberdinak bururatzen zaizkit egia esan. Simetriari hurbiltzen ari bagara, bi solaskideen arteko solasa zuketan izan dadin aukera asko dago. Bietariko batek hitanoa menperatzen ez badu, arrunta iruditzen zait zutanora jotzea, baina biek hitanoa ezagutuz gero, zergatik ez baliatu? **(erabili.com 2007-03-07)**

<sup>20</sup> Nik ez diat, Ekaitz, hire zalantza argituko, nahiz eta egiten duan proposamena aski bidezkoa ikusten dudana. (...) Eta noizbait elkarrekin egoten bagara, ez izan inolako zalantzarik: hire hitanoa lasai asko erabil dezakek nirekin. Nik ere halaxe egiten diat eta, hirekin. **(erabili.com, 2007-03-07)**

Nik neuk ere baditut antzeko bi adibide, gurasoen adineko bi gizonekin hika aritzen naizelako, biek hala eskatuta. Irakasle izandakoa eta bertso-eskolako laguna bata (ataundarra), eta lankide izandakoa bestea (zestoarra).

Pertsonarekiko harremanarekin batera, testuinguruak eta intentzioak ere asko markatzen du hitanoaren erabilera, eta adibide bat ematen du Imanol Esnaolak, gazte hizkera ikertzen aritutakoak<sup>22</sup>.

Juan Carlos Perez musikariak eman digu beste adibide bat, adin tartearekin lotutakoa, batzuetan adinez zaharragoak denak eskatzen baitu maila berean erantzutea, zenbaiten begietan desegokia izan arren<sup>23</sup>.

Duela hamarkada batzuk hika, zuka edo berorika egiten zen jakiteko, oraindik ere garaiz gabiltza, horren lekukoak gero eta gutxiago diren arren. Horregatik da garrantzitsua adeineko jendeari elkarriketak egitea, Zumaian 2008 eta 2009an egin den bezala, eta hara Orion deialdia nola egin zuen Euskara batzordeko buru Iñaki Iturainek, Karkara aldizkarian (241. zk., 2008ko maiatza):

### **Gazte, hoa grabazioa egitera!**

Erne, gazte, aukera ederra den/k hau. Hoa herriko edadeko hamar herritarrengana, haiekin berriketan egitera. Joan lasai, presarik gabe, samur, baina erne, entzutera, ikastera; gero, entzundakoa eta ikasitakoa erakusteko. Hitz eginarazionk bati, hika, hurrenari zuka, eta beste bati, ahal bada, berorika. Bati itsasoaz, hurrenari baserriaz, beste bati ohitura zaharrez... Hitzun ona aukeratuz gero, asko ikasiko denk, eta, gainera, gozatu. Eta hik gozatuz, gozarazi egingo denk hiltuna bera; eta, elkarriketa eta grabazioa onak ateratzen badira, gu guztiok ere bai. Eta gainera dirua irabaziko denk. Hau bai aukera ederra!

<sup>21</sup> 1) Euskal Herrian oso ezaguna den idazle-euskaltzale-euskalari... batek berari hika egitea eskatu zigan bazkari batean. Pertsona hori ni baino belaun bat zaharragoa duk (25 urte, juxtu-juxtu), eta hasieran zertxobait kostatu bazitzaidan ere, orain, urtebeteren ondoren, hika egiten diat berarekin ahoz zein idatziz. Ohitura kontua, beraz.

2) Duela hilabete batzuk ni baino 20 bat urte zaharragoa den apaiz jator batek ere hika egitea eskatu zidaan. Hasieran gogor samarra gertatu arren, orain berarekin elkartuz gero, ez nitek arazo handirik hika jarduteko. (**erabili.com, 2007-03-07**)

<sup>22</sup> Izan ere, gauza bera al da esatea lagunartean, lagunak neskari irribarrez, "Hi haiz hi sorgina"; ala ikastetxean, ikasleak irakasle andereari azterketa gaingitu ez duelako, "Hi haiz hi sorgina"? Bistan da ezetz. Biak esan daitezke; hautematea, ordea, oso izango da desberdina. Gizarteak ezarritako dituen arauak esker badakigu bakoitza nola ulertu behar den. Lehena ziri maitakor moduan ulertuko genuke; bigarrena, berriz, irain eta haserre adierazpen moduan. Alegia, lagunari adiskidetasuna adierazteko leunki zirikatuko dugu; irakasleari, iraintzeko, hika egingo diogu eta zama gordineko adjektiboak erabiliz zuzenduko gataizkio. (**Hik Hasi, 49. zk.**)

<sup>23</sup> Nik kalean ikasitakoa dakit euskaraz. Zuka besterik ez dakit. Lajaren diskoaren produkzioa egin nuenean, hitz egitea tokatu zitzaigun, jakina. Bera niri hika; ni hari zuka... eta bera ez zegoen eroso. Halako batean galdetu zidan zergatik ez nion egiten hika, egiteko hika inporta ez bazitzaidan. Nik, trankil egoteko esan behar izan nion: 'Zu lasai, zuk egin hika, ni hika hasten banaiz igoal ez dugu elkar ulertuko-eta'. (**Argia, 2.007. zk, 2005-09-18**)

**AHOTSAK.COM** proiektuak herri askotako grabazioak biltzen ditu, eta horietako batzuk webgunean bertan irakurri, entzun edo ikus daitezke. Altxor handia dugu eskura, batetik herri horietako aditz-formak erakusten dizkigutelako, eta bestetik, tratamenduak nola erabiltzen zituzten ere azaltzen digutelako. Horretarako, nahikoa da bilaketa gaiaren arabera egitea. Adibide bat ekarri dugu hona:

**Hizlariak:** [Mercedes Agirre Elkoroturbe](#) , [Elisa Gantxegi](#)

**Herria:** [Bergara](#)

**Elkarrizketatzailea(k):** Iñaki Etxaniz , Jaione Isazelaia

**Data:** 1985/02/15

**Laburpena:** Euskara. Hitanoaren erabilera. Osintxun azkenaldian zuka asko entzuten da.

---

- Eta lehen hemen hika eingo ziñuen, ez?
- MERTZEDES: Hi guk beti.
- Hi beti, ez?
- M: Bai. Guk bai.
- ELISA: Ointxe arte Osintxun zu oso gutxi...
- M: zu ointxe asko esaten da, nik daneri hi. Nik daneri. Nik, ahiztia, pentseizu... nik hi esaten jat horri ta berak be bai neri ta...
- Hori ondio oin be bai e!
- E: Bueno, baiña Osintxuarrak famaute egon gaittuk horrekin Bergara inguru guztian e!
- M: Hi esatiakin...
- E: Oin hemendik kanpora be esaten da oingo euskara batua edo euskara zer honekin, baiña lehen honetantxe bakarrik e!
- M: Zu asko. Oin be hemen zu asko esaten da.
- E: Oin bai, baiña lehen lehen ez.
- M: Lehen ez. Danak hi.
- E: Pentsau be ez! Danak hi; ahiztak-eta alkarri, aittari ta amari zu, amandriari [...] tiueri ta...
- M: Aittari ta amari zu.
- Ta ume txikixari be zu.
- E: Bai...
- M: Ta pertsona zaharreri be zu. Baiña gaztien artien... bueno! Pentsau be ez besterik! Zu esaterik...! Hi [...], hi dana.
- Ta andra-gizonen artian?
- M: Andra-gizonen artian zu.
- E: Zu. Zu andra-gizonen artian.
- M: Guk zu [kostunbrau dou] beti.
- Ta ume txikixeri be zu.
- E: Zu ume txikixeri be.
- Segun, edade batera arte bai...
- M: Bai, txiki-txikixak dienien bai. Mutil koskorak eta dienien hi.
- E: Bai, txiki-txikixak eta dien artian... Gero bai.
- M: Bai, jenerala hi. Bai. Horixe kostunbriori zan hemen.

## 2.5. Hitanoa sexista?

Gainetik bada ere, hitanoarekin lotutako beste gai bat aztertu nahi dut.  
**Sexismoa bultzatzen du hitanoak?**

90eko hamarkadan hasi ziren honen inguruko iritziak eta proposamenak agertzen. Miren Azkarate euskaltzainak "Emakumea eta euskara" artikulua plazaratu zuen 1993an, aurreko urtean UEUn emandako hitzaldi batean oinarrituta, eta han aipatzen ditu zenbait aurrekari: Agurtzane Juanenak *Jakin* aldizkariaren 65. zenbakian emandako bat, Begoña Muruagak *Zabalik* astekarian 1090ean emandako beste bat... Gehienbat gaztelaniaren eraginez sortutako arazoak aipatzen ziren gehienetan, baina hitanoaren erabilera desagokia ere bai<sup>24</sup>.

Antzeko proposamena egin zuen Begoña Muruagak<sup>25</sup>. Emakunderentzat gomendioak sortu zituen batzordea koordinatzen aritu zen garai hartan. Emakunderen proposamena horrela jaso zen argitalpen batean (Emakunde, 1988):

### E) HITANOAK

Erabiltzekotan, gogoan izan behar dugu hitanoak sexua markatzen duela eta, beraz, kontu handiz erabili behar dugula inor ez baztertzeko. Hortaz, ez inoiz erabili talde bati zuzendutako mezuan, baldin eta talde horretan gizonak bakarrik ala emakumeak bakarrik dauden seguru ez badakigu.

Proposamen osatuagoa eta luzeagoa egin zuen Emakundek 2008an, *Euskararen erabilera ez sexista* izeneko gidaliburua (Barquin, 2008). Puntu osoa eskaintzen dio hitanoari (2.1 Generoa aditzean: hitanoa), eta alternatiba edo estrategia batzuk ere aipatzen ditu: zuka egitea, inperatiboetan aditz laguntzailerik ez jartzea... Beste aukera aitzindari bat ere aipatu zuen, Antton Olariaga marrazkilariak Zakilixut pertsonaiarekin erabili ohi duena: bi atzizkiak elkartu eta aditzak –NK amaitzea: dunk, gaitiztenk... Zenbaitek aipamen hori Emakunderen gomendiotzat jo zuten, eta zenbait gaizki-ulertu eragin zituen<sup>26</sup>.

Izenburuetarako bada ere, azken estrategia horrek jokoa ematen duela dirudi, horrela sortu baitzen *Wazemank*, esaterako, eta seguruena haren arrakastaren ondorioz beste hauek: *Harrapazank* (Topaguneak sustatutakoa egitaraua, gazteentzat), *Asmatu zank* (Bertsozale elkartearen materialean, atal bati izenburua emateko), etab<sup>27</sup>.

<sup>24</sup> (...) hitanoaren erabilera okerraz emakumea isilpean uzten da gaur egun zenbaitetan. Alde honetatik, hitanoak solaskide bakarra eskatzen duela gogoan izan beharko genuke; horrenbestez, bilera batean hango lagunei zuzentzen gatzazkienean ezin da hitanoa erabili, esaterako. Modu berean, publizitate kanpaina batean, ez da egokia hitanozko forma erabiltzea, batez ere –k, -n pertsona-markak ageri badira.

<sup>25</sup> Ez erabili hitanoa talde bati zuzentzen zaion mezuan, baldin eta talde horretan gizonak bakarrik ala emakumeak bakarrik dauden seguru ez badakigu, publizitate-mezuetan, adibidez. **(HABE aldizkaria, 223. zk. 1993ko otsaila)**

<sup>26</sup> Sustatu atarian, esaterako: <http://sustatu.com/1211896238>

<sup>27</sup> Mikel Astarloza famatu egin da 2009ko Tourrean. Webgunea badauka, eta atal bat badu jendeak mezuak idaztera gonbidatzeko. Izena? IDATZIDAK. Erraza da horrelakoetan -N- bat erasntea, edo IDATZI LASAI, bestela.

Beste puntu batzuetan irakaskuntza eta hedabideak aipatzen ditu Amelia Barquinek<sup>28</sup>. Puntu horiek 3. atalean aztertuko ditugu guk sakonago. Bukatzeko, ikerlari batzuen iritziak ere agertzen ditu Barquinek. Esaterako, Migel Anjel Unanuak gogorarazten duena: Koldo Mitxelenaren arabera, morfema maskulinoak ez du adierazten solaskidea maskulinoa denik, baizik eta bere sexua seinalatzeak ez duela garrantzirik. Mitxelenaren hitzetan, morfema maskulinoa “neutroa” da generoari dagokionez. Xabier Alberdik adibide batekin ematen du horren berri (Alberdi, 2003b)<sup>29</sup>. Iñaki Seguroak ere antzeko iritzia du, eta emakumearen barne-bakarrizketa azaltzen duen puntuan, emakumeari bere buruarekin toka aritzea seinaleztat ikusten du noka markatutzat eta toka markatu gabekotzat jotzeko (Seguroa, 1992).

Erakunde batek baino gehiagok jaso du hitanoari buruzko oharra euskara zuzen erabiltzeko gidaliburuetan. Ikus ditzagun adibide batzuk:

## BBK

### Hitanoaren erabilera

Jakina den bezala, euskaraz badago gure mezuen jasotzailea emakumea ala gizona den kontuan hartuta, adizki alokutiboen bitartez bereizteko. Hikako formak erabiltzean, bada, bi sexuotako hartzaileak hartzen ditugu kontuan. Horra, beraz, sexu-markaren agerpen urrienetakoa euskaraz.

Hikako formak erabiltzean, garbi izan behar dugu gure mezuaren hartzailea emakumea edo gizona den. Ez badakigu, edo emakume eta gizona, biei, zuzendu behar bagatzaizkie, ez erabiltzea gomendatzen da.

## EHU

**Tipologia:** Hitanoaren erabilera desegokia

**Azalpena:** Zenbaitetan hitanoa desegoki erabiltzen da, emakumea isilpean utziz. Solaskideak gizonak baino ez direla pentsatzearen ondorio zuzena da.

**Adibidea:** Batzar batean, emakumeak eta gizonak daudelarik, maskulino forma erabili bakarrik: *Azterketa egin ezak*.

**Zergatia:** Androzentrismoa.

**Ondorioak:** Emakumearen presentzia isilpean geratzea. Emakumeen protagonismoa galtzea.

**Irtenbidea:** Hitanoan oso markatuta dago sexua. Hika jardutean argi izan behar dugu gure mezuaren hartzailea gizona edo emakumea den. Eta gogoan izan hika pertsona bati hitz egitean erabili behar dela zuzen erabiliko bada. Ez badakigu zer den, gizona ala emakumea, hobe da hika ez aritzea. Zuka da forma egokia.

### Adibideak.

Neska bati zuzenduta: *gogoratu naun ez geninala (sic<sup>30</sup>) adostu zer egin*.

Talde osoari: *Azterketa egin ezazue*.

<sup>28</sup> (...) eskolan eta batuaz euskalduntzen diren umeek harreman gutxi dute hitanoarekin: ia bakarra telebistaren bidez lortzen da, eta batez ere marrazki bizidunen bidez. Programa horietan, baina, pertsonai gehienak maskulinoak dira eta solaskide maskulinoari zuzendutako hitanoa entzuten da gehienbat. Ondorioz umeek ikasten dituzten forma urriak horietatik dira.

<sup>29</sup> (...) sexuaren araberrako hautaketari bagagozkio, animalia emeei erabilera arruntena eta zabalduei toketa denez gero, esan daiteke toketa dela tratamendu markatua toketaren aldean. Emetasuna ageri-agerian ez bada eta berariaz azpimarratu nahi ez bada, toketa da aukera seguruen eta ohikoena animalia emeei.

<sup>30</sup> Mendeko perpausetan forma alokutiborik erabiltzen ez denez, “genuela” da forma zuzena.

Bestaldetik, euskarak badu aditz-formetan sexu-marka adierazten duen tratamendu bat, hika hain zuzen. Ezaguna denez, tratamendu berezi hau ondo erabiltzeko solaskidearen estatusa zein den hartu behar da kontuan, eta pareko edo beheko estatusakoei egin ohi zaie hika. Aditzetan, gainera, sexu-bereizketa agertzen da. Baina, bistan da, nekez erabiliko da tratamendu hau buruz buruko elkarriketetatik kanpo, ez da egokia, beraz, hedabideetan publiko zabalari hitz egiteko. Publiko zabal hori nola murriztu eta zehazten dugun ageri baita tratamendu hau erabiltzen den bakoitzean.

### **Topagunea (astialdia)**

#### **Hitanoaren erabilera**

Solaskide bakarra behar da edo genero bakar batek osatzen duen talde bat. Erabilpen ezegokiak daude: *Emaioak horiari* (Bilboko udaletxeko kanpaina), *“Erretzeari utzi ezaioak”*, *“Aukera ezak zure kirola”*.

#### **Kantak**

Kantetan ere sexismoa topatu ahal dugu, bereziki nerabeei zuzenduta daudenetan, baina baita umeen kanten artean ere, batez ere tradizioetik datozenak. Euskararen erabilerari dagokionez kantetan hitanoa erabiliz emakumeak desagertarazten dira edo gizonak hitza erabiltzen da eta ez dago jakiterik ea generikoa den edo ez. Beste batzuetan, emakumeak betiko roletan agertzen dira.

*“Kanta zak euskalduna kanta zak hire herria”*, “gizonak bagara jo .....” “gizonen lana jakintza dugu...”

Horrelako mezuen aurrean kritiko agertzen dira zenbait idazle. Horietako bat dugu M.A. Unanua, *To eta no sesioan euskaraz* liburuan egilea (Unanua, 2008). Liburu horren aurkezpenean eskainitako elkarriketan lehenago aipatutako iritzia eta jarrera agertu zuen<sup>31</sup>.

<sup>31</sup> - Batzuek esan dute hitanoarekin badagoela halako diskriminazio bat, zeren toka hitz egiten da gizon-emakumeak hartzeko, bereiztu gabe; eta noka erabiltzen da emakumeari zuzentzerakoan. Egin izan dira salaketak, adibidez iragarkietan «egin ezak hau» bezalako formulak agertu ohi direlako.

- Bai, zuk Miren Azkarateren hitz batzuk dakartzu liburura: «Publizitate-kanpaina batean, ez da egokia hitanozko forma erabiltzea, batez ere -k, -n pertsona markak ageri badira (errazago gerta daiteke 'hadi' forma dugunean): 'erretzeari utzi iezaioak/iezaion' jarri nahi ez bada, hobe 'utzi iezaiozu' jartzea».

- Baina hori Mitxelenak ukatu zuen. Garbi esaten du «tok, «eramazak» eta horrelako formek, inori espreski zuzendu gabe erabiltzen ditugunean, berez ez dutela generorik, gizonezko nahiz emakumezkoentzat balio dutela.

(DV, 2008-05-05)

Oso gai interesgarria iruditzen zait **hizkuntza, generoa eta sexuen arteko harremanak historian zehar** nolakoak izan diren aztertzea. Ez nuke lan honen helburuetatik gehiegi aldendu nahi, baina garrantzitsua iruditzen zait bi egileren lanak aipatzea, eta ea datozen urteotan bide horri jarraitu eta gai horretan gehiago sakontzeko aukera daukagun:

- **Anne-Marie Lagarde**: 2000.ean aurkeztu zuen doktore-tesia Baionan, eta hiru urte geroago argitaratu zuen lana liburu batean (Lagarde, 2003). Atal oso bat eskaintzen dio hizkuntza eta matriarkatua aztertzeari (4. zatia, "Matriarcat et langue")<sup>32</sup>.
- **Begoña Echeverria**: 2000. urtean aurkeztu zuen doktore-tesia. Gaia hezkuntzarekin lotua izan arren<sup>33</sup>, pisu handia hartzen dute azterketa hika eta zuka tratamenduek eta alderdi antropologikoak. Artikulu batzuk ere idatziak baditu, horietako batzuk sarean<sup>34</sup>.

<sup>32</sup> Laburbilduz, euskarak aditzean arra eta emea mintzamolde berezi bana (toka eta noka) jarrita, sexuen arteko simetria ezartzen du, eta boterea aldikatzen da. Horrek emazte lege edo matriarkatua bazela erakusten du.

<sup>33</sup> Hurrengo ataleko 3.6 puntuan aztertuko ditugu pixka bat Echeverriaren ideiak.

<sup>34</sup> Hizkunea agerkarian, esaterako (Echeverria 2007 eta 2009). Batean erakusten du siaspora amerikarrerako idatzitako Euskara-Ingelesa hiztegian gizonezko erreferenteak askoz gehiago erabili zirela eta emakumezko erreferenteak bigarren mailan jarri zirela gizonezkoenekin aurrez aurre zeudenean; bigarren lanean, erlijio arloan euskararen eta euskaldunen gainean generoak zer-nolako eginkizuna duen aztertu du, eta esaterako, *hi* forma pronominala erlijio motaren eta garaiazen arabera oso desberdin erabili dela erakusten du.

# III.

## HIKETAREN EGOERA EUSKAL HERRIAN

"Amorantea zen nabusi:

**no** zen **tho**:

emaztea gizon,  
oilloa oillar".

**Pedro Axular**

**Gero**



### **3. HITANOAREN EGOERA EUSKAL HERRIAN**

#### **3.1. Egoera orokorra: hitanoa galtzear?**

*Hitanoa Zumaian* liburuko hitzaurrean Xabier Alberdik ederki laburbiltzen du hitanoaren egoera zein den<sup>35</sup>. Alberdik berak 1994ko lan mardulean gai honi buruz ematen dituen zenbait azalpen zehatzago ekarriko ditugu atal honetara.

Hiketa euskararen eremu osoan barrena hedaturik dago, baina ez dauka indar eta bizitza bera eskualde guztietan, zoritxarrez, ezta gutxiagorik ere. Izan ere, badira nolabaiteko hutsune batzuk hiketaren eremuan. Esate baterako, Bizkaia aldean tratamendu hau ia erabat galdua dago itsasaldeko herrietan eta biziago eta osasuntsuago irauten du barrualdeko hizkeretan. Mende hasieran Azkuek bere *Flexionario...* lanerako Bizkaiko eskualde gehienetako hitanoa jaso zuela kontuan hartuta, pentsatzekoa da hitanoaren galera Bizkaian azken mende honetan azkartu dela. Xabier Alberdi irakaslearen ustez, “baliteke galtze azkar hori neurri handi batean hitanoaren gainean hedatuta dauden gaitzespenezko aurreiritzien ondorio izatea; izan ere, hikako tratamenduak —noketak bereziki— ez bide du ospe onegia Euskal Herriko hainbat herritan, ez Nafarroan eta Lapurdin, ez eta bereziki Bizkaiko zenbaitetan”.

Esandakoaren adibide da Pedro de Yrizarrek laguntzaileen aldetik jasotako iritziak. Nils M. Holmerrek aitortu zionez, hitanoa Bizkaian “bortitza eta iraingarria” da eta asko kostatzen da forma hauek ateratzea, hiltun askok ez baitituzte bertakotzat jotzen, gainera, “Gipuzkoa aldeko formak omen dira”! Ondarroatik, Forutik, Mundakatik... esaten diote Yrizarri beren herrietan ez dela ia hiketarik erabiltzen, eta beste zenbaitetan, berriz, tokako adizkiak bakarrik jaso dira. Yrizarren arabera, hitanoaren galera zertxobait sartzen omen da Gipuzkoako kostaldean (Mutriku), baina bestela gainerako euskalkietan ez dago Bizkaikoaren moduko hutsune edo salbuespenik hiketaren eremuan.

Zenbait herritan, dena den, kale edo hiri eta baserriaren arteko bereizketa egin behar izaten da: kaletarren artean hiketa galdua edo erdi galdua dago, baina baserri-giroan ondo bizirik irauten du lagunarteko tratamenduak. Bestalde, aipatu beharra dago hitanoaren galera askoz ere larriagoa eta orokorragoa dela noketari bagagozkio. Alberdik esaten duenez, “noketa tratamenduari erdialdeko euskalkietan eusten zaio hobekienik, baina gipuzkera eta iparraldeko goi-nafarreratik kanpo, ez dira asko toka eta noka *normaltasun* osoz aritzen diren herriak”.

<sup>35</sup> Gauza jakina da hitanoa oro har atzeraka ari dela. Atzera egite hori, gainera, aspaldikoa da, eta era askotakoa: lehenik, kopuruz ari da atzeraka, alegia, hiltun hiketzaileen kopurua beherantz doa; bigarrenik, erabiltzen den hitanoaren izateari edo nolakotasunari dagokio beherakada (prozesu horren lekuko ditugu, besteak beste, toka/noka bereizkuntzaren galera, paradigmaren zati baten galera eta sintaxizko debekuen urratzea; hirugarrenik, eta azkenik, hitanoaren beraren erabilera-esparruari dagokio ahultzea (hots, gero eta gizarte-esparru murriztagoetara mugatzen da hitanoaren erabilera. (Azkue, 2000)

Hona erabili.com guneko artikulua batean diagnostikoan ondorioztatutako beste zenbait puntu (Alberdi, 2003b):

1. Gaur egungo euskararen osasun makala. Izan ere, hitanoaren bizitza eta euskararena estuki loturik daude zentzu honetan: oro har –salbuespenak salbuespen–, zenbat eta euskarak biziago eta bakartuago iraun herri batean, hitanoak ere hainbat eta probabilitate handiagoa izango du delako herrian bizirik eta osasuntsu irauteko.
2. Hikako tratamenduan alokutibotasunari zor zaion morfologiazko oparotasuna. Alokutibotasunarena, euskararen aberastasun eta berezitasun morfologiko azpimarragarria da eta Txillardegi (1977) dioenez, berez, izatez inongo zailtasunik ez dakarren arren, hizkuntzak bizi duen egoera larriagatik, zama astun eta erabilgaitz bihurtzen da erregistro bakarreko euskaldunen begietan. Zentzu horretan alokutibotasunak eta morfologiazko oparotasunak mendealdeko hizkuntzetan ageri den T-ranzko joeraren aurka jotzen dute.
3. Hikako tratamenduari –batek ez daki ongi noiztik, zergatik eta noren eraginez – halako omen edo ospe txarra eta laidozko kutsua itsatsi dizkiote Euskal Herriko toki askotan, halako moldez ezen anitz euskaldunentzat tabu gisako zerbaite bihurtu baita. "Orbain" edo "bekatu" hau, ez da jatorrizkoa, noski, Azkuez geroztik frogatutzat ematen baita zu izenordainaren pluraltasun "berria". Euskarazko lehen lekukotasun idatzi garrantzitsuak ospe txar horren aurka mintzo zaizkigu: Detxepare, Leizarraga, Etxeberri Ziburukoak eta beste hainbatek ez zuten batere lotsarik izan hitanoa erabiltzeko.

Zubererako egoera zehatzago azaldua, Txomin Peillenen eskutik<sup>36</sup>. Eta nahiko ikuspegi ezkorra du Koldo Zuazok ere<sup>37</sup>.

<sup>36</sup> Gero, zailtasun bat du euskalkiak, aditz alokutiboa oso aberatsa duelako. Zukako alokutiboa badugu hitanokaz gainetik, eta zuek ez duzue problema hori. Markatu gabeko aditza bakarrik galderetan darabilgu. Orain zer gertatzen da, euskaraz ikasi gazteek holako plastikozko zuberera bat darabilte: zuka pixka bat erabiltzen dute, hikakoa gutxi dakike eta nokakoa guttiago. Batzuek etxean ikas dezakete, zeren eta ahizpak daudenean, ahizpak beren etxean noka mintzatzen direla leku batzuetan oraindik, baina gero, familia batean denak anaiak baldin badira, orduan noka. **(Peillen, 2008)**

<sup>37</sup> Garbi dago euskara asko soildu eta asko erkindu dela oso denbora tarte laburrean. Oso urte gutxitan galdu da hitanoa, oso urte gutxitan galdu dira hizkera bateko eta besteko azentuak, eta oso urte gutxitan galdu dira lagunarteko hitz eta esapideak. **(Zuazo, 2008)**

## Galdu da hitanoa?

Hala iragarri zuen ia Pello Etzanizek, eta baita buelta ematen saiatzeko proposamen bat egin ere<sup>38</sup>.

Zazpi urte geroago, ezkortasun bera adierazten du Gontzal Fontaneda irakasleak, erabili.com gunean emandako "Hitano zena" artikuluan<sup>39</sup>.

Erantzunetan ikusten da kezka horrekin bat egiten duen jende gehiago ere badagoela, Debako euskara-teknikari Amaia Zinkunegi, esaterako<sup>40</sup>. Xabier Armendaritz ere kezkatuta agertzen da, baina haren ustez hitanoa berreskuratzeko ardura ez dagokie erakundeei bakarrik, gizarte osoari baizik<sup>41</sup>. Hitanoaren zailtasuna

<sup>38</sup> Noka da aurrena galdu den erabilera, eta tokak behin-behineko oreka lortu duela dirudi hainbat eskualdetan, askoz galera mantsoagoa duelarik, zaharrek gazteei eta sexu berekoen artean gehiago mantendu da sexu ezberdinen artean baino. (...)

Gaiak berak dakarkigun galdera zera da: zergatik gertatu da galera hau? Hainbat erantzun posible bururatzen da: Hizkuntzaren galerarekin batera loturiko prozesua da? Inguruko hizkuntza indartsuagoekin izaniko kontaktuagatik? Komunikabideak estandartzeagatik? Gure gizartea globaltzeak hizkuntza ezberdinen artean eragiten duen tratamenduen kalkoagatik? Garai batean aipatzen ziren arrazoi erlijioso eta puritanoengatik? Hizkuntzaren berreskurapen prozesuan hitzun berri prestatuak, hau da, tratamendu ezberdinak ezagutzeko modukoak, lortzeko ezintasunagatik?

(...)

Guraso gazteenen aldetik ikusten da, ez diete etxean beren haurrei toka eta noka egiten. Horren ondorioz senideen artean ere ez da erabiltzen. Etxeko esparrua itxi egiten zaio alokutiboari. Hurrengo urratsa kalea da.

(...)

Laburbilduz, euskararen etorkizunean ezalokutiboaren nagusitzea iragar daiteke, baita gaur egun alokutiboak mantentzen den esparruetan ere. Norabide horretan dago, bederen. Epe motzera nokaren desagertzea, epe luzera tokarena.

(...)

Ondorioz, zerbait egin nahi bada, aktore guztien arteko akordio zabala eta adostasuna beharko da. Erakundeen, Euskaltzaindiaren, eskolaren eta komunikabideen artekoa.

**(Etzaniz, 2001)**

<sup>39</sup> Euskara galtzorian dagoela esan du Unescok. Ahalegin handiak egin eta egiten dira eta euskara aurrera doala baieztatzen dute Jaurilaritzaren eta erakunde kultural batzuen estatistikek. Eta mota guztietako lehenenak ere egin beharko ditugu arrisku-egoera honetatik ateratzeko eta (gaztelaniak, frantsesak eta ingelesak jartzen dizkiguten kultur oztopoak gaindituz) euskal normaltasuna lortzeko.

Dena den, euskara azken buruan salbatzen bada ere, aditz-jokabide bat hiltzeko arrisku bizian dago orain: hitanoa, euskararen ezaugarriarik garrantzitsuenetako bat. **(erabili.com, 2008-05-14)**

<sup>40</sup> **Kaleko erabileran eragin ikaragarria izan dezake**

Guztiz ados nago. Ez dut sekula ulertu zergatik baztertu izan den hitanoa hezkuntza sistematik. Lagun artean aitziz egin aproposagoa da. Gainera bi sexuetako adiskideak dauden taldeetan hika aritzea ere ez zait zail egiten. Neskari begiratzaren diodanean, noka egiten dut; mutilari begiratzeari, toka. Eta ez da arazorik sortzen. Hitanoa berreskuratu behar den zerbait dela uste dut; kaleko erabileran eragin ikaragarria izan dezakeela pentsatzen dut gainera. **(erabili.com, 2008-05-14)**

<sup>41</sup> **Gizartearen eginkizuna**

Nik ere kinka larrian ikusten dut hitanoa. (...) Nire ustez, hitanoa berreskuratzeko lana ez dagokio Hezkuntza Sailari, gizarteari baizik. Hitanoa kaleko hizkera da, erabilera formaletik kanpoko. Kalean ikasi beharrekoa, edo gazte giroan, behinik behin. Bestela, ez du zentzurik.

Hori ez dakit nola lor daitekeen, lortzeko biderik baldin bada. Astialdiko begiraleen bidez? ETBk gazteentzako moda-modako telesail bat erosi eta hika jarrita?... Hori dena lagungarri izango litzateke, baino askoz gehiago beharko dugu, askoz gehiago.

Euskararen jakintza gehituz doa, baina kaleko erabilera gutxituz (euskaraz zenbatek ikasi duten begirata, erabilera inoiz baino txikiagoa dela iruditzen zait, behintzat). Horren lekuko dugu hitanoaren galera, nik uste. Jakintza gehiago sartuta, ez zait iruditzen hitanoaren erabilera salbatuko dugunik; gazteek eta gaztetxoek kalean euskara gehiago erabiltzea behar genuke...

gainditzeko eredu zaharrak berriz hartzea proposatzen du Borja Ariztimuñok, aurreko atalean Xabier Kintanak proposatutakoarekin bat eginez<sup>42</sup>.

Aurrekoei iritzien erabat kontrakoa ere agertzen da gune berean, bost urte lehenago adierazia, Xabier Alberdik idatzitakoari erantzunez; zukaren alde egiten du Pruden Gartziak, Azkue Bibliotekako zuzendariak, hitanoaren premiarik ikusten ez duelako<sup>43</sup>.

Gontzal Fontanedak Argiaren webgunean ere agertu zuen iritzia, "Hi" izeneko artikulua batekin. Noketaren ia erabateko galera ikusten du, eta ikastetxeetan ia batere ez lantzea tamalgarritzat jotzen du<sup>44</sup>.

Erabili.com gunean bezlaxe, han ere erantzukizuna erakunde publikoen eta ikastetxeen esku tziko ez lukeen batek ere erantzun zion, Patxi Gaztelumendik<sup>45</sup>.

ARGIA aldizkariak aditu batzuk inguratu zituen euskararen osasunaz hitz egiteko, eta hitanoak ere izan zuen bere garrantzia solasaldi hartan (Argia, 1.850.zk., 2002ko apirilaren 21a):

#### <sup>42</sup> Beharrik ez

Hiketaren zailtasun handiena alokutibotasuna da, baina, kontxo, ez da hika aritzeko modu bakarra! Eta gazteek euskaraz egin dezaten nahi badugu, eta horretarako gazte-hizkera baten beharra badago, behintzat "hi haiz" esaten ikas dezatela, horrekin bakarrik ere lagunartekoago bihurtzen baita solasa. (..) Bestalde, zeharo ados nago hika eskolan irakatsi beharko litzatekeela. Has gaitezen, bada, "ni naiz, hi haiz..." irakasten eta lagunartekotasuna errespetu faltatik bereizten, ez baitut uste Leizarragak bere lesusi edo are lainkoari errespetu falta egozten zienik edota haiei oieski eta adeirik gabe zuzentzen zitzaienik! (erabili.com, 2008-05-16)

#### <sup>43</sup> Hitanoa ez da inolako aberastasun, edo jatortasunaren ispilu, edo

(...) Gasteizen bizi naiz eta ez dut hitanoaren beharrik ezertarako. Hitanoa erabiltzeak edo bertan behera uzteak, niretzat (edo ni bezalako batentzat) ez du inolako zerikusirik "elkarrekiko konfiantza mailarekin"; nire "konfiantza" adierazteko beste mila baliabide linguistiko dauzkat. Gasteizen bizi naizela esan dut, apropos, zeren, herri "euskaldun" batean bizik banintz, hantxe bai, hitanoaren beharra izango nuke hainbat egoeratan. Niretzat, hortxe dago mugarra.

Beraz, zukaren aldeko apostu garbia. Zuka da araua, eta hika salbuespena (egoera zehatz eta partikularrei lotua). Beraz, hitanoa zabaldu eta "normalizatu" nahi izatea, zuka eta hika maila berean jarri nahi izatea, errore bat da. Hitanoa ez da inolako aberastasun, edo jatortasunaren ispilu, edo antzerakorik. Nire bizitzako egoera gehienetan alperrikakoa da. Eta kitto. (erabili.com, 2003-10-24)

<sup>44</sup> Oso leku gutxitan mintzatzen da hika; toka, hobeki esateko, noketa herri gehienetan ia-ia galduta dagoelako. Lagun nafar eta giputz batzuei esker hika egiten ikasita, herriz herri ibili nintzen garai hartan, duela berrogei urte, eta mutilen artean, baita nesken artean ere, bizirik zegoen hitanoa herrietan, ahul baina bizirik. Aurten berriro eskualde berean izan naiz eta oraingo egoera larria egiaztatu dut: hika askoz gutxiago egiten dela, eta batez ere, nesken artean ez dela herri askotan erabiltzen, atzerakada izugarria jasan duela.

Gure gazteen ikasketetan gaingiroki ikasten da, sakondu gabe; ikasi gabe esango nuke. Ikasliburuek hitanoaren etorkizuna erakusten digute: hika irakasten duen ikasliburu batek hamar orrialde bakarrik eskaintzen dizkio, horietatik zortzi orrialde taulak izanik. Hutsune hauetaz gain, orain arte ez zegoen merkatuan hika egiten ikasteko metodori. (...)

Baina bakar-ahaleginak ez dira aski; Hezkuntza Sailari hitanoaren aldeko bultzada indartsua egiteko exijitu behar diogu, Hezkuntzaren esku baitago hitanoaren biziraupena. Helburua, badioenez, ikasle guztiek beren ikasketak bukatzean euskaraz jakitea denez gero, aditz osoa, beraz, hika egiten ere jakin beharko lukete. Gero, eguneroko solasetan ez ezik, hitanoa telebistako eta irratiko saioetan eta idazleen liburuetan ere beharko dute, gizarte osoa hikaren alde. (argia.com, 2008-09-12)

<sup>45</sup> Hizkuntzaren (orohar) eta hitanoaren (bereziki) erronkak instituzioen (orohar) eta hezkuntza sailaren (bereziki) esku uzteak ez dakar gauza onik. Ni neu gehiago ahaleginduko nintzateke, elkarrekeaz, euskaltegietan, Interneteko sare sozialetan eta... berbalagunak, mintzalagunak, metodo partehartzaileak, irati eta telebista espazioak, hiTube, txistek, sms esaldi osatuak egiten.... Internet izan daiteke aukera on bat, eta erabiltzen ez dugulakoan nago. (argia.com, 2008-09-12)

## HITANOA GAUR EGUN

**KIKE AMONARRIZ:** Ezin dezakegu, gaur egun, hitanoaren erabilera proposatu XIX. mendeko giza harremanen ereduetan oinarrituta. Alegia, XIX. mende amaieran ia zegoen bikote harreman posible bakarra senar-emazteena zen. Jendeak bazekien memento batean ezkondu egin behar zuela elkarrekin bizi ahal izateko. Gaur egun bikote harremana oso-oso anitza da. Lehen mugak askoz ere garbiagoak ziren. Gauza bera gertatzen da seme-alaba eta gurasoen arteko harremanekin, garai batean inor ez zen ausartzen aitari edo amari hika hitz egiten, zaplazteko bat zetorkiolako berehala. Gaur egun harreman horiek ere aldatu dira. Hitanoak badu hor lekua? Ba, izan dezake.

**ASIER LARRINAGA:** Nik ezetz esango nuke.

**K. AMONARRIZ:** Harremanen arabera, izan dezake. Adibidez, telebistan, egoera baldin bada, Bronxeko auzoan, semea laban batekin sartzen dela etxeko sukaldara eta ama mehatxatzen duela dirua eman diezaion, erdaraz vieja, dame la guita esan daiteke. Nik uste horrek euskaraz hika beharko lukeela izan. Guztiz errespeturik gabeko

**KOLDO ZUAZO:** Euskal Herrian oraindik ez gaude seme-alabak gurasoekin hitanoa erabiltzera ohituta, agian hitanoa bera baino egokiagoak dira hainbat hitz: "atsoa emadazu". Edozein modutan, hitanoa dela eta ez dela, bitarteko batzuk garatu behar ditugu era horretako elkarriketak egin ahal izateko telebistan-eta.

**K. AMONARRIZ:** Hirietan eta herri ertain gehienetan ez da hitanorik erabiltzen, galdutzat eman daiteke. Lehen oso garbi zegoen kaleko hizkera hori non egiten zen eta nola egiten zen: herri euskaldunetan eta euskalkian. Azken urteotan, euskara hiritartu egin dugu, eta gainera, erabilera soziala erabat erdara hutsez garatzen zen egoera batzuetatik abiatuta hiritartu dugu.

Josune Zabalak ikuspegi interesgarria agertu zuen aldizkari berean, zazpi urte geroago, Larrun gehigarrian "Gazteak eta euskara" gaia jorratzerakoan, jarrera kezkarriak sumatzen baititu inguruan<sup>46</sup>.

<sup>46</sup> Dena dela, zalaparta kaotiko hori bakarrik ez zait deigarria gertatu. Hizkuntzen gaineko jarrerak esnarazi naute hasiera-hasieratik, eta nagusienak aipatzearen, haien ahotsak idatzira ekartzen ahaleginduko naiz:

- Hobe duk erdaraz egitea, motel!: ingurune oso euskaldunetako gazte gutxi batzuen jarrera zikoitza. Euskararen ezina duenak bidezidorra hautatzen du taldekide izateko galtzada bihurrian: gaztelaniara jo edo koadrila aldatzen du.

- "Hi, aitze al dek?": beste ubeldu batzuk, berriz, bestaldean. Barregarri gertatzen zaio baten bati zenbaiten herri hizketa, eta halaxe jardun ohi da imintzio, hots eta doinuak maisuki antzeztuz.

## 3.2. Herrietan azterketa bereziak

Xabier Alberdi adituak ikusten du herri mailako ikerketa gehiagoren premia<sup>47</sup>, eta egia esan, azken urteotan adibide bat baino gehiago aurki dezakegu. Zumaian eta Getarian, esate baterako, gaiari buruz berariazko azterketak egin dira. Beste batzuetan, berriz, herrietako hizkerak aztertzerakoan aparteko puntua eskaini zaio tratamenduen gaiari; horren adibide ditugu Zaldibia<sup>48</sup> (akatsez ohartzeko irudi dotore eta guzti) eta Ermua.

AHOTSAK.COM egitasmoan ere landu da gaia, eta galderak egiteko orduan oso kontuan hartu dute tratamenduen gaia. Ondorioz, hainbat herritan nola egiten duten ikusi eta entzun dezakegu: Eskoriatza, Bergara, Beasain...

Eibar eta Oletan hiztun bana hartu eta aditz-formetan eta erabilera-ohituretan dauden aldeak erakusten ditu beste lan interesgarri batek (Lopez de Arana, 2002).

<sup>47</sup> (...) herri mailako bilakaera-joeren berri ematen diguten "mikroikerketa" soziolinguistikoak behar dira. Hots, hitanoaren bizitzari buruzko ikerketa xeheak behar ditugu lagunarteko tratamendua orokorki jasaten ari den ahultzearen lekuan lekuko ezaugarriak ezagutzeko eta beheranzko bilakaera hori ahal den neurrian geldiarazteko. (Azkue, 2000)

<sup>48</sup> "Adin-tarte guztietako hiltzunei egin diegu inkesta hori. Eta emaitzetan ikusi dugu 50 urtetik gorako hiltzuna direla hitanoaren erabilera egokien egiten dutenak. Gazteagoetan badira hitanoa modu naturalean eta egoki erabiltzen dutenak, baina forma desegokiak erabiltzen dituztenak gehiago dira", adierazi dute ikerlariak.

Jaso dituzten erantzunengatik, animaliei ia gehienetan toka egiten zaie Zaldibian. Baina hori baino harrigarriagoa da beste hau: emakumezko gehienek bere buruarekin ari direnean adizkera maskulinoa erabiltzen omen dutela!

Bestalde, inkestatu dituztenen artean, koadrilako lagun guztien aurrean hitanoa erabiltzen dutela baieztatu omen diete gehienek. 35 urte bitarteko mutilak izan omen dira batez ere hori baieztatu dutenak; lau neskek esan omen diete zuka egiten dutela koadrilan guztiei batera hitz egin behar dietenean. 35 urtetik aurrerakoak, berriz, emakumezko edo gizonezko izan berdin erabiltzen omen dute hitanoa hizketa lagun bati baino gehiagori batera hitz egiterakoan.

(Argia, 1.903. zk., 2003-06-15)

Otxandion ere sumatu dute egoera larria dela, eta azterketa egiteko orduan aurreikusi dute hori jasotzea<sup>49</sup>.

Bukatzeko, azpimarratzekoa da Arratian egin dutena, ikastaro baten ondoren, eskualdeko formak jaso eta normalizatzeko proposamena egin zuelako Gotzon Aurrekoetxeak<sup>50</sup> (Aurrekoetxea, 2003).

---

<sup>49</sup> Otxandioko euskara jasotzeko lana bultzatuko dau Udalak, Eusko Ikaskuntzagaz sinatutako hitzarmenaren barruan. Bertako berbaera zaindu eta ezagutzera emoteko kezka “aspaldikoa” dela dino Aritz Otxandiano alkateak, “hitanoa, adibidez, galtzeko arriskuan dago-eta”. **(Anboto aldizkaria, 325. zk., 2009-04-03)**

<sup>50</sup> Ikastarorako aurkeztu zituzten gaien artean “Arratiako hitanoa” izan behar zuen batek. Euren argumentazioa garbi-garbia zen: euskara batuan hezitako gazteak zirenez ez zekitela hitanoan berba egiten eta behar beharrezko zutela euren arteko komunikaziorako. Euren gurasoek eta oro har 40 urtez goragokoek egiten zuten berbakera (alokutiboaren erabilera) ez zekitela konturatzen ziren eta euren buruei itaundu zer arraio egiten zuten, bizimodu guztia Arratian igaro eta bertako hizkera arrotz egiten bazitzairen!

Berez, badirudi hizketa informalak edo lagunartekoak ez duela normatibizatu beharrik. Lagunarteko komunikazioa errazteko bitarteko guztiak dira baliagarri eta ondorioz unean uneko, pragmatikak gidaturik, ekoizten dela. Baina hori guztia hizkuntza normalizatu eta orekatu baterako baliagarri izan badaiteke ere, euskararen kasuan uste dugu ez dela aintzat hartzekoa. Zeren gure hizkuntzak bizi duen egoeran behar beharrezkotzat jotzen baitut egoera guztietarako euskara moldea sortu edo egokitu behar ditugula.

Kasu honetan herri-berbata aldaeraren lagunarteko erregistroko aditzaren normalizazioa bultzatzen dugu Arratiarako hitanoko alokutiboaren adizkiak argitaratuz.

Aldaera estandarraren eragin indartsu eta bortitzak euskalkiak eta hizkerak guztiz desitxuratu aurretik hauen alderako harresi eraginkorrenak nola sortu da gakoa edo giltza arazo honetan. Eta hauetako bat eremu txikiko aldaeren nola edo halako normatibizazioa dela deritzot. Izan dadin lurralde-berbata, zein azpilurralde-berbata, baina tokian tokiko hizkeren egituren zaintze-lana ezin-utzikoa da.

Lan honetan zehar erregistro informal edo lagunartekoan erabiltzeko den Arratiako aditz alokutiboaren hitanozko formak bateratu dira. Geroak esango lan honek fruiturik emango duen eta fruitu horiek inoiz umotuko diren.





Irudigilea: **Antton Olariaga** (*Zaldibiako euskara*, Etxabe eta Garmendia, 2003)



### **3.3. HITANOA INGURUKO HERRIETAN**

#### **DEBA**

GAZTEAK ETA EUSKARA izeneko ikerketa bultzatu zuen Debako Udalak, eta 1997an argitaratu zituen emaitzak (Goikoetxea eta Zinkunegi, 1997). eztabaida-talde batzuk antolatu zituzten gazteekin, euskara gaitasuna, bizilekua eta sexuaren arabera. Argota aztertu eta gero, hitanoari ere heltzen diote egileek, eta ondorioa kezkagarria da: “Debako gazte askok ez dute hitanoa erabiltzen, ez baitakite. halere jarrera positiboa erakusten dute”.

Itziarren egoera zertxobait hobea da: “25 urtetik gorakoek denek darabilte hitanoa, bai neskak neskekin, bai mutilak mutilekin, bai neskak mutilekin. Gazteagoak diren mutilek beraien artean bai, baina neskekin ez dute hikako eran egiten. Neska gazteenak, berriz, zuka dihardute beraien artean”.

#### **GETARIA**

Zumaian bezalaxe, Getarian ere hitanoa aztertzeko beka deialdia egin zuten, eta 1999an argitaratu zen emaitzak erakusten zituen lana (Saiz eta Serrano, 1999). Ondorioetako batek dioenez, “Getariako herrian hika hitz egiteko tradizioa bizirik dirau edozein txokotan”. Dena ez da hain pozgarria, ordea: “helduek askoz ere hobeto dakite norekin hitz egin hika, izan ere hauengan pisu handiagoa du usadioak. Gazteek, aldiz, ez dute hain garbi”. Gaztetxoek erabilerari dagokionez, hara ondorio batzuk:

- Argi ikusten da, neskek neskekin zuka egiten duten modu berean, mutilek mutilekin hika egiten dutela.
- Aldiz, mutilek neskei zuzentzerakoan gehienbat zuka darabilte.
- Neskek mutilei zuzentzeko garaian zuka eta hika darabilte; alegia, ez da erabilera bat nagusitzen.
- Familiaren esparruan, senide nagusiek gaztetxoei hitz egiterakoan nagusitzen den erabilera zuka da. Nolanahi ere, hikaren erabilera ageri da.
- Askorentzat eskolako eta lagunarteko kontua besterik ez da hitanoa.

#### **ZARAUTZ**

Badihardugu elkartekoek azterketa egin zuten 2006 eta 2007an, baina adineko jendeari egindako elkarrizketak izan ziren oinarri, ez hainbeste gazteen erabilera. Zarautz hizketan liburuan jasotzen da honakoa: “(...) baina zenbait kasutan bi lagun batera ere elkarrizketatu ditugu, tertulia modukoak antolatu. Tertulia horiek lagunarteko hizkuntza eta hitanoa jasotzen laguntzen dute. (...) Gipuzkoako beste hainbat tokitan bezala, Zarautzen ere hitanoko adizki bereziak agertzen dira: natxiok/natxiak/natxatorrek/natxabillek”.

## ORIO

Aparteko azterketarik ez da egin, baina nahiko adierazgarria da 2007an gazteentzat ikastaro berezi bat antolatu izana, hitanoaren jardun egokia bultzatzea xede hartuta. Argia aldizkarian erreportaje berezia agertu zen horri buruz (2.091 zk., 2007-06-03koa). Iñaki Iturain izan zen irakasle, eta interesgarriak dira oso hark esandakoak:

- “Gizonezkoen artean, zazpi urtetik-edo hasita, ia denek erabiltzen dute, emakumeek berriz gutxi, galtzen ari da. Emakume heldu gehienek badakite, baina gutxi erabiltzen dute, gazteen artean ere badira batzuk”.
- Hitanoa erabiltzen bada ere, zenbait alorretan ez da erabilera zuzena egiten. Hala, mutil gazteak neskei hitz egiterakoan Toka aritzen dira, mutilen arteko hika mota, Noka erabili beharrean, neskei zuzenduriko hika mota: “Noka asko jaitsi da, ia galtzear dago”.
- “Hitanoaren hiper erabilera dago; hau da, hika menpeko esaldietan erabiltzen dute eta hori ezin da; aditza, esaldiaren barruan, nagusia denean soilik erabil daiteke hika. Esaterako, joaten gaitukenean, etorri naukelako, ikusi diagun pelikulan... eta horrelakoak maiz entzuten dira. Gazte gehienek artean hika bizi-bizi dabil baina modu horretan erabiltzen dute. Hitanoak bere mugak ditu bere morfologian, bere baitan, ezin da erabili nonahi, noiznahi, nolanahi eta normahirekin.”
- “Gazteen artean erabilera okerra nagusitu denean, horri buelta ematea zaila da eta ez dakit lortuko den ere. Gainera, susmoa dut gaizki hitz egite hori ez ote den gazteek beren buruari ezarritako marka bat, belaunaldiari ezaugarria ematen diona”.
- “Hikako jarduna euskaltegietan eta ikastoletan ez da batere landu, agian, irakasleek ez dutelako garbi zer eta nola irakatsi behar den. Bestetik, ahozkoitasuna bera ere bazterturik egon da; hitz egin zuena irakaslea izan da beti, eta haurrei ia ez zaie hitz egiteko aukerarik eman. Hikako formak aberastasun bat ematen dio hizkuntzari eta pozgarria litzateke susmatzea eskoletan sumatu dutela horren beharra”.

## ZESTOA

Danbolin aldizkariak 2008ko apirilean argitaratutako erreportajeak ematen digu gazteen erabileraren berri. Estitxu Elduaienek landutakoa da, 83. zk.an. Hitanoarekin lotuta, hauxe aipagarriena:

- Zestoarren gazte hizkeran berezitasun bat baldin badago, hori hitanoarena da. Euskal Herriko hainbat txokotan hika aritzea galtzen ari dela badiote ere. Zestoan bizi-bizirik dago. Adin guztietako gazteek erabiltzen dute hitanoa beren artean, baina mutilen artekoa da gehien erabiltzen dena. Neska eta mutilen arteko elkarrizketetan gutxi erabiltzen da, eta, gutxiena, nesken artean. Hala diote zestoarrek.

Lau gazteri galdetzen diete era lagun artean hitanoa erabiltzen duten. Neskek ezetz diote, eta mutilek baietz:

- 1. neska. Asko entzuten da Zestoan koadriletan hikako hizkera, baina gure kasuan, ez; gurean dena zuka egiten dugu. (...) Ez dut uste neska eta mutilen arteko kontua denik. zestoan badira hika egiten duten neska koadrilak.
- 2. neska. Guk zuka egiten dugu, gehienez. (...) Hika egiten didatenei hika erantzuten diet, eta pertsona jakin batzuekin hala egiten dut. (...) Badakigu nesken hitanoa galtzen ari dela, era erabili egin beharko genukeela ere esaten dugu sarri, baina gero ez dugu erabiltzen.

- 1. mutila. Hika egiten dugu gure artean; ondo edo gaizki, baina hika. Mutilen artean beti, baina neskekin desberdina da. Batzuekin hika egiten dugu, baina normalean zuka egiten da.
- 2. mutila. Hika egiten dugu, bai mutilekin, bai neskekin. Nik, behintzat, denekin ahal egiteko ohitura dut, eta neskekin ere berdin-berdin erabiltzen dut hitanoa.

## AZPEITIA

Elkarriketen eta blog batzuen bidez jasoko dugu Azpeitiko berri. Hara zer dioen Xabier Euzkitzek Uztarrria aldizkariaren 78. zenbakian egindako elkarriketan (2006an):

- **Azpeitian bertan mutil askok neskei toka hitz egiten diete...** Galtzen ari da hori, erabat. Errezilen bertan ere aditzen dut neuk halakorik, anaiak arrebari, "hik, zer nahi dek?", eta ematen dit atzerakada bat... Nahiago zuka aditzea, astakeria hori aditzea baino. Gaizki dagoen kontzientzia ere galtzen ari da jendea.

Uztarrrian bertan, Azpeitiko euskarari buruzko erreportajea 2008ko otsailean (%100 natual). Gazteen iritzietako batzuk:

- "Azpeitian euskaraz hitz egitea pozgarria dela iruditzen zaigu". Dena dela, hobetu beharreko zenbait alderdi ere aztertu dituzte ikasleek. Nagore Arzallusen ustez, "hika gehiago egin beharko litzateke. Mutilek euren artean hika egiteko ohitura badute, eta neskek gehiago hitz egin beharko genuke hala".

ARGIA astekariaren 1.939 zenbakian (2004-04-11), HIROMI YOSHIDAK esandakoa:

- Euskararen erabilera nolakoa den aztertu nahi dut, zeintzuk erabiltzen duten eta erabiltzaile horien ezaugarriak zein diren; adina, gurasoak, ama-hizkuntza, eta abar. Hikari buruz ez dut ezer egin, baina interes handia dut gai horrekiko. Orain gutxiago erabiltzen dela uste dut, baina Azpeitian esaterako, dezente entzun daiteke. Errenteriako lagun baten aitak mutilekin hika egiten du, baina neskekin ez. Neskentzako formak galdetzen badizkiot ez dakizkiela erantzuten dit. Galera gertatu da arlo horretan eta soziolinguistikoki azterketa bat egiteko interesgarria da, noiz eta zeinekin erabiltzen den...

M.A. Elustondo elkarriketatzaleari gertatua, Pedro Migel Etxenikerekin zegoela. (Argia, 2.002. zk., 2005-07-24)

- **(Horretan, sakelakoak jo dit. Argazkilariaren zain nago eta hartu egin dut. Beste bat da. Esan ere diot hariaz bestaldekoari: "Barkatu, Kike, Etxenikerekin natxeok. Gerotxo hots egingo diat". Etxenikek, "natxeok" entzun eta barre egin du)**
- Natxeok... oso polita.
- **Azpeitian ez al zenuen hika ikasi?**
- Ez. Gustura ikasiko nuen. Tristea izango zen hikako formak galtzea...

Joxean Sagastizabali elkarriketa Argian, Jolasean liburuari buruzkoa (977. zk., 1983-06-05)

- Historia hau da, nire lagun gehienak urrestildarrak direla, Azpeiti ondokoak, jende hori ezagutu eta bertako euskara ikasten hasi nintzen; horiek beti hika egiten zidaten eta orduan ni hasi nintzen erlato bat idazten, elkarriketa hutsez egindako erlato bat. Personajeak Urrestillako hika egin zezaten, nik praktikatzeko.

Bukatzeko, Garbiñe Bereziartuaren *Kontuk eta komerik* blogean, gaiari buruzko sarrera interesgarria<sup>51</sup>. Hauek esaldi interesgarri batzuk:

- (...) hitanoa egiten dudanetakoa eta gustatzen zaidanetakoa izan arren, ez dut lagun-taldeko guzti-guztiekin hala egiten, ahizparekin zuka egiten dut eta gurasoek ez didate sekula esaldi bat hitanoz egin. Bestalde, esku bateko hatzak ez ditut nahikoa noka behar bezala egiten ez didaten mutilak zenbatzeko.
- (...) neu ere nerabegaroko txoroalditik irten arte ez nintzen hitanoaren edo hobeto esanda noka egitearen aberastasunaz jabetu. Garai hartan neskon artean toka egiten genuen, berdintasunaren izenean. Urte batzuk pasa ondoren ohartu ginen gure jokabidearen zentzugabetasunaz. Baina ohiturak nola aldatu? Urteetako lana izan zen ondo hitz egiten hastea.

Erantzun interesgarri batzuk:

- Adibidez, mutilak neskei zuzentzen direnean mutilei bezala hitz egiten diete. Nik ez dakit horrela hitz egiten noiz hasi ziren, zeren gure generazioak behintzat ondo bereizten dugu neskari edo mutilari nola hitz egin. Akats hau zuzentzeko leku aproposenak ikastetxeak izango dira, ez?. Nik usten dut merezi duela zerbaitea.
- Eztakit; dakitena da guk geixki ite gendula neskon artien, gaur egun oindiken elkarren artien geixki iteben neskak badaudela (gaztiekin bereziki) eta neskoi geixki iteiguten mutilek asko diela.  
Zuzentzeko leku aproposenak ikastetxiek? Eztakipa ze esan... Ontxe emanber gizarteko arazo danak ikastetxiek konponduber ditula... Baño iruitze zat holako kontuek imitaziyo geyo ikasteiela eta batipat gizartekideoi daokigula hitanue erabiltzie eta ondo erabiltzie, guk erabiltze badeu ondorenguek'e ibilikobe... Zer ikusi, hura ikasi... Helduek ite baebe, umiek ingoebe... Eta ikastetxetatik lagundu, noski...
- Ointxe etorri naun "ligatzetik" ta esan berra zaukenat neskai "Hika" hitzeiteko asunto hori geure kintan geldiuko hunala, zeatik pare bat neskakin eon naun taaaa... ze esangoñat ba! eo haiyek oso tsotziyek hitunan eo ni oso karrozie, ematen ziñenan ni euskeraz ta haiyek ingelesez eo aldrebeska, ta egiye esan neure irudipena den hikako hizkera galtzen ai dala(urte eremu bat kenduta) neuk txikitatik hika ein izan diñat etxien bai arrebakin eta berdin añaiyekin
- Nik pena hartzen diñat hoge urteko gazteak alkarrekin zuka egiten ikusita. Guri lotsa ematen zigunan garai hartan gure modukuei zuka egitea. Ia gauzak aldatzen diren eta gaztiekin bildurrik gabe hika egiten dioten alkarri. Mutilen batek berriz hika mutilen moduen egiten badin, hik egion neska balitz bezela. Ikusiko den, laister aldatuko din jarrera
- Ume bati euskera eskolak ematen ibiltze naun eta hika kontu hori ontxe puri-puriyen zabilkiñau. Ezten pentsako baño kostau iten euskeraz eskolan bakarrik hitz eiteun ume bati hika zer dan ulertarazteia. Honen aurrien bere erantzune: "hola nere eskolako mutilek hitz eitebe!!". Bazion zerri heldu eta nun lana in.

<sup>51</sup> Osorik ikusteko, haxe helbidea: <http://www.uztarria.com/blogak/garbi/1203080941>

### **3.4. Hitanoa hedabideetan**

Bat baino gehiago dira Euskal Telebistak hitanoa bultzatzeko egindako lana txalotzen dutenak. Xabier Alberdi irakaslea da horietako bat (Alberdi, 2003a).

- Komunikabideei gagozkiela, ETBrena ahalegin txalogarria izan daiteke, gainerako komunikabideetan jarraitzeko modukoa. Hala ere, telebistak, iratiak eta prentsa idatziak, zeinek bere mugak ditu hitanoa hedatzeko ahaleginean: kontuan har bedi euren diskurtsoa neurri handi batean eztabadaka (erregistro neutroan) gauzatu beharra daukatela, inongo solaskideri zuzentzen ez zaizkion heinean bederen.

Iñaki Iturain oriotarrak ere baloratzen du telebistak egindakoa (Argia, 2.091. zk.)

- Erabileraren maila jaisten ari bada ere, zenbait hedabidetan hika sartu izanak hizketa modu horri eusteko bermea ematen diola azaldu du Iturainek: "Garai batean hikak telebistan ateak itxiak zituen eta orain, Euskal Telebistan, esaterako, izan du sarbidea: Andoni Aizpuruk, Xabier Eguzkitzek eta Joxean Tolosak, edota Goenkaleko zenbait pertsonaiak erabiltzen dute, eta haien eredia ona da. Hedabideetan erabiltzeak hikari normaltasun bat ematen dio, eta, euskara bizirik dagoen herrietan, hikari eutsiko zaio. Gainera, badira hikarekin kezkatuta ikastaroak antolatzen hasi diren udalak ere".

Pilota partidak ematerakoan Xabier Euzkitzek eta Tolosak erabiltzen duten irizpideak zalantza sortu zuen ITZUL zerrendan, eta hara zer erantzun segida eragin zuen:

- Zalantza bat dut hitanoaren erabilera-eremuari dagokiona. Honakoa: hitanoa bigarren pertsona singularrarekiko hizkera da eta solaskidea bakarra denean ez da dudarik. Baina solaskideak bat baino gehiago izanik, nire ustez, ez litzateke hitanoa erabili behar, baina uste dut erabili egiten dela.
- Niri iruditzen zait erabili daitekeela solaskideak bat baino gehiago direnean ere. Zein hizketaldi modu denaren arabera dagoela uste dut. Nire pareko solaskideak ni entzutera etorri badira (hitzaldi batean, klasean, telebista aurkezleak ...) hor ez dut zalantzarik ezin dela hitanoa erabili. Besteak beste, entzule denei une berean ari natzaielako. Besterik da, ordea, lagunarteko hizketaldi batean, egoera ez-formal batean, nolabait adieraztearren, gertatzen dena. (...) Une bakoitzeko hizketa jardunean, beti solaskideetako norbaitek besteek baino garrantzi handiagoa hartuko du (edo berak galdetu duelako, edo horrek aurretik esandako zerbaiti zurea eranstean ari zarela, ...). Eta hor beraz, berdin dio entzuleetan nor egon, hitanoa, garrantzi gehien duen pertsona horren arabera erabiliko baitugu. (...) Beraz, niri oso egoki iruditzen zait Euzkitze eta Tolosa hitanoz ari direnean, edo Andoni Aizpuru bere lankideekin aritzen denean. (...). Inazio Usarralde
- Guztiz bat nator Inaxiok eman duen azalpenarekin. Ohar bat besterik ez. Nire ustez, ondo dago telebistako programa batean aurkezleak eta lankide batek hika egitea, betiere euren arteko kontuetan badabiltza. Sorginen Laratzean, esate baterako, Euzkitzek eta Artanok horrela egiten dute, batik bat elkarri ziria sartzeko edo adarra jotzeko. Beste batzuetan aurkezlearen eta lankide baten arteko hizketa ez da benetan buruz buruko komunikazioa, bide batez ikusleari hainbeste gauza jakinarazten zaizkio eta.

Kasu horretan, Inaxiok azaldu duen bezala, ondo dago hika egitea, baina telebistan nik komunikazio egoera ez oso formaletara mugatuko nuke. Esan nahi dut, adibidez, albistegi batean guztiz gaitzesgarri jotzen dudala aurkezleak eguraldiaren berri dakarrenari pasoa ematen dionean bien artean hika hastea:

-Arratsalde on, XX. Gaur hotz handia egiten dik. Zer esan behar duk biharkoari buruz?  
-Arratsalde on, YY. Badaezpada, ez ezak txanoa etxean utz. // Bai, jaun-andreak, bihar ere hotz handia...

Albistegi batean guztiz lekuz kanpo dago horrelako elkarrizketa bat, nire ustez, hizkera formala nahitaezkoa da eta.

Asier Larrinaga

Ritxi Lizartzak ere telesailetan erabiltzearen aldeko iritzia du (Irutxuloko hitza, 2009-04-03). Goenkale telesailean euskara arduradun aritutakoa da Ritxi.

- Euskaraz zuzen egiten bada bai Euskal Telebista eta bai irratiak oso aproposak direla ahozko euskara txukun baten eredia planteatzeko. Goenkale bezalako telesail batek balio izan du nolabait duintasuna emateko hitanoaren erabilerari. Jendeak ikus dezan normal-normal hika egitea badagoela lagun artean edo gurasoek seme-alabekin. Betiere harreman sozio-afektibo horiek errespetatua eta jakinda nork egin dezakeen norekin.

Xabier Gereñok, aldiz, honakoa dio ekonomiaren printzipioaren aitzakiaz hizkuntzaren bilakabide berezkoa bizkortu eta areagotu nahi lukeen jarreraren erakusgarri (El Mundo del Pais Vasco, 1991-09-24):

- Hitanoa baztertzea proposatzen dut. (...) Ez dut esan nahi izan euskaldun berrietako hizkuntza kolokialean hitanoa baztertu behar dugunik. Ez, aipaturiko esaldia idatzi dudanean ETB nuen gogoan bereziki. Zergatik erabili behar da hitanoa hainbeste filmetan? Euskal Herriko leku askotan hitanoa ez da erabiltzen, ikastola gehienetan ere hori bera gertatzen da, eta euskaldun berriek, jeneralean ez dute hori ikasten. Bigarren pertsonarako konjugazio bat baino gehiago erabiltzea luxu bat da. Lehen hiru forma ezberdin ziren, gero bira jaitsi genituen eta orain bakarrentz goaz. Hori ez da euskararekin bakarrik gertatzen. Ingeles hizkuntzan "zuka" nagusitu da, gaztelaniaz "zuka" desagertzeraz doa. Dirudenez euskarak ingelesaren bidea hartuko du.

Ume eta gazteei zuzendutako programetan ere egin zaio tokia: marrazki bizidunak (Lazkao Txiki, Dragoi bola...), Txirri, Mirri eta Txiribiton, Wazemank, Noaua!, etab. Betizu eta antzekoetan ere, aurkezlearen gaitasunaren arabera, erabili izan da. Hara zer dioen Iban Garatek Administrazioa Euskaraz aldizkarian (42. zk., 2003ko urria):

- **Bada zure jardunean gaur egun euskaldunon artean oso arrunta ez den zerbait: gaztetxoei hitanoz egiten diezu...**
- Apustu pertsonala da. Ez da ohikoa, baina nik nire lagunekin hala egiten dut. Urola Kostako herri batetik irteten bazara, oso gutxi erabiltzen da hitanoa gure adinekoen artean, hizkera arrotza da. ETBn ere oso saio gutxitan egiten da, eta egia esan, penagarria da, euskarak duen altxorrik handienetakoa baita. Horrez gainera, hamahiru urteko bat ez da umea; zuzeneko saio batera deitzen du, urduri dago, eta horregatik, hitanoak konplizitate hori sortzen laguntzen du.

Hasier Etxeberria ere hitanoa erabiltzearen aldeko agertzen da Argia aldizkarian, aspaldiko elkarrizketa batean (1.293. zk., 1990-05-27):

- **Ez dakit bitxikeria deitu edo, baina telebistan ez da ohizkoa inor 'hika' aritzea. Zuk baduzu ohitura hori...**
- Askotan, lagunak ari zara elkarrizketatzen! eta zergatik ez hitanoa mantendu, jakinik errekuiperatu beharreko hizkera dela. Ez dut esango beti eta programa guztietan erabili behar denik, baina kasuan kasuko azterketa bat eginez erabaki beharreko kontua da. Hitanoa badakigu zer den, badu bere majia edo zerbait.

Nolanahi ere, zenbait hedabidek aurrez zehaztuta izaten dute elkarrizketak nola emango diren. Ez dakigu orain Berrian zorrotz errespetatuko den irizpide hau, baina hitanoaren erabilera mugatzen du Euskaldunon Egunkariaren estilo liburuak (1992):

- Hizketatuaren eta kazetariaren arteko adiskidetasun edo konfidantza mailak ez dauka interes informatiborik. Beraz, elkarrizketak zuka idatziko dira, edonola eginda ere. Hizketatuak hika jarduten duenean ere, zuka transkribituko da.

Irizpide malguagoa proposatzen du Txema Ramirez de la Piscina (1998):

- Hika ala zuka? Nola tratatu behar dugu elkarrizketatua? Horretan ere ez dago legerik. Batzuen aburuz, zutanoa da erabili beharreko formula, hartzaileekiko errespetua dela-eta (irakurlea edo entzulea tokiz kanpo senti baitaiteke). Baina, hitanoa gero eta gehiago ari da, bai prentsan, baita ikus-entzunezko elkarrizketetan ere. Gure ustez, hitanoak freskotasun-puntu bat eman diezaioke elkarrizketari. Hitanoa erabiltzea erabakitzen badugu, zenbait kontu asko zaindu behar dira orduan. Batetik, hitanoaren legeak. Bestetik, kontuan izan behar dugu elkarrizketan sortzen den giroa: pertsona bien artean sortzen den hurbiltasun hori ez dadila hartzaileentzat arrotzegia gerta, alegia.

Argiako elkarrizketan baten hasieran horrela azaltzen du egileak lagunarteko tratamendu hautatu izana (Argia, 984. zk, 1983-09-11)

- **Txillardegirekin Euskaraz Eta Abertzaletasunaz**  
Ez da zaila Jose Luis Alvarezekin hitz egitea. Irakurlea ere berehala ohartuko baita hikako hizkera erabiltzeko gure lotsagabekeria. Eta Txillardegiz ez dugu besterik esan nahi. Zertarako, dena da eta ezaguna!

Arantza Gutierrezek oso erabilera mugatua ikusten dio hitanoari irratsaio bat antolatzeko orduan (Gutierrez, 2005):

- Euskarazko irratigintzan, eta euskalkien erabilerari dagokionez, zentzuzkoa da *Euskadi Irratia* bezalako kate nazional batean euskara batua erabiltzea. Horrek ez du esan nahi, hala ere, euskalkiak baztertu behar direnik; baina, hori bai, une eta egoera egokietan. Adibidez, ez dugu batuaz egitera behartuko inoiz batua erabiltzen ez duen gonbidatu bat, eta, berriz, albistegietako esatariak batua erabiliko du, lagunaren artean erabiltzen duen euskalkiaren ordeaz. Era berean, ez zaio otuko hitanoz edo hika egitea oso irratsaio espezifikotik ez bada (dramatikotik, esaterako). Hau da, egoeraren arabera aukeratuko du esatariak zein hizkuntza-erregistro erabili, Euskaltzaindiak aholkatzen duen moduan. «Hizkuntza-erregistroa hautatzerakoan, kazetariak-eta erabakiko dute zein ataletan, non eta noiz erabili euskara landua (batua nahiz euskalkia) eta zeinetan, non eta noiz lagunartekoa».

Gidoigintzaren ikuspegitik, Asier Larrinaga ETBko euskara arduradunak ohar hau egin zuen Senez aldizkarian, 27. zenbakian (2004ko urria):

- Amaitzeko, euskarazko gidoien gainean ari garenez, ezin dut aipatu barik utzi beste alderdi garrantzitsu bat, programa-proiektuan zehaztu beharko litzatekeena: tratamenduak. Gidoi askotan nahaste handiak aurkitu ditugu, elkarrizketariaren esku utzi delako tratamenduak finkatzea. Hori aldeaz aurretik finkatu behar da, eta, ahal dela, pertsonaien mapa baten bidez. Grafiko eskematiko batean pertsonaia guztiak eta pertsonaien arteko harremanak irudikatuz gero, askoz errazagoa da hika ala zuka egin behar duten zehaztea, eta, gainera, modu kongruenteagoan zehatz daiteke. Behin zehaztuta, grafikoan bertan adieraz daiteke zein kasutan erabiliko den hitanoa, elkarrizketariak begien aurrean izan dezan idazten ari den bitartean.

Aldizkari berean Beatriz Zaballondo itzultzailearen oharra:

- Jende askok ez du berea hitanoa, ezta euskaldun zahar askok ere. Askok telebistaren bidez ezagutu dute, edo ikasi dute. Forma estandarra, nahi baduzue, bai, baina lehenago sekula entzun gabea zuten.

Bikoizketan ere askotan sortu izan dira zalantzak. Irakurtzeko modukoa da Iñaki Zubizarretak Senez aldizkariaren 34. zenbakian esandakoa, 2008ko otsailean, jardunaldi bateko hitzaldiaren ondorengo erantzunetan:

- Hitanoari dagokionez, gutxi sartzen da. Ni aldekoa naiz, baina kontuan hartu behar ditugu zazpi probintziak. Gure inguruan, Azpeitia aldean-eta, den-dena hitanoa da, eta oso aise onartzen da. Noiz edo noiz Asierrek esana dit askotan filmetan-eta hitanoz jartzen ditugula pertsonaia gaiztoak, eta ez dauka zerikusirik hitanoak horrekin. Amona batek bilobari, gaixo dagoela ere, hitanoz oso goxo esango dio, beti hitanoz hitz egin badio. Ez dauka zerikusirik. Orain: hor gertatzen dena da, marrazki bizieta protagonistak jartzen badiugu hitanoan, hitanoaren proportzioa %80 bat irtengo dela. Eta zazpi probintziei begira, arriskutsua da. Orduan, nire ustez, ez da baztertu behar; ahal dela erabili egin behar da, baina behar bezala, jakina. Horretan onenak, beti egin dutenak dira. Haiei adi egotea. Bestela, Donostia aldean eta, oso gauza kuriosoak entzuten dira hitanoan. Salto handiak egoten dira: hitanoan hasi, bestera saltatu... Baina hitanoan hasiz gero, hitanoa da diskurtso osoa.

Aldizkari horretan bertan, telebistako hizkerari buruzko azterlan baten berri ematen du Asier Larrinagak:

- Ikerketa hori SIADECORI agindu zitzaion 1991n. SIADECOK hamar talde-elkarrizketa antolatu zituen urte hartako martxoaren 14a eta apirilaren 23a bitartean. Taldeak Euskal Herri osoko hamar herritan antolatu ziren, kontuan hartuta euskalki garrantzitsuenak ordezkatzuta egotea, iritzi-emaileak 20-35 eta 35-60 adin-tarteetakoak izatea, eta hizkuntza-gaitasun guztietako pertsonak biltzea. (...)
- Ikerketaren ondorioak oso interesgarriak dira. Iritzi-emaileen ustez, bikoizketan erabiltzen zen euskara artifiziala zen, hotza, ulertzeko ez oso zaila, baina bizitasunik gabea eta sinesgaitza. Askoz ere nahiago zuten Euskal Telebistak berak sortutako programetan erabilitako hizkera. Dena dela, azterketan prestatutako bertsioak aukeratzen hasita, multzo bi bereizi ziren oso garbi. Lehen multzoan euskaldun zahar alfabetatuak eta euskaldun berri natibizatuak, eredu kolokiala hautatu baitzuten. Bigarren multzoan euskaldun zahar alfabetatu gabeak eta euskalduntzea burutu gabeko hiztunak, eredu estandarra aukeratu baitzuten. Aukerak aukera, batzuek eta besteek eragozpenak topatu zituzten eredu bietan. Estandarrari naturaltasuna falta zitzaion. Eredu kolokiala ez zen ulertzen erraza, eta erabilitako euskalkiaren hiltune bakarrik iruditzen zitzaion naturala. (...)
- Horren aurrean, SIADECOK bikoizketetan eredu estandarra erabiltzea proposatu zuen, baina ohar batzuk eginda. Lehenengoa, hiztegia erraztea, hitz jasoak eta gizartean hedadura txikia dutenak baztertuta. Egiturak erraztu beharra ere bazegoen, esaldi ez hain luzeak eginez eta subjuntiboa gutxiago erabiliz. Hitanoa testuinguru jakinetarako uztea gomendatu zuen, eta azkenik, adierazkortasuna eta doinuera lantzea. Itzulpenak zirela eta, aipamen berezia egin zuen, literaltasuna alde batera utzi eta egokitapenera jo zedin.

Aipatzekoa da, bestalde, publizitate eta komunikazio kontuetan zenbaitetan nola erabiltzen den hitanoa gazteengana hurbiltzeko. Hori bai, askotan ez dira hitanoaren legeak errespetatzen, eta izenburua gantxo bat besterik ez da, gainerakoa zuka egiten delako; ulertzekoa da, mezu orokorrak izaten direlako eta horrelakoetan bekatu handiagoa litzatekeelako, esaterako, toka bakarrik egitea.

- *Hi gazte, irakurri hau* (eta testu osoa erregistro neutroan). Iritzi-artikulu batean.
- *Hi gazte, 14-17 bitarteko gazte **bazara**...* Foru aldundiko gazte oporraldiak 2009.
- *Hi gazte! Ekintza desberdinetan parte hartu bahi **baduzu**...* Zizurkilgo gazte lokala.
- *Hi gazte.* Tolosaldeko gazte-aldikaria.
- *Hi gazte, Etor hadi gure sexualitate tailerrera...* Azkoitiko Artxamendi topalekua.



### 3.5. Hitanoa kulturalan

Xabier Alberdiren ustez, antzerkian eta antzekoetan ez da hainbeste hitano erabili, zoritxarrez (Alberdi, 2003a):

- Euskal Literaturaren tradizioan antzerkia gutxitxo landu da berriki arte; erregistro jasoak landu izan dira gehien. Hori dela eta, lagunarteko mintzamoldeari dagokion tratamenduak, hitanoak, ez du izan behar adinako ispilurik gure literatur tradizioan.

Auspoa saileko lan batzuetan adibide politak badaude, ordea, eta gaur egungo beste lan batzuetan ere bai, 6. atalean ikusiko dugunez.

Hara idazle batzuek, literatura sortzeko edo itzultzeko orduan tratamenduaren hautaketa nola justifikatu duten. Anton Kazabon (Deia, 2004-09-21):

- Egia esan, kezkatuta nago oiartzuarra naizen aldetik bertako hizkeraren etorkizunaz. Gipuzkerak eta batuak jan duelako bertakoa, eta hori errekupearatu nahian protagonistetako bat, Joana, Oiartzungo hitanoaz mintzatzen zen; baina oso lokala gelditzen zen, eta zenbait idazleren aholkuz amore eman behar izan nuen ahaleginean eta hitano estandarrean utzi behar izan nuen testua.

Joxe Austin Arrietak Senez aldizkariaren 23. zenbakian, 2001eko azaroa, Homo faber liburuaren itzulpenari buruz:

- Mutrikuko hitanoa erabili nuen mutikoen arteko solasetan, denetan arkaikoena, «diagok», «diatorrek», «diakiagu» eta halakoak darabiltzana oraindik ere, eta ez soilik nire familiaren jatorri herriarekiko leialtasun edo konplimendu gisa, baizik eta huraxe zelako nik egokien neritzona, higadura eta sakabanaketa fonetikoaren aurretiko egoeraren adierazle, hainbati «arkaikoa» irudituko zaion arren beharbada, eta azkenerako, denok dakigunez, Euskaltzaindiak bestelako eredu bat hobetsi eta arautu duen arren («zagok», «zatorrek», «zakiagu»).

Komikien munduari dagokionez, hara zer irakurri dugun IPURBELTZ aldizkariari buruz Hik Hasi aldizkarian, 74. zenbakian:

- Ipurbeltzek ere bere alea erantsi du euskalgintzan ere. Izan ere euskara arrunta garatzen lagundu du Ipurbeltzek, hikako hizkera pertsonaia batzuen ahotan jarritz...

Aspaldiko txiste-kasetei buruzko aipamena, bukatzeko (Argia, 1.126 zk., 1986-11-23):

- **Kike Amonarriz eta Joxe Ramon Galarragaren eskutik lehenengo aldiz txiste kasete bikoitza kalean. ARGIA egunerako ezkutuan eduki genuen sorpresa kalean dugu jadanik. Kike Amonarriz eta Amasako Joxe Ramon Galarragaren artean grabaturiko txiste kasete bikoitza, hain zuzen.**
- J.R.G. Gure helburu nagusia horrelako kasete bat grabatzerakoan jendeari barre eragitea da. Hala ere, dudarik ez, eskoletan eta gau-eskoletan erabili ahal izatea nahi genuke, helburu pedagogikoa deituko geniokena. Ikasleek ordea zenbait trabarekin aurkituko dira, hika moduan eta hizkera zuzenean grabaturik baitago.

### 3.6. Hitanoa irakaskuntzan

Oraingoan ere Xabier Alberdiren iritziak ondo laburbiltzen du esparru horretako egoera zein den (Alberdi, 2003a):

- Gaur egun, irakaskuntzak (eskolak, ikastolak, euskaltegiak, institutuak, unibertsitateak...) oro har ez du gehiegi laguntzen hitanoaren galerazko ibilbidearen aurka, sarri askotan hitanoaren bizitzarena baino beharrian larriagoak daude eta.

## IKASTETXEETAN

Euskalkiari behar baino toki txikiago egin zaio ikastetxeetan, eta hitanoarekin ere berdintsu izan dela ikusten du Juan Luis Goikoetxeak, Euskalkia eta Hezkuntza gaia jorratzerakoan (Goikoetxea 2001):

- Eskolan, dala hizkuntza erraztearen kausaz, dala murgiltze sistema nagusitzen dalako, dala berbeta formala guztiz gailentzen dalako, hikako alokutiboak *–etorri duk, etorri dun, etorri duxu*, behenafarrerazkoa edo *etorri düzü* zubererakoa nahiz berorika errespetuzkoa– baztertu egiten dira. Horri gehitzen badeutsagu ikasleak dakien hizkeratik ez abiatzea, itzelezko altxorra geldituko jaku eskolako atarian. Aitaturikoen artean: *jaramon egin, biagoa, bako, barik, makal, berton/bertan* eta beste hainbeste. Eta gure eretxian eskolak ezin jakin leike ikasleak baino gitxiago.

ARRUE egitasmoaren baitan, irakasleek euskalkia badakiten edo ez eta erabiltzen dituzten tratamenduak ere aztertu ziren 2008an. Ondorio nagusiak: irakasleen erdiak baino gehiagok (%54k) ez daki hika hitz egiten, eta oso gutxi dira erabiltzen dutenak seme-alabekin (%6), anai-arrebekin (%8), lagunartean (%15), ikasleekin (%4k) eta lankideekin (%8). Galdekizuna erantzun zuen populazioa: 1.184 irakasle, hasi Haur Hezkuntzatik eta batxilergora, %80 emakumeak eta %70 30 eta 50 urte bitartekoa.

Zenbaki horiek ikusita, zaila da hitanoa ikastetxeetan ondo lantzea, berariazko materialik egon ezean are eta zailago. Badira irakasle batzuk, hala ere, ikasleekin ahalegin bereziak egin izan dituztenak. Joxerra Garziak hitanoa bultzatzeko martingala polit baten berri ematen du<sup>52</sup> eta nola irakatsi beharko litzatekeen ere proposatzen du (Garzia, 2004a):

- Gaur egun ez dakit hitanorik irakasten den eskolan. Beharbada bai, baina paradigma hutsa balitz bezala irakasten bada, alfer-alferrik izango da, kalterako ez bada. Hitanoa, izan ere, jolasa baita oroz gainetik: solaskideei hurbiltasuna adierazteko jolasa. Eta gazteek behar-beharrezkoa dute hori, barruak eskatzen die eta. Hitanoa jolas gisara irakatsiko balitzaie, ez lukete *tioka* hitz egin beharrik izango premia hori asetzeko.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan lantzen da gaia testuliburuetan, eskura genituen liburu batzuk gainbegiratu ondoren. Esaterako, bi adibide hauek ikusi ditugu:

- **HIZKUNTZA ETA LITERATURA I** (Batxilergoa); GILTZA edebé argitaletxea. Alokutiboen berri ematen eta labur bada ere, xuka eta berorika aipatzen dira. Alokutiboak noiz erabili behar diren zehazten da (mendekoetan debekatuta dagoela)

### <sup>52</sup> HI, JOXE

Hitanoarena da beste bat, diotenez nekez berreskuratuko duguna. Niri, egia esan, pena ematen zidan Tolosa batean hamahiru urteko umeak elkarren artean zuka sumatzeak, eta, batxilergo lehen mailan euskara irakatsi nuen hartan, ikastaroan zehar hitanoz hitz egitera iristen zirenei azken nota hobetuko niela agindu nien. Eskaintza aintzat hartu zidatenak, dozena erdi bat edo, natural mintzo dira gaur egun hitanoz. Hizkuntza ohiturak ez dira, ordea, aldatzen samurrak, eta bitxia izan zen ikasle haiek hika hitz egiten nola hasi ziren.

Erabakia irmo harturik, propio biltzen ziren elkarren artean hika hitz egitera. Hitanoak, ordea, baserri giroa ekartzen zien nonbait gogora, eta kostatu egiten zitzairen serio hitz egitea. Hika jardunez gero, dena txantxa bihurtzen zen. Sentipen deseroso hori gainditzeko, oso martingala polita asmatu zuten; hika hasi orduka, denak “Joxe” bihurtzen ziren, nahiz tartean neskaren bat edo beste ere bazen.

–Hi, Joxe, pasadak borragoma.

eta ariketa batzuk proposatzen dira amaieran: aditz neutroak eta alokutiboak bereizteko, okerrak zuzentzeko eta zukakoa hikara bihurtzeko.

- **EUSKARA ETA LITERATURA (DBH4)**; Ibaizabal argitaletxea. Alokutiboak azaltzen dira, tratamenduak bereizi eta testuen bitartez lantzen dira ariketak, irudien laguntzarekin.

Hitanoa bizirik dagoen eremuetarako, ordea, berandu da kontu horiek azaltzeko, ordurako gaztetxoek kalean eta eskolan bertan eredu okerra jasoa dutelako eta akatsak oso barneratuak.

Zenbait ikastetxetan ari dira ekimen batzuetan hitanoa txertatzen. Amezketan, adibidez (Argia, 1.975. zk, 2005-01-16) :

- Amezketako eskolako bi irakasleek arantzatxo ere aipatu digute: hitanoaren galera. Mutilek beraien artean txiki-txikitatik egiten dute hika, baina neskek ez beraien artean eta ezta mutilei ere. Mutilak hikako forma traketsak erabiltzen ere hasi dira, hala nola, esaldi subordinatuetan hika erabiltzen. Batua, jasoa, hitanoa, herriko hizkera... hizkeraren aldaera mordoaren artean nahasmena sortzeko arriskua dagoela badakite irakasleek eta duela gutxi hainbat erabaki hartu dute bakoitzaren erabilera esparruari dagokionez:  
(...)  
- Hikako jasoa: idatzietan eta irakurgaietan erabiliko dute. Beraien artean hika erabiltzea bultzatuko da, baina irakasleei zuka egingo diote ikasleek. Irakasleek berriz, hika egin ahal izango diete hainbat egoeretan, beti ere, bi aldeak eroso sentitzen badira.

*Hik Hasi* aldizkarian, 95. zenbakian, Eperra Ikastolan (Sohüta) nola jokutzen duten azaltzen digute:

- **Ikastolan, xibereraz eta hika.** Bestetik, hika jarduten dute eskolan, Zuberoan bizi-bizirik baita mutilei hika egiteko ohitura. Noka aritzekoa galdu egin da, ordea, herri gutxi batzuetan salbu (Barkoxen, Santa Grazin... entzuten omen da oraindik noka, baina adinekoen artean). Hala, haurrek irakasleari zuka egiten diote, nesken artean ere zuka jarduten dute, eta mutilei hika egiten zaie beti.

Tere Irastortzak *Hik Hasi* aldizkariaren 50. zenbakian, Beasaingo Ikastolako ikasleek Segura Irratian bi irratsaio nola egiten dituzten azaltzean:

- "Ikasleen gaitasunak kontuan hartu behar dira. Zenbait hitanoa maizago erabilarazten diogu".

Batzuetan naturala dena, ordea, beste batean arrotz gerta liteke. *Hik Hasi* aldizkarian bertan, 63. zenbakian, Maite Argoitiak Bilboko Abusu ikastolan gazteen irakurzaletasunarekin lotuta dioena:

- Euskaraz gustura irakurtzen dute, baina arazoak sortzen zaizkie hiztegiarekin, hikarekin eta bizkaierarekin.

Jaime Altunak Urtxintxa Astialdiko eskolako kidea da, eta *Lagunarteko hizkerarekin* jolasean programarekin oso kontuan hartzen duten hori:

- Bestalde, euskarak gertutasuna adierazteko duen erregistro naturala hitanoa da, baina hitanoa inoiz entzun ez duten gazteekin hika aritzeak helburuak lortzen lagundu baino oztopatu egin dezake, gazteen eta begiraleen artean konplizitatea eta giro eroso

sortzea zaila izango baita. Hala ere, hitanoak presentzia duen tokietan hika erabiltzea bultzatzen da, jakina. (Hik Hasi, 79 zk.)

- Hitanoak presentzia duen inguruneetan, hika erabiltzera bultzatzen saiatzen gara. Hitanoa da, azken batean, euskarak egoera informaletarako duen berezko erregistroa. Adibidez: *"Hire eskutik intxaurrik ere ez"* edo *"Mikel? Mundiala dun. Barrez lehertuko haiz harekin"*. (erabili.com, 2004-06-21)

2. atalean aipatu dut lehen Begoña Echeverria, eta berriz ere ekarri behar dut hona, tesian eskoletan euskal identitatea nola islatzen zen aztertu zuelako (Echeverria, 2000). Arreta piztu digu bigarren hezkuntzako neska-mutilen sentimenduak eta jarrerak jasotzeko erabilitako bideak, testu baten 4 bertsiok (gaztelaniaz, zuka, toka eta noka) eragindako sentimenduak aztertu dituelako. Ondorio batzuk zalantzarik iruditzen arren, ideia interesgarriak ere plazaratzen ditu AEB hazi eta ikasitako emakume honek:

- Euskara euskaltasunaren ezaugarri nagusia izanagatik, testu-liburuek gizonezkoak erakusten dituzte euskal hiztunen eredu, neurri batean emakumeek euskal hizkuntza eta kulturari egindako ekarpenak ezabatuz.
- Gainera, eskolak ideologia generoduna bultzatzen du, egiazko euskaltasunari, naturaltasunari eta euskalkiekiko atxikimenduari lotua, zeinaren ezaugarri nabarmenena hika baita pragmatikari dagokionez.
- Hika, berriz, gizonezko hiztunen eta maskulinitatearen ezaugarri da zeharka; horrela, ikonozko lotura sortzen da egiazko euskal identitatearen, euskal kulturaren eta maskulinitatearen artean. Beraz, eskoletan ematen den euskal jendearen eta nazioaren irudiak maskulinitatea lehenesten du.
- Dirudenez, eskolak irakasten ez duen horrek eragin handiagoa du hizkuntz jarreretan, eskolak irakasten duenak baino. *Hika*-z gauza handirik ez irakastearekin, badirudi hezkuntzan hikaren konnotazio generoduna galtzen dela.
- Zergatik ez da eskoletan hika gehiago irakasten? Ez da beharrezkoa eguneroko elkarrizketetan, eta ez dute EGArako eskatzen. Beraz, euskara hizkuntza baliagarria izan dadin ahaleginean, plangintza-egileek hika baztertu zuten.
- Dena dela, gure froga kualitatibo eta kuantitatiboak ekartzeko moduan gara puntu honetan. Nahiz egia den eskoletan hika arinki tratatzen dela zuka bezain baliagarria ez delako, badira beste azalpen batzuk ere.
- Izan daiteke, adibidez, hizkuntza-plangintza egin zutenek programatik baztertu izana euskara hizkuntza moderno eta zibilizatua izatek urruntzen duen zernahi. Beharbada izen txar horrek irauteko arriskua ekidin nahian erabaki zuten planifikatzaileek hikaren irakaskuntza gutxienekoa izatea.
- Izan zitekeen, era berean, hizkuntza planifikatzaileek hikaren konnotazio generodunaren iraupena eragotzi nahi izatea curriculumetik baztertuz. Emakumeek euskararen transmisioan egindako lanaren garrantzia (publikoki ezagutu gabea) ikusita, beharbada plangintza egileak kontuz ibili dira emakume hiztunak baztertu gabe.
- Bestela, izan daiteke hika sakon ez irakastea, euskaldun zaharrak ez arrotzeko.
- Eskuzabala ez den ikuspegi bat: hika ez da ikasteko moduan irakasten, plangintza egileek —nahita edo uste gabe— egiazko euskaltasunaren ezaugarritzat gordetzen dutelako<sup>53</sup>. Hika ez bada eskolan irakasten, inguru euskaldunean hazitakoek --edo nahita ingurune euskaldunera bildutakoek-- baizik ez dute jakingo.

<sup>53</sup> Itxura batean, euskararen osasunaren adierazle polita da hitanoa: hika bizirik badago herri edo eskualde batean, euskara asko-edo erabiltzen seinale; pertsona batek hika ondo badarabil —eta noka zeresanik ez—, euskara maila oso duen seinale, inguruan hala jaso duelako edota berariaz trebatzearen ondorioz.

- Hezkuntzak hizkuntzekiko jarreran duen bigarren mailako eragina agerian gelditzen da ikasleek elkartasun puntu gehien euskalkiari (hikari) ematearekin, ikastetxean irakasten ez den euskara motari. Alegia, euskalkiek elkartasuna adierazten dutela esanagatik, ez dakigu ziur hikari esanahi hori bera ematen zaion.
- Beste ahots batzuk ere lotu zaizkio hikari, etxean eta ikastetxean entzun ez dutenentzat ere erakargarri eginez. Hezkuntzan tokirik ez duenez gero, hika ikastetxetik kanpoko kultura nerabe atseginaren ikur bihurtu da<sup>54</sup>.
- Era berean, ikasleei hikaz gauza askorik ez irakastearekin, hezkuntza hikaren konnotazio generodunaren bitartekari da. Ikastetxean hika irakasten ez delako, ikasleek beste nonbait sortutako esanahiak ematen dizkiote.

## EUSKALTEGIETAN

Irudipena dugu euskaltegi askotan saihestu egiten dela hitanoaren aipamena, ustez azalpen luzeak eskatzen dituelako eta garrantzitsuagotzat jotzen delako oinarri ona hartzea.

KARRAJUA blogean aitorten zintzo bat ikusi dugu (2008-01-15), HITANOAK KLASEAN izeneko sarreran, Benito Fizek idatzia:

- Aukera ona izan daiteke euskaltegietan hitanoari zer trataera eman zaion begiratu eta hartaz jarduteko. Ausartuko naiz zertzelada batzuk botatzen (errematea zuen esku).
  - *Ni naiz, **hi haiz**, hura da....- Zer da "hi haiz" hori? -A,.. ez da erabiltzen. Zenbat bider bota dugu gezur hau? Ze, gezurra da, ezta?*
  - *Ikasleak hitanoa X. mailan ikusi egin behar du. Zer esan nahi du "ikusi" horrek? Ikasi-ren sinonimoa ote da? Zertarako-zergatik "ikusi" behar da? (galdera da, ez ironiazko baieztapena).*
  - *Hika oso zaila da. Hala da? "Ikusi al dek?" bat ezin du hasierako mailako ikasle batek ulertu? Aditz paradigma osoa ikasi barik ezin da hika egin? Hika erabiltzea hiketan berba egitea da soilik?*
  - Euskaldun askok ez dute hitanoa erabiltzen. Hala ere, euren berbetak ez du ez adierazkortasunik, ez hurbiltasunik galdu. Ezta?
  - *"Hitanoa lantzeko ikastaroa", egin dira horrelakoak inoiz. Zelako jendea eta zeren bila dator halako ikastaroetara? Goi-mailako asuntua da hitanoa?*
  - *"Hemendik aurrera hikan egin behar dugu". Batzuetan bota dira horrelako enbidoak euskaldunen artean (berriak nahiz zaharrak). Horrelakoetan gure amarekin akordatzeko naiz. Berrogei urtetik gora auzoko andrearekin (adin eta kategoria sozial berdintsukoak biak) "de usted". "Beti egin dugu horrela, orain zelan aldatuko dugu?".*
  - Hitanoa (forma) propio landu duen irakaslerik ezagutu dut. Ikasleek asko ikasi dutela uste izan dute halakoetan. Merezi du?

## BESTELAKO IKASTAROAK ETA MATERIALAK

Ikastaro berezi ugari antolatu dira han eta hemen. Ritxi Lizartza da horietako asko eman ditu. Hara zer dioten Donostian antolatutakoaren zergatia justifikatzeko (Irutxuloko hitza, 2009-04-03):

<sup>54</sup> Materialak eta egitasmoak sortzeko orduan oso kontuan hartu beharreko ikuspegia iruditzen zait. Garrantzitsua da hitanoa jolas gisa lantzea, ikasleek debeku-zerrendekin eta ia erabiltzen ez diren aditzen taulekin lotu ez dezaten.

- Une honetan hitanoaren erabilera galtzen ari delako eta gazteen artean erabiltzen ari den eredu bat txukuna ez delako. Gazteen artean nolabait modan dago hika aritzea, baina beren eredu bat txukuna; aditza nola sortzen den edo nola erabili behar den jakin gabe, ausartu egiten dira erabiltzen.
- Alde batetik, ospe txarra du hitanoak, zergatik oso ondo ez dakigun arren. Neurri batean edukazio falta edo gehiegizko konfiantzatzat hartuko litzateke hika hitz egitea. Bestalde, tratatu itsusi bezala hartu izan da, galtzen joan den neurrian agintzeko edo errieta egiteko diren forma fosilizatuak bakarrik gelditu direlako.

Zumaian ere eman zuen ikastaro bat Ritxik, baina irakasleei zuzendutakoa zen, eta 11 partaide izan zituen 14 orduko ikastaro hark 2007an. Emaizarik emango ahal zuen! Zumaian duela ia 15 urte eman zuen ikastaroa Josefran Ispizua irakasle zumaierak, eta esperientzia hura aipatu zuen Baleike aldizkarian (hika) egindako elkarrizketan (23. zk, 1996ko apirila):

- "HIKA" IKASTAROA ERE HEUK EMAN HUEN. ZER MODUZ?
- Polita izan zuan. Bildu zuan jendea kalitateko jendea zuan eta gehienok oso gustora jardun genian. Inprobisatzen ere aritu ginduan, programaren ildoak ez zegoan oso lotua, baina oso ondo joan zuan. Laster beka bat aterako ditek hemengo formak biltzeko, eta hori herriarentzat oso ona duk, bestela hizkuntzak zati garrantzitsuak galtzen ditik. Nik gauza hauei "herria egitea" deitzen zieat.

Deba bailaran ere esperientzia zabala dute, herri askotan antolatu direlako ikastaroak: Bergaran, Elgetan, Eibarren... Bitxia da Arrasaten 1996an egin zutena, Hitanoa ikastera Arabara joan zirelako (erreportajea Euskaldunon egunkarian, 1996-03-12). Arrasateko alkatea bera izan zen irakasleetako bat (Xabier Zubizarreta), eta asteburu batean, barnetegi modukoa antolatu zuten, herriko hitanoa ikasteko edo elkarri hika hitz egiteko ohitura hartzeko. Hogeita hamarren bat ikasle bildu zituzten, arrasatearrak gehienak.

Aipatzeko modukoa da Bergaran eta Lazkaon abian jarri duten ekimena, mintzalagun (edo berbalagun) ekimenean oinarrituta, HIKALAGUN izeneko antolatu dutelako, euskaltegitik kanpo hika hitz egiteko aukera zabaltzeko.

Puntuak amaitzeko, azter dezagun hitanoa irakasteko materiala. Oro har ez dago argitaratuta berriazko material asko<sup>55</sup>, eta dagoenak muga dezente ditu:

- [www.ikasbil.net](http://www.ikasbil.net) gunean material solte batzuk aurki daitezke: bideo labur bat edo beste, irratiko pasarte batzuk, iritzi-artikuluren bat, azalpen teoriko sinpleak...
- *Aditz etikoa* (Gaminde, 1989). Aspaldiko materiala da, adizkiak bateratu aurrekoa.
- *Hikasi* (Fontaneda, 2007). Metodo gisa aurkeztzen da, azalpenak eta ariketa batzuk baditu, baina aditzen taulak dira nagusi.
- Josu Lavinek Interneten jarri ditu hikako adizkiak eskura, alfabetikoki: <http://euskara.wikispaces.com/HITANO>

<sup>55</sup> Ritxi Lizartzak laster argitaratzekoa du berriazko liburu mardul bat, oso baliagarria gertatuko dena.

# IV.

## ZUMAIAKO OHITURAK ETA ERABILERA TALDEKA

(...)

3. Bereterretzek oheti  
Neskatoari eztiki:  
-**Habil**, eta so egin **ezan**  
gizonik denetz ageri?

(...)

6. Jaun kontiak berhala,  
Traidore batek bezala:  
-Bereterretx, aigu bortara,  
itzuliren **hiz** berhala.

(...)

10.-Arreba, **hago** isilik!  
Ez otoi egin nigarrik!  
**Hire** semea bizi bada,  
Mauleara **dun** joanik.

(...)

12.-**Hik bahuena** semerik  
Bereterretxez besterik?  
Ezpeldoi altuan **dun** hilik  
**habil**, eraikan bizirik...

*Bereterretxen kantorea*

## 4. ZUMAIAKO OHITURAK ETA ERABILERA TALDEKA

Hitanoa Zumaian nola dagoen eta noiz-norekin-nola erabiltzen den aztertuko dut atal honetan<sup>56</sup>. Horretarako bidea zenbait talde bereizi eta galderak egitea zela ikusi genuen. Hiru arlo bereizi eta bakoitzera egokitutako galdekizun labur batzuk prestatu genituen, erantzunek joera orokorren berri emango zigutelakoan. Honako hauek izan dira aztertutako arloak (gaztetxoak zabalago ikusiko ditugu 5. atalean):

- ❖ **BASERRITARRAK:** beste era bateko hizkera eta aparteko bizimodua dutela kontuan hartuta, hitanoarekin lotutako ohiturak eta iritziak biltzea izan da asmoa.
- ❖ **KOADRILAK:** hamabost eta hogeita hamar urte inguruko gazteek tratamenduei dagokienez zer-nolako ohiturak dituzten jaso nahi izan da.
- ❖ **IRAKASLEAK:** LH eta DBHko zikloetan dabiltzan irakasle batzuen ohiturak eta iritziak jaso nahi izan ditugu.

Azpimarragarria da, bestalde, gizonezkoen aldean nekezago topatu nituela “hika” egiteko nolabaiteko ohitura duten emakumeak; zenbat eta gazteagoengana jo, orduan eta zailago, gainera. Noketaren ahulezia bistan geratu zen, hasiera-hasieratik.

Honako puntuak azpimarra ditzakete oro har:

- Batzuek gurasoen aldetik jaso dute hitanoa; beste batzuek, berriz, gurasoen aldetik jaso ez baina anai-arreba eta adiskideen arteko harremanetatik jaso dute.
- Hika jarduteko ohitura baduten arren guztiek ez dute hain gogoko. Zenbait orain “itsusi” samarra iruditzen zaie, eta lehengo lagunekin bakarrik aritzen omen dira.
- Lagunartean eta anai-arreben artean hika egin arren, lekukoetako askok seme-alabei zuka egiten diete, egokiagoa delakoan.
- Gizonezkoen kasuan askok noka egitea asko kostatzen zaiela aitortu digute. Gehienek senideekin eta lagunekin bakarrik jarduten omen dute hika.
- Bakarriketan eta abereei zuzentzeko hiketa erabiltzen dute ia denek. Toka pentsatzen dute zenbait emakumek (“gustoa geatu nauk”), baina ez zuzenean beren buruari zuzentzerakoan (“earra in den”). Hau da, protagonista lehen edota hirugarren pertsona denean tokako formak erabili ohi dituzte, baina norbere buruari beste bat izango balitz bezala zuzenduz gero noketa darabilte.
- Askok gazteagoa den batek beraiei hika zuzentzea gaizki hartuko lukete batzuek; beste batzuei, berriz, “grazidxa” egingo lieke, baina “txokante” samarra dela iruditzen zaie.

<sup>56</sup> Kontuan hartu behar baserritarrekin eta koadrilekin 1998an egon nintzela, eta irakasleekin 2001ean.



## **4.1. BASERRITARRAK**

10 baserri hartu ziren, auzoka banatuta. Lekuko gehienak 60 urtetik gorakoak izan ziren, eta horrek garai batetik gaur egunera bitarteko aldaketak aztertzeko aukera eskaini zi8dan. Bestalde, baserri hauek guztiak ez ziren maila berekoak, eta batzuetan lekukoaren bizimoduaren motor zen arren, beste batzuetan osagarri bat besterik ez zen. Hamar elkarrizketa hauetan 10 galderaz osatutako galdekizuna landu zen, zenbait ataletan banatuta.

### **Familia: etxeakoak eta kanpoko senideak**

Aztertutakoen artean gehienek hika egiteko ohitura bazuten. Gurasoek lekuko gehienei hika egiten zieten, beraiek senideen artean hika egin izan dute eta seme-alabei ere hika zuzentzen zaizkie. Bilobak dituztenek, ordea, haiekin zuka egiten dutela esan digute ia denek. Bestalde, senar-emazteen artean hika egitea debekatutako kontua izan da orain artean, orain kontu hauetan askatasun handiagoa dagoela aitortu arren. Oraingo ohitura “berri” hauen kontrako iritzi sutsuak ere bildu ditugu: “Andriari zuka eta musuka. Matrimoniyuak —bueno, oain matrimoniyoik ba al do?—, juntatutakuak eta alkarri hi, ez zatek gustatzen; ez errespetuik, ez maitasunik horrela”.

Bigarren galderan, berriz, hain hurbilekoak ez diren senideekiko ohiturak aztertu dira. Izeko-osaba eta iloben arteko erlazioak guraso eta seme-alaben artekoenen antzekoak dira oso, hau da, adibidez semeekin hika egiten duenak ilobekin berdin jokutzen duela. Emakumeek ilobekiko tratuan zukara jotzeko ohitura handiagoa dutela ere jaso dugu. Bestetik, lehengusuen artean hikako joera nagusi dela jaso dugu, urrutikoak edota adinez askoz zaharragoak ez badira behintzat. Lehengusuekin ezkondukoekin, koinatu-koinatekin, suhiekin, errainekin... zuka —hots, erabilera neutroa— nagusitzen dela esan dezakegu, maila berekoen kasuan gaur egun hikarako joera handitzen doala ikusten bada ere.


### **Zenbait faktore: adina, sexua, konfiantza**

Lekukoek erantzundakoaren arabera, adina lehen hika egiteko oztopo handiagoa zen orain baino; lehen “debekatua” zegoen zaharragoari hika egitea, eta adinean zegoen aldeak zenbaitetan anai-arreben artean edo lehengusuekin zuka egitea eragiten zuen. Gaur egun askatasun gehiago dago, edadetuei “Itsusia” iruditzen zaien arren. Esate baterako gehienei “gaizki” edo “oso gaizki” irudituko litzaieke gazte batek beraiei hika egitea, errespetu faltatzat joko lukete. Adinean alde handirik ez dagoenean onargarria izan liteke, baina oro har ez da ondo ikusten, konfiantza adieraz lezakeen arren.

### **Bakarrizketa eta abereekin**

Senideekin edo adiskideekin hikarako joera duenak hika egin ohi dio bere buruari ere, eta baita etxeako abereei ere, gehienetan. Elkarriketatu ditugun gehienek hika egiterakoan ez dituztela emeak apartatzen esan digute, baina zenbait kasutan tamainagatik —txakur txikiei batez ere— edota afektuagatik noka edota zuka ere egiten zaiela ikusi dugu.

# TORREIFELAREN KASUA



Irudigilea: Jon Mantxi (la dena, 2009)

## 4.2. KOADRILAK

Pixka bat helduagoak diren gazteen ohiturak jaso eta aztertu nahian, Zumaiako dozena bat koadrila hartu nituen 1998an, 18-30 urte bitarteko neska-mutilez osatutakoak. Ordezkarri bat edo birekin hitz egin eta lehenbizi datuak eta tratamenduei dagokienez zituzten ohiturak jaso nituen. Bigarren zatian ordezkariri galdera zehatzago batzuk egin nizkion, horien artean gaztelaniazko zenbait esaldi toka eta noka nola esango lituzkeen, sintaxizko debekuak errespetatzen ote zituen jakitearren (gaztetxoekin erabili direnen oso antzekoak).

Oro har nesken artean oso gutxi erabiltzen da hitanoa, ia batere ez, eta erabiltzen den apur hori "esaldi tipikoetara" mugatzen da: zuzenean egindako galderak, jakineko esamoldeak...

Mutilen artean dezenteko ohitura dago elkarri hika egiteko, baina ez da sustrai sendo eta sakona duen kontua. Hamalau urteak bete baino lehen inork gutxi egiten zuen hika, eta kanpoko gazteekin erlazionatzerakoan hasi ziren batez ere hitanoa erabiltzen; badirudi azpeitiar, zestoar eta getariarrek zumaiarrok baino joera handiagoa dutela horretarako.

Bestalde, mutilek neskei gutxi egiten diete hika, eta zenbait kasutan tokako formak erabiliz (azpeitiarrek fama handia dute horretan). Hau da, toketa neutroa balitz bezala erabiltzen da, guztientzako balioko balu bezala: hori gertatzen omen da, esate baterako, bilera batzuetan neska-mutilak egon eta pertsona batzuk denentzat hitz egiten hasten direnean. Larriagoa da, hala ere, neskari zuzenean tokako formekin hitz egitea, eta zenbait gazteren artean antzeman dugu joera hori.

Gaztetxoek kasuan bezala, etxean oso gutxi egiten diete hika. Aipatzekoa da badirela neska batzuk etxean hitanoa jaso eta gero koadrilan bultzatzen saiatzen direnak; horrek, ordea, ahalegin handia eskatzen du, eta emaitzak ez dira berehalakoak izaten.

Oro har, sintaxizko debekuak ez dira errespetatzen eta ez dituzte hitanoaren paradigma guztiak ezagutzen, ez batukoak ezta Zumaiako formak ere.

### Hitanoaren kalitateaz

Kalitatea neurtzeko galdeketa zehatz eta sakonik egin ez bada ere, haur eta gazteek erabiltzen dituzten aditz-formen desegokitasuna agerian geratu da askotan. Behaketan oinarrituz, askotan tratamendu neutroa eta hitanoa nahastu ohi direla ohartu gara, herriko formak eta batuarenak nahasten dira, behar ez den tokian sartzen dira alokutiboak eta toketa erruz erabiltzen da solaskidea emakumezkoa izanik ere.

Inkestetan BIETARA egiten duen jende asko dagoela jaso dugu, baina ez bakarrik batzuekin ZUKA eta beste batzuekin HIKA. Tratamendua finkatu gabe dago kasu askotan, eta arrazoietako bat hitanoa egoki menperatzeko zailtasuna izan daiteke: lehenaldiko formak, pluralekoak, NOR-NORI-NORkekoak eta abar sartu behar direnean, forma horiek hain ezagunak ez direnez, neutroak sartu ohi dira<sup>57</sup>.

<sup>57</sup> Bertsolari gazteei ere gertatzen zaizkie horrelakoak. Horregatik, Bertsozale elkarteak bate-bateko bertsoak epaitzeko irizpideetan dionenez, "Bertsolariari gutxieneko koherentzia ere eskatu behar zaio, bere jardunak ez dezan eduki anabasa itxurarik. (...) Bereziki zaindu beharrekoa izango da morfologia: (...) hika/zuk/berorika erregistroan nahasian ez erabiltzea.

Jon Maiaren kontakizun honek, 80ko hamarkadan mutilen artean hika egiten zela erakusten digu (Maia, 2009):

- Zazpi urte neuzkala, nire aita, Orbegozo fabrikatik, istilu eta greba luzeen ondoren, kaleratua izan zen, eta Zumaian aurkitu zuen lana, eta hara joan ginen. Zumaian hasi nintzen konturatzen lehen aldiz nire "desberdintasunaz". Nik erdaraz pentsatzen nuen, eta hitz egin ere, ez nuen nire ikastolako lagun berriek bezala hitz egiten. Oso ondo gogoratzen naiz inguruan ume guztiek hitz egiten zutela hitanoz edo hika eta nik ez nekiela. Konpleju handia sortzen zidan horrek. Nik denei zuka hitz egin behar nien nik hika ez nekielako eta besteek niri hika. Horrek ematen zidan desberdintasun sentrazio bat. Herri berri batera joan eta konturatu nintzen ez nintzela besteak bezain euskaldun-edo. Nik horrela pentsatzen nuen behintzat.

Gaur egungo *argazki* bat ekarri nahi dut orain, Zumaiaiko gazteen erabileraren erakusgarri argia ([www.baleike.com](http://www.baleike.com)):

**zumaiko gaztian beste arazo bat** Nagore, Noiz: 2008-07-22 01:23, Atala : [Euskara](#)

Gaztetxian ta bertan in dian aldarrikapenak aparte, nik zumaiko gaztian artian beste arazo bat ikustet, larriya gañea, egunetik egunea okerreka dijuana: HIKAN ERABILERA. ze lotsagarrikeri ta ze errespetu falta neska batei hika mutila izango balitz bezela itia euskaldun sentitzean pertsona baten partetik?

Arazo honek erantzule bakarra daka: gaur egungo gaztiak, hori dala ta idatziet hemen. Horreatik, gure erantzunkizuna dalako, iruitze zait EPE MOTXEA KONPONDU BERREKO ZOZE DALA, izan e ez baita horren zaila: hitzak "k"-kin bukau berrian "n"-kin bukatzia. Egunetik egunea egoera aldatzen ikustia espero det, danon onurako ta aberastasuneako izango baita. Portzierto, behin baino geyotan ikusi izan detelako: berri baten atzian eozein eon daiteke ta ondoriyo ez hika alperrik ibili.

**Nork:** ak-47, **Noiz:** 2008-07-22 11:20

ni ez nagon ados hirekin nagore. Nik ez dinat inoiz entzun inor neska bati bezala mutil bati hika egiten. Hala izan bada nik uste ez denela izan errespetu faltagatik, baizik eta -n hori erabiltzeko ohitura faltagatik. Izan ere, zumaian, mutil gehienok, neskei zuka egiten zienagu. Epe motzera ez den aldatuko, ze urte askotako ohiturak ez ditun aldatzen egun batetik bestera. Lotsagarrikeria edota errespetu falta direla esatea gauzak bere honetik ateratzea dun, beraz norbaitek kasu egitea nahi badun feminista indignatuaren papera alde batera uztea gomendatzen diñat, tiroak ez bait zihoaztin norabide hortan. Euskerak gizonezkoentzako eta emakumezkoentzako forma desberdinak erabiltzen dizkin, zergaitik? ideiarik ez, akaso filologoenbategi argituko zigun. Matxismo arazo bat badago (niri ez zaidan ala iruditzen), emakume taldeak argitara dezala bere iritzia eta proposa dezala zerbait ta ikusiko diñagu nola konpondu. Hori bai, mutiloi begira txistu eginaz ez haiz urrutira iritsiko.

- **Nork:** Ziraun, **Noiz:** 2008-07-22 15:09

Zumaian hika, mutillak bakarrik aitezit. Noixian bein neskake bai baño iya iñoiz ez. Nagore, iwal zure kuadrillako arazua izangoa mutillak eztakiela hika iten.nik beintzat mutil bat neska batekin izketan ikustetenian 10tik 9 zuka ai zaio.Horreatik ustet zure arazua dala.Ta bestela errexa dakazu: molestau ite baizu zurekin berriketan ai danai esaiozu momentuan!

- **Nork:** ametsakesna, **Noiz:** 2008-07-22 18:26

Nagore, nik egiya esan eztiñat ikusten olako arazoik daonik. Nere ustez ere, zumaiarron artian etzion ohitura handiik mutilek neskei hika iteko, ta hori den arrazoi nagusiya hanka sartzeakuan. Ta mindu in badiñat nere gaztetxian inguruko komentayotan mutillei bezela idatzi diñatelako, barkau. Egiya esan, arrazoi gabe mutillen batekin ai n itxunala pentsau niñenan, ta momentuan eztiñat uste arrazoia ibiltzen jakite eza izan danik. Egiya esan, nere barruko sua mutillen hikan ateatzeen, besteik ez.

Barkau, ta hurrengoako hartukoñat kontuan.

### **4.3. IRAKASLEAK**

Hitanoari buruzko hitzaldi batera 34 irakasle joatea ez da nolanahikoa, eta horregatik baliatu nuen 2001eko urriaren 31n Zumaiako Herri Eskolan emandako hitzaldia han bildu zirenei galdera batzuk egiteko, inkestatxo baten bitartez.

34 erantzun bildu nituen, 19 emakume, 6 gizonezko eta beste 9 zehaztu gabeak. Horietatik zumaiarrak 11, kanpokoak 8 eta gainerakoak zehaztu gabeak. Hika egiten badakitenen proportzioa: 34tik 22; emakumeetan 19tik 12k; gizonezkoetan 6tik 4k; zehaztu ez dutenetan, 9tik 6k.

Erantzunekin bildumatxoa/laburpena ekarri dut hona, daturik eta aparteko azterketarik gabe bada ere, hitanoa ikastetxeetan bultzatu beharreko bideaz argibide batzuk ematen direlako.

#### **Irakasleak hika familiarekin**

- Batzuek bai, senideekin eta semeekin gehiago; alabei errazago zuka.
- Anaiei hika, ahizpei zuka.
- Gurasoek emakumeei zuka, gizonei hika.
- Aginduak ematerakoan eta haserretutakoan hika; bestela zuka.
- Ahizpekin hika eta anaiekin zuka.
- Seme-alabekin giro jakin batean aritzen naiz hika, jolasean eta giroa lasai dagoenean.
- Umeei presa sartzeko eta aginduak emateko erabiltzen dut gehienbat.

#### **Lagunartean**

- Batzuek hika.
- Batzuekin bai, baina zuka gehiago.

#### **Ikasleekin**

- Batzuetan, konfiantza ematen dutenekin bakarrik, eta ez beti.
- Oso txikiei ez diet hika egiten.
- Neskei zuka egiten diet eta mutilei hika.
- Mutilei hika egiten diet, eta neskei zuka.
- Oso gutxietan egiten diet. Hala ere, zaharragoak balira egingo nieke.

#### **Irakasleen artean**

- Harremanaren, adinaren eta solaskidearen gaitasunaren arabera.
- Emakumeen artean dezente egiten da.
- Ohitu dutenekin eta badakitenekin hika.
- Ezagun eta gertukoekin hika.
- Erdipurdi erabiltzen dute.
- maisuekin hika, andereñoekin zuka.

### **Gaztetxoaren ohiturak (nola egite dute hika?)**

- Nesken artean mutilek bezala (toka).
- Gutxi eta baldar.
- Gutxi eta *katxondeorako*, jolasean.
- Askotan aditzak asmatu egiten dituztela dirudi.
- Generoarekin akatsak egiten dituzte.
- Gaizki samar erabiltzen dute; arazoa transmisioa ezean dago.
- Oro har neskak ez dira kontuan hartzen, eta oso forma bitxiak/aldebesak sortzen dira.
- Hemen Zumaian gaizki egiten dela iruditzen zait.
- Esaldi jakin batzuk besterik ez dute erabiltzen.
- Gaizki, aldebeskeriak egiten dituzte.
- Mutilek erabiltzen dute gehienbat, nahiz eta askotan hanka sartu.
- Xelebre xamar: mutilek neskei "aizak!".
- Konplizitate kutsu batekin erabiltzen dute.
- Aldrebes samar egiten dute.
- Gaizki, neska-mutil bereizi gabe, eta forma aldebesekin.
- Herri txikietakoek hobeto erabiltzen dute.
- Neskekin eta mutilekin berdin, bereizi gabe.
- Gaizki; mutilek gehiago hitz egiten dute, eta ez dakite neskei hika ondo egiten.
- Oker erabiltzen dute.

### **Hitanoa irakastea (ikastetxean)**

- Jolasen bidez landu beharko litzateke.
- Ahozkotasuna lantzerakoan gai honek tokia behar luke; irakasteko era bizia eskatzen du.
- Uste dut irakatsi beharko litzaiekeela.
- Lehenbizi guk geuk ikasi eta erabili beharko genuke.
- Interesgarria iruditzen zait hika lantzea; programazioaren barruan sartuko nuke.
- Ahozkotasuna lantzerakoan adostu behar dira horrelakoak.
- Irakasleen artean argitu beharko litzateke, irizpide garbi batzuk ezarri.
- Plangintza bat egin beharko litzateke; adostuta eta, noski, beraiei zuzenean hitz egiterakoan erabilita. Noiz eta nola erabili irakatsi beharko litzaieke.
- Beste gai bat bezalaxe landu beharko litzateke, unitate didaktikoekin.
- Minimoak irakatsi behar zaizkie.
- Ahozkotasunaren barruan landuko nuke.
- Zaila da lantzea, ez dago ohiturarik.
- Hitz eginez eta zuzenduz landu behar da.



# IKASTOLAKO MAISUAREN BIZARRAREN KASUA



Irudigilea: Jon Mantxi (la dena, 2009)

# V.

## ZUMAIAKO ERABILERAREN ETA TRANSMISIOAREN AZTERKETA

Etorriko **dek**, etorriko **dek**,  
etorriko **dek**, Santana zaharra

Ez **dik** balio, **badik** balio,  
riau, riau, misterio.

Riau, riau, riau, riau  
**badik** balio, riau, riau.

**Herrikoia**  
*Santana zaharra*



## 5. ZUMAIAKO ERABILERAREN ETA TRANSMISIOAREN AZTERKETA


### 5.1. DATU OROKOR BATZUK

Zumaiako Udalak gaiarekiko zuen eta duen kez karen beste erakusgarri bat da 2000. urtean SIADECOri eskatu zitzaion azterketa hitanoaren erabilera txertatzea eskatu izana. Hitanoaren erabilerari dagozkion datuak eta grafikoak osorik ekarriko ditugu hona, aurreko ataleko joerak eta beste honetako datuak eta ondorioak osatzeko lagungarri izango delakoan.

- Euskararen erabileraren harira, Zumaiako herritarrek hika erabiltzen ote duten galdetuta, euskal hiztunen artean **10etik 3 baino ez dira hika inoiz jarduten direnak** eta herritarren inpresioek ere erabilera urria jasotzen dute:

“(Hitanoa?) Hori bai ez dela erabiltzen”

*“Hika gutxi erabiltzen dek. Guk erabiltzen genuen bezala, guk normala huan hika erabiltzea eta orain gazteak zuka, gure alabak zuka ibiltzen dira. Eta ari dituk hika zeratzen eta moldatzen eta... eta hitanoa guk baino gaizkiago erabiltzen ditek” (50-60 urte)*




Euskaraz hitz egitean, hika hitz egiten al diozu inoiz?

Iturria: SIADECO, 2000

- Hika aritzen direnak** 10etik 3 baino ez diren arren, erabiltzen dutenek gehien **zein harremanetan erabiltzen duten** erakusten du hurrengo grafikoak. Alabaina, laginaren tamaina edo hika jarduten diren herritar kopurua kontuan hartuta, datuok **erreferentzia gisa** hartzea komeni da:

## Ondorengo harremanetan zenbateraino egiten duzu hika?



- Ikus daitekeenez, hikaren erabilerarik ohikoena **lankideen artekoa** da, hika erabiltzen dutenen artean 10etik 5ek beti edo gehienetan erabiltzen baitu. **Anaia-arreba-ahizpen artean** ere, 10etik 4k beti edo gehienetan erabiltzen dute eta beraz bi horietan, lankideekiko eta anaia-arreba-ahizpekiko harremanetan da ohikoen hitanoaren erabilera. Datu aipagarriarik azpimarratzekotan, hika jarduten dutenek **seme-alabekin** aritzeko duten **ohitura eskasa** aipatu behar genuke, horrek etorkizuneko erabileran izan dezakeen eraginarengatik.
- Gainerakoan, hitanoak duen **erabilera urriaren** zergatiak emateko garaian, **hainbat arrazo**i aipatzen dira, eta guztiek ere bere eragina izan dutela eta egun oraindik ere badutela esan genezake:

N = 91

### ➤ Eredutik baten falta:

“Ez dago eredu bat”

“Eta dago adin bat, gazte... ez dakit zer adin izango den, eta batik bat mutilen artean, ba 10 urtetik hasita eta ez dakit zenbat urte arte, joera daukatenak hika egiteko, baina gaizki egiten dute, eredurik ez dutelako jaso”

“Arazoa da ez daukagula eredu bat”

### ➤ Hitanoaren prestigio eza, batez ere emakumezkoekin eta emakumezkoek erabiltzeko garaian:

“Ez (dago ohituratik gazteen artean). Eta gainera, nik lehen ohitura banun, eta neri ohitura hori kendu egin zidaten, ze esan zidaten ez hitz egiteko. Hitz egiten det nik batzuekin baina pertsona oso seinalizatuekin, pertsona zehatz batzuekin” (neska, 25 bat urte)

“Igual normalean hika hitz egiten dezu konfiantza daukazun pertsona batekin, ze neri, nere amandriak-eta, bere ahizpakin, hiru ahizpa dira eta hika hitz egiten dira, baina gero neri esaten dit hika ez hitz egiteko, ze hori errespetu falta dela” (15-18 urteko neska)


“Guk daukagu maixu bat egiten digula neska guztiei zuka eta mutilei hika eta gu hola... baina hau ze?” (neska, 15-18 urteko gazteak)<sup>58</sup>

- Halere, badirudi, **gazteenen artean** oztopoak oztopo hika egiteko **joera neurri baten berreskuratzen** ari dela, joera hori **nagusiki mutilen artean** ageri bada ere:

“Oikian joera handia dago hika hitz egiteko (gazteenen artean) eta nik uste gustoa hartu diotela, baina nahiko gaizki egiten dute”

“Mutilak bai, gure edadian behintzat, mutil gehienak, baina mutilek neskei zuka eta mutilen artean hika” (15-18 urteko gazteak)


- Hitanoaren erabileraren inguruan modu kualitatiboan jasotako informazioak, **inkestaren bitartez** jasotako datuetan **ere islatu dira** eta horixe da ondorengo grafikoek erakusten digutena:



Hika hitz egiten duten euskal hiztunak, adinaren arabera.

<sup>58</sup> Aurreko atalean irakasleetako batzuk aitortu dute mutilei toka eta neskei zuka egiteko ohitura dutela (gizonezkoak dira).

### Hika inoiz egiten duten euskal hiztunak, sexuaren arabera



### ONDORIO NAGUSIAK

Euskaraz hitz egiterakoan **hika erabiltzen dutenak euskaldunen artean 10etik 3 dira**. Hikaren bidezko **harremanik ohikoenak, lankideen artekoak eta anaia-arreba-ahizpen artekoak dira nagusiki**, eta seme-alabei neurri txikiagoan egiten zaie hika. Nolanahi ere, hikaren erabilera murrizta den arren, gizonezkoen artean, emakumezkoen artean baina dezente ohikoagoa da, emakumezkoen artean 10etik ez baitira 2 ere hika noizbait jarduten dutenak; gizonezkoen artean 4-5 dira hala aritzen direna.


## 5.2. GAZTETXOEN EMAITZAK

Gaztetxoaren arteko hitanoaren “kalitatea” ikusita eta adin-tarte jakin batean batez ere emakumeen kasuan dagoen hutsuneaz ohartu ondoren, belaunaldiz belaunaldiko transmisioak aparteko azterketa bat merezi zuela ikusi genuen. Familiarteko harremanak tratamendu hau erabiltzeko gune aproposa izanik, zer neurritan erabiltzen den eta belaunaldi batetik bestera transmisioan egon diren aldaketak ikertzen ahalegindu nintzen<sup>59</sup>. Metodo kuantitatiboan oinarritutako inkesta bat baliatuta, ondorio argigarriak eskainiko lizkiguketen datuak eskuratzen ahalegindu gara. Horretarako, eta adituen aholkuari jarraituz, galdera gutxi batzuekin populazio handi bat hartu dugu, inkestaren fidagarritasuna bermatu ahal izateko.

Zumaiako Institutura (ikastetxe publikoa) eta Maria eta Jose ikastetxera (pribatua) jo ondoren, 360 neska-mutili galdekizun bat pasa genien, gelaz gela txandaka bete zezaten. Benetan eskertu beharrekoa da ikastetxeetako arduradun eta irakasleek erakutsi zuten jarrera eta borondatea. Orriak jasotzearekin batera ikasle bakoitzari gutun-azal bana eman genion, etxera eraman eta gurasoek beste galdekizun bat bete zezaten. Egun batzuk geroago ikastetxeetatik pasa eta gurasoen erantzunak ere eskuratu ahal genituen. Horrela, astebeteren buruan 360 gaztetxo eta 305 gurasoren datuak jasotzeko modua izan genuen.


Hainbat aldagai aintzat hartuz ateratako emaitzak aparteko taula batzuetan daude, baina garrantzitsuenak iruditzen zaizkigunak galdera edo puntu horretan bertan aurreratzen saiatu gara.

Horretarako hamabi galderaz osatutako galdekizuna pasa genien DBHko 1., 2. eta 3. mailako neska-mutilei, ordu laurdeneko tarte batean erantzun zitzaten. Irakaslearekin batera, gu ere bertan egon ginen behar ziren azalpenak eman eta zalantzak argitzen laguntzeko. Azken ariketa gisa, gaztelaniazko bi esaldi eman zitzaizkien, hori hika neska edo mutil bati nola esango lioketen galdetuz. Ariketa hau hautazkoa zen, hau da, ez zen derrigorrez bete beharrekoa, eta lortu nahi genuena zera zen, gaztetxoek syntaxizko debekuak errespetatzen zituzten ala ez jakitea, hots, forma alokutiboak ez dagokien tokian sartzen ote dituzten.



Guztira, 360 neska-mutilen datuak jaso ditugu inkesta honetan.


<sup>59</sup> 1998an egindako lana (Azkue, 2000).



Zumaiako Institutuan 10 gelatako erantzunak jaso dira: 3 DBH 1. mailakoak, beste 3 DBH 2. enekoak eta 4 gela DBH 3. mailakoak; guztira 232 ikasleren erantzunak. **Aipagarria da hauetatik 36 lagun ez direla zumaiarrak**, inguruko herrietakoak baizik.

Maria eta Jose ikastetxean guztira 128 erantzun jaso dira, maila bakoitzeko bina gelatan. Azpimarratzekoa da kanpoko ikasle oso gutxi dagoela ikastetxe honetan, 4 lagun besterik ez.


## 1. NOLA HITZ EGITEN DUZU HIKA?




## 2. NON ETA ZEINEKIN HASI ZINEN HIKA?

**NOIZ:** 9 URTEREKIN


Azken kopuru hau ikasleek emandako zenbakien batez bestekoa da, baina esan beharra dago jende askok ez zuela galdera honi zegokion lerroa bete. Kopurua ez da asko aldatzen beste aldagaien arabera, baina aipagarriena zumaiarrak ez direnen kasua izan liteke, batez besteko adina 7ra jaisten baita.




### 3. GELAKO MUTILEKIN NOLA HITZ EGITEN DUZU?




### 4. ETA NESKEKIN?




### 5. ANAI(AR)EKIN NOLA HITZ EGITEN DUZU?




### 6. ETA ARREB(AR)EKIN-AHIZP(AR)EKIN?




**7. AITAK NOLA HITZ EGITEN DIZU?**




**8. ETA AMAK?**



**9. AITONAK (AITAREN AITAK) NOLA EGITEN DIZU?**




**10. ETA AMONAK (AITAREN AMAK)?**







### 11. ETA BESTE AITONAK (AMAREN AITAK)?



### 12. ETA BESTE AMONAK (AMAREN AMAK)?



### MENDEKO PERPAUSETAN ALOKUTIBOA



## **Ondorio nagusiak**

Orain arteko datuak ikusi eta aztertu ondoren, ondorio nagusi hauek atera ditzakegu:



- ◆ Hika egitea gaztetxoan artean erroturik dagoen ohitura bat da, batez ere mutilen artean.
- ◆ Zumaiarrak ez diren ikasleek bertakoek baino joera handiagoa dute hiketarako, bai eskolako lagunekin eta baita etxeko senideekin ere, eta arrazoi hau izan daiteke Institutuan Maria eta Josen baino hika gehiago egitea eragiten duen faktore nagusienetako bat.
- ◆ Etxean ikasi dutenak baino askoz gehiago dira hitanoa eskolan lagunekin ikasi dutenak. Gaztetxoan kasuan behintzat, lagunaren artean erabiltzeko tratamendua gehiago da familiarrekoa baino.
- ◆ Solaskidea neska denean —berdin gelakidea edota arreba-ahizpa— hiketarako joera oso txikia da.
- ◆ Gurasoren bat baserrikoa duten ikasleek hika aritzeko ohitura handiagoa dute besteek baino. Hala ere, guraso hauek seme-alabengana zuzentzean ez dute hika gainerakoek baino proportzio handiagoan erabiltzen, emaitza hauen arabera.
- ◆ Aiten kasuan, semea edota alabari izan, asko aldatzen da hiketarako ohitura, semea gehiago hitz egiten baitzaio hika alabari baino.
- ◆ Amen kasuan, berriz, gutxiago egiten zaie seme-alabei hika, baina sexuaren arabera alderik ez da nabari.
- ◆ Aitona-amonen kasuan, gizonezkoek hika egiteko joera handiagoa dute emakumeek baino, eta kasu guztietan biloba mutilari neskari baino gehiago egiten zaio hika.
- ◆ Ikasle gehienek ez dituzte sintaxizko debekuak errespetatzen eta erabilitako forma asko mugatuak eta desegokiak dira.

| Zk. | Aukerak               | Guztira |    | Mutilak |     | Neskak |     | Institut. |     | M <sup>a</sup> Jose |     | Zum. |    | Kanp. |    | Gur. Ba |    | Gur. Ka |    |
|-----|-----------------------|---------|----|---------|-----|--------|-----|-----------|-----|---------------------|-----|------|----|-------|----|---------|----|---------|----|
| 0   | Guztira               | 360     |    | 196     |     | 164    |     | 232       |     | 128                 |     | 320  |    | 40    |    | 100     |    | 260     |    |
|     | Gizonezk.             | 196     | 54 | 196     | 100 | 0      | 0   | 129       | 56  | 67                  | 52  | 173  | 54 | 23    | 58 | 61      | 61 | 135     | 52 |
|     | Emakum.               | 164     | 46 | 0       | 0   | 164    | 100 | 103       | 44  | 61                  | 48  | 147  | 46 | 17    | 43 | 39      | 39 | 125     | 48 |
|     | Institutua<br>M eta J | 232     | 64 | 129     | 66  | 103    | 63  | 232       | 100 | 0                   | 0   | 196  | 61 | 36    | 90 | 72      | 72 | 160     | 62 |
| 1   | Ondo                  | 128     | 36 | 67      | 34  | 61     | 37  | 0         | 0   | 128                 | 100 | 124  | 39 | 4     | 10 | 28      | 28 | 100     | 38 |
|     | Erdizka               | 102     | 28 | 80      | 41  | 22     | 13  | 74        | 32  | 28                  | 22  | 82   | 26 | 20    | 50 | 45      | 45 | 57      | 22 |
|     | Mutilekin             | 125     | 35 | 64      | 33  | 61     | 37  | 77        | 33  | 48                  | 38  | 114  | 36 | 11    | 28 | 28      | 28 | 97      | 37 |
|     | Hika ez               | 33      | 9  | 27      | 14  | 6      | 4   | 26        | 11  | 7                   | 5   | 26   | 8  | 7     | 18 | 16      | 16 | 17      | 7  |
| 2   | Hika ez               | 100     | 28 | 25      | 13  | 75     | 46  | 55        | 24  | 45                  | 35  | 98   | 31 | 2     | 5  | 11      | 11 | 89      | 34 |
|     | Eskolan               | 154     | 62 | 110     | 65  | 44     | 55  | 110       | 64  | 44                  | 59  | 133  | 62 | 21    | 60 | 51      | 59 | 103     | 64 |
|     | Etxean                | 41      | 17 | 22      | 13  | 19     | 24  | 28        | 16  | 13                  | 17  | 34   | 16 | 7     | 20 | 23      | 27 | 18      | 11 |
|     | Kalean                | 53      | 21 | 36      | 21  | 17     | 21  | 35        | 20  | 18                  | 24  | 46   | 22 | 7     | 20 | 12      | 14 | 41      | 25 |
| 3   | Hika ez               | 109     |    | 28      |     | 81     |     | 58        |     | 51                  |     | 104  |    | 5     |    | 14      |    | 95      |    |
|     | Noiz                  | 9       |    | 9       |     | 9      |     | 9         |     | 9                   |     | 9    |    | 7     |    | 8       |    | 9       |    |
|     | Hika                  | 93      | 26 | 85      | 43  | 8      | 5   | 77        | 33  | 16                  | 13  | 76   | 24 | 17    | 43 | 40      | 40 | 53      | 20 |
|     | Zuka                  | 126     | 35 | 34      | 17  | 92     | 56  | 65        | 28  | 61                  | 48  | 122  | 38 | 4     | 10 | 20      | 20 | 106     | 41 |
| 4   | Bietara               | 141     | 39 | 77      | 39  | 64     | 39  | 90        | 39  | 51                  | 40  | 122  | 38 | 19    | 48 | 40      | 40 | 101     | 39 |
|     | Hika                  | 29      | 8  | 24      | 12  | 5      | 3   | 22        | 9   | 7                   | 5   | 26   | 8  | 3     | 8  | 10      | 10 | 19      | 7  |
|     | Zuka                  | 205     | 57 | 90      | 46  | 115    | 70  | 119       | 51  | 86                  | 67  | 184  | 58 | 21    | 53 | 49      | 49 | 156     | 60 |
|     | Bietara               | 126     | 35 | 82      | 42  | 44     | 27  | 91        | 39  | 35                  | 27  | 110  | 34 | 16    | 40 | 41      | 41 | 85      | 33 |
| 5   | Hika                  | 45      | 17 | 36      | 42  | 9      | 11  | 28        | 27  | 17                  | 27  | 32   | 14 | 13    | 59 | 23      | 41 | 22      | 20 |
|     | Zuka                  | 76      | 46 | 26      | 30  | 50     | 62  | 38        | 37  | 38                  | 59  | 74   | 32 | 2     | 9  | 18      | 32 | 58      | 52 |
|     | Bietara               | 46      | 28 | 24      | 28  | 22     | 27  | 37        | 36  | 9                   | 14  | 39   | 54 | 7     | 32 | 15      | 27 | 31      | 28 |
|     | Erderaz               | 63      |    | 33      |     | 30     |     | 38        |     | 25                  |     | 60   |    | 3     |    | 1       |    | 62      |    |
| 6   | Ez daukat             | 130     |    | 77      |     | 53     |     | 91        |     | 39                  |     | 115  |    | 15    |    | 43      |    | 87      |    |
|     | Hika                  | 20      | 13 | 15      | 18  | 5      | 7   | 13        | 13  | 7                   | 12  | 13   | 10 | 7     | 30 | 13      | 19 | 7       | 8  |
|     | Zuka                  | 101     | 64 | 52      | 61  | 49     | 66  | 55        | 54  | 46                  | 81  | 92   | 68 | 9     | 39 | 34      | 51 | 67      | 73 |
|     | Bietara               | 38      | 24 | 18      | 21  | 20     | 27  | 34        | 33  | 4                   | 7   | 31   | 23 | 7     | 30 | 20      | 30 | 18      | 20 |
| 7   | Erderaz               | 59      |    | 32      |     | 27     |     | 33        |     | 26                  |     | 59   |    | 0     |    | 1       |    | 58      |    |
|     | Ez daukat             | 142     |    | 79      |     | 63     |     | 97        |     | 45                  |     | 125  |    | 17    |    | 32      |    | 110     |    |
|     | Hika                  | 28      | 14 | 21      | 18  | 7      | 8   | 20        | 14  | 8                   | 12  | 20   | 12 | 8     | 22 | 13      | 14 | 15      | 13 |
|     | Zuka                  | 119     | 57 | 56      | 48  | 63     | 69  | 79        | 57  | 40                  | 59  | 102  | 60 | 17    | 47 | 50      | 53 | 69      | 61 |
| 8   | Bietara               | 60      | 29 | 39      | 34  | 21     | 23  | 40        | 29  | 20                  | 29  | 49   | 28 | 11    | 31 | 31      | 33 | 29      | 26 |
|     | Erderaz               | 148     |    | 76      |     | 72     |     | 88        |     | 60                  |     | 145  |    | 3     |    | 6       |    | 142     |    |
|     | Ez daukat             | 5       |    | 4       |     | 1      |     | 5         |     | 0                   |     | 4    |    | 1     |    | 0       |    | 5       |    |
|     | Hika                  | 11      | 5  | 6       | 5   | 5      | 5   | 8         | 5   | 3                   | 4   | 6    | 3  | 5     | 14 | 6       | 6  | 5       | 4  |
| 9   | Zuka                  | 174     | 79 | 99      | 80  | 75     | 79  | 116       | 77  | 58                  | 84  | 150  | 82 | 24    | 67 | 69      | 70 | 105     | 87 |
|     | Bietara               | 34      | 16 | 19      | 15  | 15     | 16  | 26        | 17  | 8                   | 12  | 27   | 15 | 7     | 19 | 23      | 23 | 11      | 9  |
|     | Erderaz               | 138     |    | 71      |     | 67     |     | 80        |     | 58                  |     | 135  |    | 3     |    | 2       |    | 136     |    |
|     | Ez daukat             | 3       |    | 1       |     | 2      |     | 2         |     | 1                   |     | 2    |    | 1     |    | 0       |    | 3       |    |
| 10  | Hika                  | 32      | 30 | 24      | 41  | 8      | 17  | 20        | 29  | 12                  | 32  | 27   | 31 | 5     | 28 | 21      | 39 | 11      | 21 |
|     | Zuka                  | 59      | 56 | 26      | 44  | 33     | 70  | 37        | 54  | 22                  | 59  | 50   | 57 | 9     | 50 | 23      | 43 | 36      | 69 |
|     | Bietara               | 15      | 14 | 9       | 15  | 6      | 13  | 12        | 17  | 3                   | 8   | 11   | 12 | 4     | 22 | 10      | 19 | 5       | 10 |
|     | Erderaz               | 96      |    | 53      |     | 43     |     | 54        |     | 42                  |     | 95   |    | 1     |    | 4       |    | 92      |    |
| 11  | Ez daukat             | 158     |    | 84      |     | 74     |     | 109       |     | 49                  |     | 137  |    | 21    |    | 42      |    | 116     |    |
|     | Hika                  | 19      | 13 | 13      | 15  | 6      | 11  | 15        | 15  | 4                   | 9   | 16   | 14 | 3     | 11 | 13      | 20 | 6       | 8  |
|     | Zuka                  | 98      | 69 | 56      | 65  | 42     | 75  | 64        | 66  | 34                  | 76  | 79   | 69 | 19    | 70 | 39      | 61 | 59      | 76 |
|     | Bietara               | 25      | 18 | 17      | 20  | 8      | 14  | 18        | 19  | 7                   | 16  | 20   | 17 | 5     | 19 | 12      | 19 | 13      | 17 |
| 12  | Erderaz               | 128     |    | 70      |     | 58     |     | 79        |     | 49                  |     | 126  |    | 2     |    | 4       |    | 124     |    |
|     | Ez daukat             | 90      |    | 40      |     | 50     |     | 56        |     | 34                  |     | 79   |    | 11    |    | 32      |    | 58      |    |
|     | Hika                  | 18      | 18 | 15      | 27  | 3      | 7   | 14        | 19  | 4                   | 15  | 15   | 18 | 3     | 19 | 12      | 27 | 6       | 11 |
|     | Zuka                  | 65      | 65 | 31      | 56  | 34     | 76  | 46        | 63  | 19                  | 70  | 56   | 67 | 9     | 56 | 24      | 55 | 41      | 73 |
| Men | Bietara               | 17      | 17 | 9       | 16  | 8      | 18  | 13        | 18  | 4                   | 15  | 13   | 15 | 4     | 25 | 8       | 18 | 9       | 16 |
|     | Erderaz               | 95      |    | 51      |     | 44     |     | 54        |     | 41                  |     | 93   |    | 2     |    | 0       |    | 95      |    |
|     | Ez daukat             | 164     |    | 90      |     | 74     |     | 105       |     | 59                  |     | 142  |    | 22    |    | 56      |    | 108     |    |
|     | Hika                  | 12      | 8  | 10      | 12  | 2      | 3   | 9         | 9   | 3                   | 8   | 11   | 9  | 1     | 4  | 7       | 11 | 5       | 6  |
| Men | Zuka                  | 111     | 78 | 63      | 75  | 48     | 83  | 80        | 78  | 31                  | 79  | 90   | 77 | 21    | 84 | 45      | 74 | 66      | 81 |
|     | Bietara               | 19      | 13 | 11      | 13  | 8      | 14  | 14        | 14  | 5                   | 13  | 16   | 14 | 3     | 12 | 9       | 15 | 10      | 12 |
|     | Erderaz               | 122     |    | 66      |     | 56     |     | 78        |     | 44                  |     | 120  |    | 2     |    | 1       |    | 121     |    |
|     | Ez daukat             | 96      |    | 46      |     | 50     |     | 51        |     | 45                  |     | 83   |    | 13    |    | 38      |    | 58      |    |
| Men | Bai                   | 154     | 54 | 96      | 59  | 58     | 48  | 106       | 57  | 48                  | 49  | 135  | 55 | 19    | 49 | 55      | 59 | 99      | 52 |
|     | Ez                    | 78      | 27 | 36      | 22  | 42     | 34  | 49        | 26  | 29                  | 30  | 65   | 27 | 13    | 33 | 23      | 25 | 55      | 29 |
|     | Nahasian              | 52      | 18 | 30      | 19  | 22     | 18  | 32        | 17  | 20                  | 21  | 45   | 18 | 7     | 18 | 15      | 16 | 37      | 19 |
|     | Ez da bete            | 76      |    | 34      |     | 42     |     | 45        |     | 31                  |     | 75   |    | 1     |    | 7       |    | 69      |    |


### 5.3. GURASOEN EMAITZAK

Gurasoen galdekizun bat helarazi zitzairen, orriaren alde batean aitaren datuak eta bestean amarenak eskatuz. Erabilitako metodologiak, galderak ikasleen bitartez bideratzeak, zehazki, izan ditu bere alde txarrak ere. Izan ere, ez du aukerarik ematen zalantzak argitzeko eta ondorioz zenbait gaizki-ulertze sumatu ditugu. Esate baterako, “Bietara” erantzuna “hika eta zuka” bezala ulertu beharrean “euskaraz eta erderaz” gisa hartzea, edota gurasoen (gaztetxoen aitona-amonen) datuak jarri behar ziren tokian norberarenak jartzea. Behin akats hauek topatu eta identifikatu ondoren, ordea, zuzentzeko bidea aurkitu dugu gehienetan.

Aurreko puntuan 360 gaztetxoren erantzunak izan genituenez, teorian 700 inguru gurasoren erantzunak jasotzeko bidea zegoen. Nolanahi ere, **euskaraz zekiten gurasoei zuzendutako galdekizuna** izanik, eta gaztetxoen inkestan seme-alabei gaztelaniaz zuzentzen zitzaizkien 286 lagun zeudela aintzat harturik, gehienez 425 erantzun inguru jasotzeko bidea zegoela ikusi genuen. Azkenean, 305 erantzun jaso genituen, erantzuteko aukera zutenen %70 hain zuzen ere. Eta ez genuen askoz gehiago espero, egia esan, erabilitako bidea kontuan hartuta —gutun batzuk etxera iritsi ere ez zirela egingo jakinik, eta epea egun gutxi batzuetakoa izanik— zaila zelako hori baino gehiago jasotzea.




## 1- SEMEARI NOLA HITZ EGITEN DIOZU?




Zukarako joera nabarmen nagusitzen dela ikus dezakegu, baina hikaren aukeran komenigarria da gizonen eta emakumeen arteko bereizketa egitea, gizonen kasuan %15ekoa delako eta emakumeenean %3ra besterik ez delako iristen. “Hika” eta “bietara” aukeretan, baserrikoen ehunekoak altuxeagoak dira kaletarrenak baino, eta Zumaian jaiotako gurasoen datuak bakarrik hartuta —107 lagun, 56 gizon eta 51 emakume—, orokorrean baino hikarako joera zertxobait handiagoa ikusten da.

## 2. ETA ALABARI?




## 3. HIKA EGITEN BADIEZU, ZENBAT URTE ZITUZTENETIK (BATEZBESTEKOA): 8 URTE


## 4. ZUKA EGITEN BADIEZU, ZERGATIK EZ HIKA?




**5. ANAI(AR)EKIN NOLA HITZ EGITEN DUZU?**




**6. ARREB(AR)EKIN-AHIZP(AR)EKIN NOLA HITZ EGITEN DUZU?**




**7. AITAK NOLA HITZ EGITEN DIZU?**




**8. ETA AMAK?**




**9. AITONAK (AITAREN AITAK) NOLA EGITEN DIZU/ZIZUN?**




**10. ETA AMONAK (AITAREN AMAK)?**



**11. ETA BESTE AITONAK (AMAREN AITAK)?**



**12. ETA BESTE AMONAK (AMAREN AMAK)?**



| Zk.       | Aukerak    | Guztira |    | Gizonak |     | Emakum. |     | Baserr. |     | Kalekoak |     | Zumaiar. |    |
|-----------|------------|---------|----|---------|-----|---------|-----|---------|-----|----------|-----|----------|----|
| <b>0</b>  | Guztira    | 305     |    | 152     |     | 153     |     | 132     |     | 173      |     | 107      |    |
|           | Gizonezk.  | 152     | 50 | 152     | 100 | 0       | 0   | 70      | 53  | 82       | 47  | 56       | 52 |
|           | Emakum.    | 153     | 50 | 0       | 0   | 153     | 100 | 62      | 47  | 91       | 53  | 51       | 48 |
|           | Baserrikoa | 132     | 43 | 70      | 46  | 62      | 41  | 132     | 100 | 0        | 0   | 27       | 25 |
|           | Kalekoa    | 173     | 57 | 82      | 54  | 91      | 59  | 0       | 0   | 173      | 100 | 80       | 75 |
|           | Aita bas.  | 169     | 55 | 87      | 57  | 82      | 54  | 123     | 93  | 46       | 27  | 44       | 41 |
| <b>1</b>  | Aita kal.  | 136     | 45 | 65      | 43  | 71      | 46  | 9       | 7   | 127      | 73  | 63       | 59 |
|           | Ama bas.   | 178     | 58 | 92      | 61  | 86      | 56  | 122     | 92  | 56       | 32  | 48       | 45 |
|           | Ama kal.   | 127     | 42 | 60      | 39  | 67      | 44  | 10      | 8   | 117      | 68  | 59       | 55 |
|           | Hika       | 24      | 9  | 20      | 15  | 4       | 3   | 12      | 11  | 12       | 8   | 10       | 11 |
|           | Zuka       | 173     | 67 | 72      | 55  | 101     | 78  | 67      | 59  | 106      | 72  | 61       | 66 |
|           | Bietara    | 63      | 24 | 38      | 29  | 25      | 19  | 34      | 30  | 29       | 20  | 22       | 24 |
| <b>2</b>  | Ez daukat  | 45      |    | 22      |     | 23      |     | 19      |     | 26       |     | 14       |    |
|           | Hika       | 15      | 6  | 11      | 9   | 4       | 3   | 7       | 7   | 8        | 6   | 5        | 6  |
|           | Zuka       | 191     | 78 | 88      | 72  | 103     | 84  | 72      | 71  | 119      | 83  | 67       | 78 |
|           | Bietara    | 40      | 16 | 24      | 20  | 16      | 13  | 23      | 23  | 17       | 12  | 14       | 16 |
|           | Ez daukat  | 57      |    | 28      |     | 29      |     | 29      |     | 28       |     | 20       |    |
|           | Noiztik    | 8       |    | 8       |     | 9       |     | 9       |     | 8        |     | 8        |    |
| <b>3</b>  | Ohitura    | 148     | 58 | 77      | 64  | 71      | 53  | 76      | 70  | 72       | 49  | 53       | 60 |
|           | Niri hala  | 66      | 26 | 29      | 24  | 37      | 27  | 22      | 20  | 44       | 30  | 26       | 29 |
|           | Mender. ez | 22      | 8  | 5       | 4   | 17      | 13  | 4       | 4   | 18       | 12  | 5        | 6  |
|           | Beste arr. | 20      | 8  | 10      | 8   | 10      | 7   | 7       | 6   | 13       | 9   | 4        | 5  |
|           | Hika       | 131     | 54 | 74      | 60  | 57      | 48  | 80      | 68  | 51       | 41  | 35       | 40 |
|           | Zuka       | 85      | 35 | 36      | 29  | 49      | 41  | 26      | 22  | 59       | 47  | 42       | 48 |
| <b>4</b>  | Bietara    | 27      | 11 | 13      | 11  | 14      | 12  | 12      | 10  | 15       | 12  | 10       | 11 |
|           | Erderaz    | 25      |    | 11      |     | 14      |     | 2       |     | 23       |     | 7        |    |
|           | Ez daukat  | 35      |    | 16      |     | 19      |     | 11      |     | 24       |     | 13       |    |
|           | Hika       | 103     | 45 | 56      | 48  | 47      | 42  | 67      | 57  | 36       | 32  | 28       | 36 |
|           | Zuka       | 93      | 41 | 45      | 39  | 48      | 43  | 29      | 25  | 64       | 58  | 41       | 53 |
|           | Bietara    | 32      | 14 | 15      | 13  | 17      | 15  | 21      | 18  | 11       | 10  | 8        | 10 |
| <b>5</b>  | Erderaz    | 27      |    | 12      |     | 15      |     | 3       |     | 24       |     | 8        |    |
|           | Ez daukat  | 49      |    | 23      |     | 26      |     | 12      |     | 37       |     | 22       |    |
|           | Hika       | 90      | 35 | 59      | 43  | 31      | 26  | 52      | 44  | 38       | 28  | 26       | 27 |
|           | Zuka       | 145     | 57 | 64      | 47  | 81      | 69  | 52      | 44  | 93       | 68  | 65       | 68 |
|           | Bietara    | 19      | 7  | 13      | 10  | 6       | 5   | 14      | 12  | 5        | 4   | 4        | 4  |
|           | Erderaz    | 23      |    | 5       |     | 18      |     | 2       |     | 21       |     | 4        |    |
| <b>6</b>  | Ez daukat  | 27      |    | 10      |     | 17      |     | 12      |     | 15       |     | 8        |    |
|           | Hika       | 60      | 23 | 40      | 30  | 20      | 16  | 31      | 27  | 29       | 20  | 20       | 21 |
|           | Zuka       | 177     | 69 | 81      | 61  | 96      | 77  | 71      | 63  | 106      | 74  | 70       | 74 |
|           | Bietara    | 20      | 8  | 12      | 9   | 8       | 6   | 11      | 10  | 9        | 6   | 4        | 4  |
|           | Erderaz    | 26      |    | 11      |     | 15      |     | 3       |     | 23       |     | 8        |    |
|           | Ez daukat  | 35      |    | 16      |     | 19      |     | 11      |     | 24       |     | 13       |    |
| <b>7</b>  | Hika       | 34      | 24 | 25      | 34  | 9       | 13  | 21      | 33  | 13       | 16  | 13       | 23 |
|           | Zuka       | 110     | 76 | 48      | 66  | 62      | 87  | 42      | 67  | 68       | 84  | 44       | 77 |
|           | Erderaz    | 19      |    | 7       |     | 12      |     | 3       |     | 16       |     | 4        |    |
|           | Ez ezagutu | 141     |    | 71      |     | 70      |     | 66      |     | 75       |     | 46       |    |
|           | Hika       | 24      | 15 | 19      | 23  | 5       | 6   | 14      | 19  | 10       | 11  | 7        | 11 |
|           | Zuka       | 138     | 85 | 64      | 77  | 74      | 94  | 60      | 81  | 78       | 89  | 54       | 89 |
| <b>8</b>  | Erderaz    | 22      |    | 10      |     | 12      |     | 3       |     | 19       |     | 7        |    |
|           | Ez ezagutu | 120     |    | 58      |     | 62      |     | 55      |     | 65       |     | 39       |    |
|           | Hika       | 31      | 23 | 22      | 31  | 9       | 14  | 17      | 33  | 14       | 16  | 9        | 16 |
|           | Zuka       | 105     | 77 | 49      | 69  | 56      | 86  | 34      | 67  | 71       | 84  | 46       | 84 |
|           | Erderaz    | 15      |    | 8       |     | 7       |     | 1       |     | 14       |     | 4        |    |
|           | Ez ezagutu | 153     |    | 72      |     | 81      |     | 80      |     | 73       |     | 48       |    |
| <b>9</b>  | Hika       | 20      | 12 | 13      | 16  | 7       | 8   | 10      | 15  | 10       | 10  | 9        | 15 |
|           | Zuka       | 143     | 88 | 67      | 84  | 76      | 92  | 55      | 85  | 88       | 90  | 50       | 85 |
|           | Erderaz    | 20      |    | 9       |     | 11      |     | 1       |     | 19       |     | 5        |    |
|           | Ez ezagutu | 121     |    | 62      |     | 59      |     | 66      |     | 55       |     | 43       |    |
|           | Hika       | 24      | 15 | 19      | 23  | 5       | 6   | 14      | 19  | 10       | 11  | 7        | 11 |
|           | Zuka       | 138     | 85 | 64      | 77  | 74      | 94  | 60      | 81  | 78       | 89  | 54       | 89 |
| <b>10</b> | Erderaz    | 22      |    | 10      |     | 12      |     | 3       |     | 19       |     | 7        |    |
|           | Ez ezagutu | 120     |    | 58      |     | 62      |     | 55      |     | 65       |     | 39       |    |
|           | Hika       | 31      | 23 | 22      | 31  | 9       | 14  | 17      | 33  | 14       | 16  | 9        | 16 |
|           | Zuka       | 105     | 77 | 49      | 69  | 56      | 86  | 34      | 67  | 71       | 84  | 46       | 84 |
|           | Erderaz    | 15      |    | 8       |     | 7       |     | 1       |     | 14       |     | 4        |    |
|           | Ez ezagutu | 153     |    | 72      |     | 81      |     | 80      |     | 73       |     | 48       |    |
| <b>11</b> | Hika       | 20      | 12 | 13      | 16  | 7       | 8   | 10      | 15  | 10       | 10  | 9        | 15 |
|           | Zuka       | 143     | 88 | 67      | 84  | 76      | 92  | 55      | 85  | 88       | 90  | 50       | 85 |
|           | Erderaz    | 20      |    | 9       |     | 11      |     | 1       |     | 19       |     | 5        |    |
|           | Ez ezagutu | 121     |    | 62      |     | 59      |     | 66      |     | 55       |     | 43       |    |
|           | Hika       | 24      | 15 | 19      | 23  | 5       | 6   | 14      | 19  | 10       | 11  | 7        | 11 |
|           | Zuka       | 138     | 85 | 64      | 77  | 74      | 94  | 60      | 81  | 78       | 89  | 54       | 89 |
| <b>12</b> | Erderaz    | 22      |    | 10      |     | 12      |     | 3       |     | 19       |     | 7        |    |
|           | Ez ezagutu | 120     |    | 58      |     | 62      |     | 55      |     | 65       |     | 39       |    |
|           | Hika       | 31      | 23 | 22      | 31  | 9       | 14  | 17      | 33  | 14       | 16  | 9        | 16 |
|           | Zuka       | 105     | 77 | 49      | 69  | 56      | 86  | 34      | 67  | 71       | 84  | 46       | 84 |
|           | Erderaz    | 15      |    | 8       |     | 7       |     | 1       |     | 14       |     | 4        |    |
|           | Ez ezagutu | 153     |    | 72      |     | 81      |     | 80      |     | 73       |     | 48       |    |
| <b>12</b> | Hika       | 20      | 12 | 13      | 16  | 7       | 8   | 10      | 15  | 10       | 10  | 9        | 15 |
|           | Zuka       | 143     | 88 | 67      | 84  | 76      | 92  | 55      | 85  | 88       | 90  | 50       | 85 |
|           | Erderaz    | 20      |    | 9       |     | 11      |     | 1       |     | 19       |     | 5        |    |
|           | Ez ezagutu | 121     |    | 62      |     | 59      |     | 66      |     | 55       |     | 43       |    |
|           | Hika       | 24      | 15 | 19      | 23  | 5       | 6   | 14      | 19  | 10       | 11  | 7        | 11 |
|           | Zuka       | 138     | 85 | 64      | 77  | 74      | 94  | 60      | 81  | 78       | 89  | 54       | 89 |




## Transmisioaren galera

Hurrengo taularen bitartez belaunaldi batetik bestera transmisioan egon den galera aztertzen saiatuko gara. Horretarako, honako datu hauek erkatu ditugu: batetik, inkesta hau bete duten gurasoek seme-alabei nola egiten dieten; eta bestetik, gurasoen gurasoek beraiei nola egiten dieten/zieten.

Konparaketa honen helburua ez da galera zehazki kuantifikatzea, aintzat hartu behar baita populazioa desberdina dela —hainbat gurasori gaztelaniaz zuzentzen zaizkie/zitzaizkien eta beraiek seme-alabei euskaraz— eta gainera ez baita ahaztu behar seme-alabek 15 urte baino gutxiago dituztela eta behin betiko tratamendua finkatu gabe egon daitekeela; esate baterako, orain bietarakoa dena gero hikakoa bihur liteke.

|                      | HIKA  |       | ZUKA  |       | BIETARA |       |
|----------------------|-------|-------|-------|-------|---------|-------|
|                      | Lehen | Orain | Lehen | Orain | Lehen   | Orain |
| <b>Aitak semeari</b> | %43   | %15   | %47   | %55   | %10     | %29   |
| <b>Aitak alabari</b> | %26   | %9    | %69   | %72   | %5      | %20   |
| <b>Amak semeari</b>  | %30   | %3    | %61   | %78   | %9      | %19   |
| <b>Amak alabari</b>  | %16   | %3    | %77   | %84   | %6      | %13   |



Azken belaunaldiarekiko transmisioan, “orain” izenburupean azaltzen den horretan, erlazio mota guztietan hikaren kasuan beherakada nabarmena egon dela argi ikus daiteke. Nolabait, esan daiteke galera handia egon dela belaunaldi batetik besterako transmisioan, baina grafikoak ageri duena baino txikiagoa izan daiteke galera, “bietara” aukera hainbeste hazteak tratamendua erabat finkatu gabe dagoela adieraz baitezake.

## **Ondorio nagusiak**

Datu, grafiko eta taula guztiak aztertu ondoren, ondorio nagusi hauek atera ditzaket:

- ◆ Gurasoek seme-alabei hika egiteko ohitura handirik ez dute, are eta gutxiago alabari zuzentzerakoan.
- ◆ Gizonek emakumeek baino gehixeago egiten diete hika beren seme-alabei, baina ez dago alde handirik baserrikoen eta kalekoen artean, baserrikoek bietara egiteko duten joera handiagoa ez bada.
- ◆ Seme-alabari hika egiten hasteko batez besteko adinak —8 urte— haur oso txikiei ia erabat zuka egiten zaiela erakusten du.
- ◆ Seme-alabei zuka egiten dieten gehienek ohitura kontuagatik jokatzten dute horrela eta batzuek agertutako iritziek hiketaren alde ez dagoen jende asko dagoela erakusten dute.
- ◆ Anai-arreben arteko harremanetan hitanoa nagusitzen da eta familiarteko tratamendua dela frogatzen da.
- ◆ Gurasoen aita eta amek zuka egiten diete gehienbat hauei, are gehiago solaskidea alaba denean. Aitek hiketarako joera handiagoa dute amek baino.
- ◆ Aitona-amonei buruz ere gauza bera esan daiteke, baina azpimarragarria da biloba neskei zer gutxi egiten zaien hika.
- ◆ Baserrikoen artean familia-giroan hiketarako joera askoz handiagoa dago kalekoen artean baino, eta zumaiarren artean gutxiago egiten da hika etxean, kanpokoan artean baino.
- ◆ Eta ondorio nagusia, belaunaldi batetik besterako transmisioan galera garrantzitsua egon da, hau da, azken belaunaldian hitanoa aurrekoan baino askoz gutxiago transmititu da.

# VI.

## HITANOA

### NOLA BULTZATU?

#### HI HINTZENA

##### Hi hintzena

bi arrasto zaharren gurutzaketa  
galdu da, galdu **haiz**  
hautsi da ANPHORA  
eta mila ispilutan multiplikatua  
ez **haiz**  
azken irudi ezabatua baino  
ilunaz zipriztinatuz bekokia  
eta hausterrez  
laberintoaren harri txintxarretan  
zauritzen **hire** oin birjinak.

**Bernardo Atxaga**  
*Etiopia*

## 6. HITANOA NOLA BULTZATU?

Atarikoan aipatu dugu zein den lan honen xedea, proiektu baten bitartez helburu orokor hau landu nahiko lukeena: hitanoa bultzatu, haren irudi ona zabaltu, erabilera handitu... esparru guztietan.

Zumaiak badu abantaila bat beste herriekiko: diagnostikoa badu, erabilera ohiturak zehaztuta, bertako adizkiak jasota eta, garrantzitsuena, egoera horri buelta emateko borondatea Udalaren, ikastetxeen eta zenbait pertsonaren aldetik.

Hitanoa ikastetxeetako irakasgaietan txertatzea izan da helburuetako bat, eta pare bat ahalegin egin dira horretarako. Azkena **eztabaida-talde moduko bat** antolatu zuen Udalak 2008ko maiatzean, eta ikastetxeetako hiru ordezkari (normalizazio kontuetan dabiltzanak) eta hitano ikastaroak ematen dituzten beste hiru irakasle bildu ziren, euskara-teknikariarekin batera. Denak ez zeuden gauza guztietan ados (esaterako, eredutzat euskalkia ala batua hartu beharko litzateke?), baina beste batzuetan bai. Materialari buruz hitz egiteko bilera zen batez ere, baina gaia askoz zabalago aztertu zuten.

### 2008-05-07ko bileran aztertutakoak

#### MATERIALAREN HELBURUA NAGUSIA ETA GAINERAKOAK

- Ume eta gaztetxoek hitanoa hobetzen saiatzea, ikastetxeetan oinarri bat emanda.
- Hika egiten badakiten gurasoek seme-alabekin erabil dezaten bultzatzea, zenbaitentzat duen ospe txarra neutralizatzen saiatzea.
- Gazteek, DBHkoek zein helduagoek, hika hobeto egin dezaten sustatzea.

#### ADIN-TARTEA

- Lehen Hezkuntza osorik hartzea iruditzen zaigu egokiena, 6 urtetik aurrera hasten direlako erabiltzen. Hasieran zertzelada batzuk bada ere eman beharko lirateke.
- DBHrako ere zerbait prestatzea ere merezi du, giltzarria da, orduantxe nahasten direlako herriko gazteak inguruko beste batzuekin, eta koadrilak ere finkatzen hasten direlako.

#### ORDU-KOPURUA

- Ikasturte bakoitzean 4-8 ordu hartuko lirateke gehienez, txikienen mailan beharbada gutxiago. Zerbait malgua izan daiteke, aukeren arabera egokitzeko modukoa.

#### EDUKIAK

- Hasieran ahozko erabileran oinarritutako planteamendua egin beharko litzateke, taulak eta antzekoak saihestuta: antzezlan laburrak, role-playing, elkarrizketak...
- DBHn egin daiteke zerbait analitikoagoa, landuagoa.
- Eskaini beharreko ereduari dagokionez, hasieran herriko hizkeran oinarritutakoa ematea ikusi da egokien, baina euskara gutxi dakienarentzat ondo etor liteke abiapuntua batua izatea. Tauletan elkarren ondoan eman daitezke batua eta herrikoa.
- Interesgarria litzateke herrian dagoen materiala aztertu eta erabiltzea: grabazioak, etab. Zinta eta bideo batzuk badaude.

## MATERIAL MOTA

- Oinarria: unitate didaktikoak (maketatuta), paperean, baina bestelako euskarriak ere baliatuta: komikiak, audio-grabazioak, bideoak...
- Teknologia berriak baliatzeko aukera hor dago: blog moduko bat, irratian elkarrizketak...
- Gurasoentzat esku-orriak eta/edo kartelak egin beharko lirateke, transmisioaren garrantzia azpimarratzeko.
- Ikasleei eska dakieke gurasoei, aitona-amonei edo hika egiten duen jendeari grabazioak egiteko.
- Irakaslearentzat laguntzarako eskuliburu moduko bat egin beharko litzateke.
- Beste herrietan erabiltzeko modukoa izan daiteke: eskualdeko herrietan, etab.

## BESTELAKO OHARRAK

- Materialarekin bakarrik ezinezkoa da horrelako kontu bat bultzatzea. Gaiarekin proiektua landu behar da, produktuarekin batera. Ikastorduetatik kanpo erabiltzen da hitanoa, errekreotan eta kolean, lagun artean, eta hor eragiteko bestelako neurri eta ekintza bultzatu behar dira.
- Proposamen batzuk: lehiaketa modukoak egin daitezke (tabernetan AEK-k egiten zituen galderak bezalakoak), gidoiak eginarazi eta emanaldiak antolatu... Bertsolaritzako jarduerak, antzerkia eta antzekoak erabil daitezke. Ahozko kontuei eman behar zaie garrantzi berezia.
- Herri hizkerarekin oso lotura estua duen kontua da, eta planteamendu orokorragoa egin beharko litzateke, Zumaiaiko hizkera bera ere ikastetxeetan landu.
- Ikastetxe osoa hartu behar da, komunitate bat bezala: ikasleak, irakasleak, beste langileak eta gurasoak daude hor. Ikastetxean bertan ekintza osagarriak antola daitezke, dinamizatzailerik baten bidez...
- Irakasleei gai hau ondo azaldu behar zaie, ez materiala besterik gabe eman.

**Unitate didaktikoak** eta **materiala** sortzeari dagokionez, gaur egungo ikuspegitik, ezingo gara eskolara mugatu, guztiontzat beharko dugulako. Bestela, euskararekin gertatzen den bezala, hitanoa hizkuntza akademikoa izango da askorentzat, eskolan ikasten eta erabiltzen dena, baina hortik kanpo ez. Oinarri bat prestatu beharko litzateke, sendoa, teoria eta ariketak uztartzen dituen, eta material hori egokitu nori eman behar zaion kontuan hartuta: helduak, haurrak, irakasleak, dendariak, langileak, funtzionarioak... Funtsezkoa da bakoitzari ahalik eta eredu errealean ematea, eguneroko egoera eta hitzekin<sup>60</sup>. Izan liteke "Lanean hika", "Eskolan hika", "Kirolean hika", "Familian hika", "Salerosketa hika", etab.

### Hiru proposamen sorta interesgarri

Bileran azaldutako kezkei erantzun nahi diet atal honetan, produktuak eta baliabideak baztertu gabe, batik bat gaia proiektu gisa landu ahal izateko oinarri batzuk jarri. Proiektu horretan esparru bat baino gehiago hartu behar dira aintzat, irakaskuntzarekin itsutu gabe. Ikuspegi horrekin bat datozen hiru teknikari edo irakasleren proposamenak ekarri nahi ditut hurrena.

Bergarako euskara-teknikari Estepan Plazaola, herriko berbeta bultzatzeko proposamenak eginez (Plazaola, 2009):

<sup>60</sup> Herriko adizkiak ez dira faltako, 2000ko Hitanoa Zumaian liburuan jasota daudelako, eta oso lagungarri izango dira Baleike aldizkarian agertu izan diren elkarrizketak (adineko jendeari, Abelin Linazisorok) eta [www.ahotsak.com/zumaia](http://www.ahotsak.com/zumaia) atalean jasotakoak.

- *Ahozkoaren lanketaz jantzi beharra*

Ahozko berbeta hobetzeko, ahozko langaiak, ahozko elikagaiak, behar ditugu eta horrek orain artekotik aldaketa sakona eskatzen du. Oraindik ere eskolako jardun nagusia paperaren gainean eraikita dago: idatziz egiten dira eskolako lanketak eta idatziz egiteko lanak izaten dira etxerako agintzen diren gehien-gehienak. Zalantzarik barik eskolak izango ditu hor bere mugak (talde handiak, denbora...) baina, mugak muga, ahozkoaren protagonismoa indartzen ahalegindu beharko genukeelakoan nago (...)

- *Baliabide indartsuagoak behar ditugu. IKT eta Hedabideak...*

Gorago esan bezala, elikabideetan ikaragarritzko desoreka dugu: teknologia berrietan, hedabideetan... Ezinezko izango dugu hori guztiz orekatzea baina gehiago baliatu behar genituzke; ezin dugu paperezko zerrendatxoekin gaztelaniarekin lehiatu... Guk ez dugu beste aukerarik: software librearen filosofia gureganatu eta kontsumitzaileok ere sortzaile bihurtu: *prosumidore* izan. Umeei, gazteei, gurasoei... protagonismoa eskaini behar genieke: sortzaile izanik, gozatzeko aukerak eman. Teknologia berriek aukera bikainak eskaini diezazkigukete, adibidez, ahozko euskararen ereduak zein ahozko euskara lantzeko ariketak edozeinek klik batez eskuratzeko eta baita gutariko bakoitzak ere bere ekarpenak egiteko. Era berean, tokiko hedabideei, bereziki tokiko telebistei, etekina zela atera diezaiekegun ere aztertu beharko genuke, gaur egun gazteek oso presentzia txikia baitute.

**IDEIAK:**

- **Sare sozialen aplikazioak** euskaratu eta bultzatu eta bertan euskarazko lagunarteko hizkerako esamoldeak txertatu.
- **Umeentzako telebista programa** parte-hartzailea sortu.
- **Gaztetxo eta gazteentzako programa** interaktibo eta parte-hartzailea sortu, bereziki umorea eta hizkera ludikoa oinarri izango lukeena.
- **Gazteei bideratutako “komunikatzaile-eskola”** sortu, gero onenak tokiko hedabideetan erabiltzeko.

Lehen ere aipatutako Joxerra Garziak, euskararen kalitateaz esan zituztenak (Euskararen Aholku Batzordea, 2004) pixka bat gehiago zehazten ditu, euskara komunikatiboagoa lortzeko asmoa (Garzia, 2004b):

- Minbizia bada minbizia, azter dezagun gaixoa ondo, eta onar dezagun gaitza. Baina ez diezaiogun minbiziari katarro deitu, aspirinaz sendatuko dugulakoan baboarena baizik ez dugu-eta egingo.

**Familia eta berezko ingurunea**

- Mendez mende, familia eta berezko ingurunea izan dira euskararen belaunez belauneko transmisioa bermatu dutenak. (...)
  - Premiazkoa da, beraz, euskararen euskarrik sendoenak diren familia eta berezko inguruneak babestea eta sendotzea. (...)
  - Gurasoengandik seme-alabenganako hizkuntz transmisioan eten nabarmena gertatu da.(...)
- Premiazkoa da, beraz, jokabide hori irauli eta norberaren hizkuntz ondarearen transmisioak duen garrantziaz jabetuaraztea, euskaldunen bat dagoen familietan euskararen berezko transmisio hori segurtatzeko.

**Hezkuntza sistema**

- Hizkuntzaren ikasketa zuzentasun hutsetik egituratzen bada, ezinezkoa da ikasleengan motibaziorik sortzea. (...)
- Egoera komunikatiboak sortu, egoera bakoitzari xede bat jarri, eta xede hori (emozioak eragitea) nola lortu. Horrek behar luke eskola jardunaren ardatz. Axola zaion egoera batean, ikasleak berak eskatuko ditu behar dituen tresnak, direla paradigmak edo gainerako baliabideak. Baina axolako xede bat izateak baino ez dezake motibazioa berma.
- Esan dugun horrek badu beste ondorio bat ere. Lagun arteko hizkera, argotak eta jergak, ez dira zuzenean eskolaren langai.
- Egoera komunikatibo estandar formalizatu samarrak egokitasunaren ikuspegitik landuta, ordea, ikasleak gaituago egongo dira gero, antzekotasunez bada ere, egoera ez-formaletan estrategia egokiak aurkitzeko.
- Araua haustetik sortzen dira argotak eta jergak, baina araua ezagutzea ezinbesteko baldintza da horretarako, eta hori da eskola sistemaren funtzio nagusia.
- “Ez dugu ahaztu behar norma eta hizkuntza bizia etsai direla” (I. Sarasola).

- Hizkuntza tresna moduan egoki erabiltzen ez dakien ikaslearentzat, alferrikakoa ez ezik amorragarria eta etsipengarria ere bada menderatzen ez duen tresna horri buruzko goi mailako teorizazioan jardun beharra. Fonetika, dialektologia eta abarrak unibertsitaterako uztea hobe da, beraz. Asumitu beharra dago Euskal Herriak hizkuntzari dagokionez bizi duen egoera ez normala. Gainerakoa, ostrukaren estrategia da, edo umearena: arriskuaren aurrean begiak itxi, eta horrenbestez arriskua desagertzen dela uste izatea, alegia.

### **Hedabideak**

- Eskolak ez bezala, hedabideek erregistro bat baino gehiago lantzeko aukera dute, eta baliatu behar lukete, horretarako daude-eta, besteak beste, generoak.
- Horretara jarri izan diren apurretan, garbi geratu da hedabideek duten eragina: “Hori egina zagok”, “Hoa portzulo hartzera”, fortuna handia egin duten esapideak dira. Gutxitxo, hala ere, hedabideek dezaketenerako.
- Oro har, erregistro berdinegiak erabiltzen dira genero guztietan eta, eraginkortasuna nahi denean, gaztelerara jotzen da sarriegi.

### **Teknologia eta hedabide berriak**

(...)

- Teknologia eta hedabide berrietan funtsezkoa izango da euskarazko produktu eta zerbitzuak eskuragarri eta erakargarriak izatea. Horretarako, ordea, euskarazko edukiak ugaritu eta ezagutarazi behar dira, haien kontsumoa bideratu eta bultzatuz. (...) Programa horretaz —eta, oro har, teknologia berriez— arduratzen direnek behin eta berriz aipatzen dute teknologia berriotan sartzen diren edukiak ezin direla izan paper euskarrikoen kalko, kopia edo eskaner huts, euskarri bakoitzak bere formatu propioa eskatzen duela, bertan jartzen diren edukiak eraginkor izango badira. Mezua euskarriari egokitu behar horretan, ordea, sekulako garrantzia dute erabiltzen diren hizkera eta erregistroek, eta hori, tamalez, gutxitxo aipatzen da teknologia berriak ezarrieta kudeatzeko ardura dutenen artean. (...)

Eta bukatzeko, Kike Amonarrizen proposamen batzuk XXI. mendeko euskaldunei laguntzeko (Amonarriz, 2009):

- Garrantzitsua da, ikuspegi eta eduki soziolinguistikoak txertatzea euskararen irakaskuntzan, bizi dugun egoera interpretatu ahal izateko eta euskararen aldeko jarrerak lantzeko. Baita sormen linguistikoa bultzatzeko, edo hizkera, euskalki eta erregistro desberdinen ezaugarriak eta funtzioak berezitu eta modu egokian erabiltzen ikasteko. Jarrera hau, bestalde, gizarte mailan ere errotu eta hedatu beharko litzateke.
- Ona litzateke, “Egokitasunean” eta komunikazioan oinarrituriko planteamenduaren barruan erregistroak erabiltzen erakustea, eta hizkuntzaren alderdi ludikoa lantzea, ahozketasunari garrantzi handiagoa emanez.
- Euskalkien oinarritzko ezagupena zabaltzeko behar da ikasle guztien artean, ikasketa honen bidez, hainbat eremutako ikasleen arteko harreman-sareak osatuz.
- Irakurzaletasuna bultzatu beharko litzateke, hizkuntzaren ezagupena hobetzeko eta kode idatzi formalean trebatzeko.
- Hedabideek estandarren garapenean eta finkaketan duten garrantzia zein den jakinik, modua bilatu beharko litzateke, berauen papera eta funtzioak onar ditzaten eta hizkuntza eredu egokiak eta erreferentzialak gizartera ditzaten.
- Administrazioetik eta Udaletatik bereziki, haur eta gazteen eremu hurbilak euskalduntzera zuzenduriko egitasmoak sustatu eta indartu beharko dira, berauetan ere hizkera adierazkorren inguruko irizpideak erabil daitezzen ahaleginduz.

## 6.1. Esparru garrantzitsu batzuk

### FAMILIA (TRANSMISIOA)

4. eta 5. ataletan argi geratu da transmisioa giltzarri dela hika erabiltzeko orduan eta zerikusi handia duela haren kalitatean ere. Bat egiten du iritzi horrekin Ibon Manterola hizkuntzalari zumaiaarrak ere (Baleike aldizkariaren 104 zk., 2002):

Adibidez, *Hondartza lepoaño beteta zeon*, hika esateko, zenbat gaztek esango luke *Hondartza lepoaño beteta ziuan?* Edo beste hau: nola esango genuke esaldi hau hitano forma erabilia? *Kuadrillakuak paolian zeuden euriya hasi zunian*. Iruditzen zait gutxik esango lukela *Kuadrillakuak paolian zibitian euriya hasi zunian*. *Ziuan*, *zibitian*, *natxitorrek*, *natxibillek*, *gitxikian*, *nitxizkian*, eta abar. Zerrenda izugarri luza daiteke, **gazte gehienok Zumaian hika nola egin izan den eta nola egiten den ez dakigulako**.

Eta zergatik ez ditugu ba *zibitian*, *natxitorrek* eta konpainia ezagutzen? Galdera ona! (...)

Kontuan hartzen **badugu etxea edo familia dela hizkuntza bat ikasteko eremu garrantzitsuena**, edo behintzat, garrantzitsuenetako bat (kalean eta eskolan ere asko ikasten dugu, bai), nola ezagutuko dugu ba Zumaia hitanoa gurasoek ez badigute hika hitz egiten? Hortxe dago koxka! (...)

Orduan, arazoa, betikoa, transmisioa, etxea... **Noiz konturatuko gara euskararen sua pizteko eta mantentzeko txinparta eta hauspoa etxea, familia dela!**

2009an familia-transmisioaren gaia aztertzeko elkartu dira Gipuzkoako euskara-teknikariak eta beste batzuk, eta gaia jorratzeko hainbat esperientzia aurkeztu dituzte bertan<sup>61</sup>. Hitanoa etxean eta familian bultzatzeko, ez zait iruditzen nahitaez aparteko ekintzak eta jarduerak antolatu beharko lirakeenik, askotan nahikoa izango delako lehendik aurreikusi daudenetan hitanoaren puntua txertatzea: gurasoei aholkuak emateko orduan, etxeko euskara bultzatzerakoan, hitzaldietan...

### IRAKASKUNTZA

Estepan Plazaolaren proposamenetan ikusi dugu Deba arroan badaudela ekimen batzuk herriko hizkera ikastetxeetan bultzatzeko. Mendebalde kultur alkartean ere askotan jorratu duten gaia da, eta Juan Luis Goikoetxeak eta Iñaki Gamindek hainbat proposamen eginak dituzte. Goikoetxeak berak, gainera, lan mardula argitaratua du gaiari buruz (Goikoetxea, 2003).

Ikastolen Elkartek ere heldu izan dio gaiari, eta artean proiektu edo langai zela, honakoa zioen Erramun Osak (erabili.com, 2003-06-05):

- Alta, gazteen artean euskarak izan duen bilakaeren kontrapuntu gisa, erabiltzen den hizkuntz eredua jarri beharko genuke. Izan ere, hizkuntz ereduak euskararen aldaerekin, tokian tokiko aldaerekin, egoera “naturalean” eskusibotasunez edo nagusitasunez hitz egiten denarekin alderatzen badugu geroz eta deslotuago azaltzen baita, horrek dakarren guztiarekin, aldaerak bizirik egon ohi diren ohiko guneetatik eta hizketa interakzioetatik aldentzea, eskolaz kanpoko hizkuntzaren erabilera eraginez (Zalbide, 1998; Zuazo, 2001). Halaber, gazteen artean euskararen erabilera indartzeko bestelako aldaerak (argota, hitanoa, etab) sailkatzea eta kontuan hartzea garrantzi handiko kontuak dira. Izan ere, euskara egokia eta une egokian erabiltzeko gai ez den hiztunak ez du komunikaziorik lortuko, ez du hizkuntza erabiliz gozatuko, eta, azken batean, euskara bazterrean utzita beste hizkuntza batez baliatuko da.

2009an argitara eman du *Ikastolen hizkuntz proiektua* izenekoa, eta Euskaltzaindiarekin elkarlanean beste lan interesgarri batean ere parte hartu zuen, 2008an: *Zenbait orientabide erregistroen trataeraz*. Orientabide horiek Euskaltzaindiaren 137. arauan jasotzen dira, eta Irakaskuntzari lotutakoak ikusiko ditugu:

4.1. Euskalkiek euren nortasuna dute, eta hezkuntzan jagon egin behar dira euren

<sup>61</sup> Material ugari dago eskura [www.udaltop.com](http://www.udaltop.com) helbidean.



osagai esanguratsuak nahiz hizkuntzan betetzen duten funtzioa, betiere idatzizkoaren eta ahozkoaren arteko desberdintasuna kontuan hartuz eta batasunerako arauak betez.

4.2. Lagunarteko hizkera –gehientsuenean behinik behin–, euskalkian edo azpieuskalkian oinarritzen dela gogoratu behar da; eta landua, oster, euskara batuan edo euskalkiaren erabilera landuan. Horrenbestez, hezkuntza-komunitateak, egoeraren arabera, beharko du bideratu hezkuntza-prozesu bakoitzari dagokion erregistroa, batez ere lexikoan eta esapideetan.

4.3. Irakasleak hezkuntza-jardunean aritzeko, gomendagarria da hizkera landuaren eta lagunartekoaren jakitun egotea. Horrela, lagundu ahal izango dio ikasleari hizkuntzaren erregistroen erabilera-esparruetan. Horretarako ere, ezinbestekoa da irakasleen berariazko trebakuntza.

4.4. Umeei dagokienez, Euskal Herriko haurren jatorrizko hizkuntza aintzat hartuta –betiere helburua euskaldun osoak sortzea izanik–, metodoaren aldetik, hots, ikasgela eta ikasmultzo berean jardunik, guztiz mesedegarria da haurren hizkuntza-gaitasunaren araberrako jardunbideak lantzea.

Unitate didaktikoak aipatu ditugu atalaren hasieran, baina horrekin batera nahitaezkoa da irakasleak trebatu eta nolabait inplikatzeko ere. Bat dator horrekin Erramun Osa, gazte hizkerari buruzko jardunaldietan (Urtxintxa Eskola, 2005):

- Garai batean eskola batua eta eredu jakin batekin lotu dugu eta ez beste erregistro batzuekin. Hitanoa bultzatu nahi badugu ezin ditugu begirale batzuk hor zehar hitanoa hitz egiten jarri, era sistematikoan egin behar da, lehenik eta behin pertsonak egituratu eta baliabideak eman, espazioak irabazteko ahalegin bat egin behar da eragin mugatua izan ez dezan. Beti dugu eskoletan zein erregistro noiz eta nola lantzeko eztabaida. Etorkizunerako begirale eta irakasleak prestatu behar dira ikas materialetan eragin izan dezan.

Eskolak ahozkotatasuna behar baino gutxiago landu du azken bi-hiru hamarkadetan, eta hori konpondu nahian ikastetxe ugari ari dira Bertsozale elkartearen bitartez AHOZKOTASUNAREN PROIEKTUA lantzen. Gipuzkoan oso errotuta dago, eta Zumaian bertan Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetak 6 taldeetan ematen da. Hitanoa bizirik dagoen eskualdeetan, aztertzeko kontua iruditzen zait gai horretan ere tratamenduak aztertzea, bertsoak baliabide politak izan daitezkeelako horretarako; adibide batzuk ikusiko ditugu hurrengo puntu batean. Materiala sortzeko orduan, Bertsozale Elkarrekin landutako *Esan ahala* eta *Gu ere bertsolari* kontuan hartzeko ereduak izan daitezke. Bertsolaritza beste aukera ona da hitanoa lantzeko, eta bertsolari gazteak laguntzaile onak izan daitezke, behar den neurrian trebatuz gero.


Ikastetxe askotan landu da, era berean, LAGUN ARTEKO HIZKERA, Ttakun edota Urtxintxa elkartearen bitartez. Beste aukera bat irekitzen digute, irakasleek ezin dutenean kanpoko laguntzaileak prest egon daitezkeelako (Goierriko hitza, 2005-03-08):

- Jolas eta antzerki bitartez gazteen parte-hartze zuzena bilatzen dute. Gelako ordutegiaren barnean txertatuta, gehienbat tutoretza eta euskara orduak erabiliko dira saioak emateko. «Oso garbi dugu ikastetxeko irakasleek ezin zutela jardura hau aurrera eraman, programak erabat bestelako giro ez akademikoa eskatzen duelako eta irakasle-ikasle arteko loturak hizkera askea baldintza zezakeelako», diote Ttakunekoei.
- Esamolde erakargarriak eskaintzen zaizkie. «Gazteei grazia egiten diete batzuek», azaldu dute; baina hala eta guztiz ere benetan adierazi nahi duten hori azaltzeko balio dute. Adibidez: titi punti jarri, partxisean jolastu, potro-ximel... Hitanoak presentzia duen ingurua denez gurea, hika erabiltzera bultzatzen saiatu dira Ttakunekoei. Hitanoa da-eta euskarak egoera informaletarako duen berezko erregistroa.

Eredu onak eskaintzearen aldekoa da Pablo Suberbiola ikerlaria ere (Suberbiola, 2004):

- Ereduak eskaini (etengabe): oinarrizko gaitasuna duenari, "nekez" egiten duen hori "nola" egin azalduko dioten adibideak, inputak, eskaini behar zaizkio, ahalik eta gehien, eta ahalik eta esanahi kargarik handienarekin. Hizkera informala izan, hitanoa izan, laneko hizkuntza teknikoa izan..., inguruan dituen euskaldunengandik zenbat eta adibide praktiko gehiago jaso, zenbat eta maizago, eta zenbat eta adierazkortasun karga gehiagorekin, orduan eta errazagoa egingo zaio bidea. Egoera komunikatibo konkretuetan balioko dioten formak, esamoldeak, hitzak... jasotzen joango da, bere biltegian pilatzen, eta egoera iritsitakoan, lehenengoan ez, bigarrenean ere ez, baina hogeigarren aldiz entzundakoan "zapla" botako du inguruan entzundako forma bat komeni zaion, edo "efektiboa" izan daitekeela iruditzen zaion egoera batean.

Horixe egiten ahalegindu ziren Busturialdeko ikastetxeetako hizkuntza normalkuntzarako teknikariak, eta helburu horrekin argitaratu zuten *Berbeteari gatza eta piperra* liburuxka, irudiz hornitua 2002an.



Irudigilea: **Mikel Egia**

Beasaingo Udalak ere eredu onak ematearen aldeko apustua egin du, eredu gisa materiala sortuta. Interesgarria litzateke jakitea nola banatu eta erabili den Goierri aldeko esapide jatorrak biltzen dituen liburuxka hau, Iñaki Apalategik landutakoa (Beasaingo Udala, 2008):

## 19 Belarrixkinakoa eman



Irudigilea: Josu Mitxelena

## 12 Kuxidadea / Galazi



## AISIALDIA ETA BESTELAKOAK

Azken urteotan behin baino gehiagotan aztertu da gazte-hizkera, argotak, etab. Hala ere, nik uste eta nahi baino gutxiago landu horietan hitanoa, eta zerikusi handia duela iruditzen zait niri. Juan Martin Elexpuru ere iritzi berekoa da (Elexpuru, 2001):

- Askotan keitzen gara –eta arrazoiz– argotik ez dalako sortzen, edo sortu orduko hiltzen dalako. Baiña harribitxi bat daukagu: hiketa. Gertutasuna, konplizidadia, parekotasuna... berbeta beruaren osagai asko ditte hiketak... herri-hiketak, jakina. Esan biharrik ez dago batuko hiketak ez dabela balio bizkaitarren lagunarte baterako.

Jolasa proposatzen du etengabe Asisko Urmenetak (Urmeneta, 2003):

Euskara interbenitu nahi honetan, komikilaria jostatu ere egiten da; marrazkia bezain langai plastikoa baita hizkuntza. Horra hor, adibidez, alokutibo berri zoroak asmatzeko bide umoretsua:

- Beror Hika: "Berorrek egin din"...
- Foka: "Jinen gaituff", "Hori hala duff"...
- Dunka: "Afrusagoak ditunk berriok"...

(...)

Norbaitek beti erran lezake bide ortopediko, edo artifiziala dela interbenitzea, bai eta ondoko promoa ere. Ados, alta bertze zeinahi hizkuntzari zilegi zaiona ez diogu horretaz debekatuko gureari; eta are gutiago jostabide izanki.

Filosofia eta jarrera bera erakusten du *Mantxut* eta *Freskue* bezalako lanetan, jolas egin eta sortzea proposatuz.



Irudigilea: **Asisko Urmeneta**

Euskararen erabileran etengabe zuzentzen jarduteak eragin txarra izan lezake. Horregatik, malgutasun gehiago behar duela uste su Estibaliz Amorrortuk (Amorrortu, 2003):

- Dana dala, noizean behin kalitate eta erderaren eraginaren auzian jarrera preskribatzaileak leuntzea komeni daua uste dot. Arrazoi ezbardinak dagoz, soziolinguistikaren aldetik behintzat, batzutan jarrera preskribatzaileak baztertzeko. (...) erregistro aldakortasunaren garrantzia eta funtzioa kontuan hartu behar doguz.



## 6.2. Plangintza: helburuak eta ekintzak

Proiektua kokatzeko orduan **EBPN plana** hartu dugu, Zumaian ezarrita eta martxan dagoen aldetik, **euskarri sendoa** eskaintzen diolako eta hor dauden **baliabide eta egitura guztiak** jartzen dizkigulako eskura: diru-laguntzak, batzordeak, koordinazioa...

Atalaren hasieran esan dugun moduan, funtsezkoa eta giltzarria da **hitanoa prestigiatzea**, lehendik izan duen fama txar hori kendu eta guztion hizkera izan daitekeela erakustea. Hitanoa bultzatzea bezain garrantzitsua edo garrantzitsuagoa iruditzen zait, hala ere, tokiko hizkera edo euskalkia bultzatzea, eta elkarri lotuta ikusten ditu ditut: **herriko hizkera sendoa bada, hika egiteko aukera handiagoa** izango da.

Oro har, **zeharka lantzea** garrantzitsua da, hika lantzen ari garela esan gabe hitanoa bultzatzea. Horretarako, argi ibili beharko dugu, aukera guztiak baliatzeko. Hitanoak behar du izan erakargarria, gozagarria, bizia, gustagarria, jostagarria... Pertsona eredugarriak behar ditugu, hika ondo egiten dutenak. Bikaina litzateke Alkateak hika egitea, edo Oier Aizpurua piraguitak. Herrian bertan topatzen ez baditugu, Azpeiti-Azkoiti alde horretan baditugu hikatzaile ezagun trebeak (Mikel Aranburu, Mikel Labaka, Iban Garate...).

Askok ez dute egiten hika ez dakitelako seguru noiz erabil dezaketen eta noiz ez, eta erabiltzen dutenean emakumezkoei ere berdin-berdin egiten dietelako hika: batzar batean, mikrofonotik esatari dabiltzanean... Hor badago masa handi samar bat zerbait jakin bai, baina ausartzen ez dena edo zalantzak dauzkana. Horienganako kanpaina bereziak antolatu beharko genituzke, konfiantza eta segurtasuna emateko.

Hitanoa erabiltzeko kanpainak orokorrak ere egin litezke, lema batekin, logo batekin, hika egiteko prest daudenak identifikatu, baita sektoreka ere.

Aurrelanak eginak ditugu Zumaian, euskara bultzatzeko prest dauden eragileak eta egiturak dagoeneko prest izan ditzakegulako herriko hizkera eta hitanoa bultzatzeko ere: Euskara Zerbitzua udaletxean, Euskara batzordea (teknikaria eta zinegotziak), Euskararen Aholku Batzordea (esparru askotako taldeetako ordezkariak eta norbanakoak, ikastetxeak koordinatzeko kontseilua, etab. Izan ere, toki askotan eta jende askorekin egin daiteke hika: eskolan, etxean, lagunartean, dendetan, lanean, dendetan, aisialdian... Horregatik da garrantzitsua esparru guztietako eragileekin lan egitea:

- **Txinparta** euskara taldeak orokorrean eta sentsibilizazioan lagun lezake.
- Ikastetxeak (**Herri eskola, Maria eta Jose, Oikiako eskola eta Institutua**) lehendik ere prest agertu dira hitanoa bultzatzeko.
- AEKren **Txomin Agirre euskaltegia** hor dago (eta mintzapraktikarako egitasmoa ere bai).
- **Udala langileekin** erabilera-plana lantzen ari da Udala.
- **Sindikatuekin** harremanak finkatuta ditu Udalak (Lanera! Egitasmoan).
- Merkataritzan euskara sustatzeko plana badu Zumaiak (**merkatari elkartearekin** harreman estua).
- Kirol-taldeek euskara sustatzeko konpromisoa hartua dute (Euskara Sasoian egitasmoa), eta handienekin lan egitea komeniko litzateke, talde handiekin dabilzanekin: **Pulpo eskubaloit taldea, Futbol taldea, Aita mari arraun elkarte, Itxas-Gain piraguismokoa...**
- Aisialdiko guneekin harreman estua du Udalak (**Ludoteka eta Gaztegunea**), eta **Musika eskolarekin** ere berdin.
- **Zumaiako Gazte Asanbladak** ere parte hartzen du Aholku Batzordean.
- **Bertso Eskola** kulturaren eta irakaskuntzaren arloan laguntzaile ona izan daiteke.
- **Baleike kultur elkartearekin** (aldizkaria eta webgunea) eta **Urola Kostako Hitzarekin** (egunkaria eta webgunea) hitzarmenak ditu Udalak.

**Ebaluazioa** etengabe egin beharko da, batzorde batzuetan eta besteetan, eta ekintza berezi bakoitzak bere **balorazioa** eskatuko du, esparru mailan eta oro har. **Neurketa batzuk** egin daitezke ekintzen aurretik, ondoren ere berdin, eta eragina aztertu.



Irudigilea: **Jon Mantxi** (*la dena*, 2009)

# Plangintzaren eskema EBPNren zuhaitzaren arabera

## Esparrua / **estrategiak**/ ekintzak

### 1.-Familia transmisioa

#### SENTSIBILIZAZIOA

- o Guraso eta aitona-amonetan eragin, familia bidezko transmisioan hitanoa ziurtatzeko: haurrek egindako pegatinak, triptikoak, kanpaina bereziak...
- o Kultura, ekonomia edo politika munduko pertsona erreferentzialen bitartez mezuak zabaltu komunikabideetan, musika bidez, kirolaren bitartez.

#### KOMUNIKAZIOA

- o Zalantzak argitzeko aholkularitzaren berri eman.

#### EKITALDIAK ANTOLATU

- o Gurasoentzako saio erakargarriak antolatu: hitanoarekin nola jokatu, noiz hasi...

### 2.-Euskalduntzea-Prestakuntza

#### SENTSIBILIZAZIOA

- o Herritarrengan modu erakargarrian eragin, dakiten hitano hori kalean ere erabiltzeko. Ekimenak definitu eta martxan jarri, herriko eta inguruko eragileekin elkarlanean: kartelak, tokian tokiko komunikabideetan mezuak, pegatinak, egutegiak... Kanpainak sustatu.
- o Gazteengan eragin adin talde horietarako erreferente diren pertsonetan oinarrituta: bide telematikoak....
- o Euskara “akademikotik” “aldendu” eta kaleko euskara sustatu eta zabaltu. Tokian tokiko euskalkia bultzatu, hitanoarekin batera.

#### KOMUNIKAZIOA

- o Ikastaro eta programa bereziekin kanpainak egin: mezu erakargarriak, hizkera berezia erabili.

#### IKASTARO BEREZIAK ANTOLATU ETA EUSKARA LANTZEKO EUSKARRIAK ESKAINI

- o “Mintzalagun” proiektuaren barruan formula berriak aztertu: hikalaguna, tokialaguna, nokalaguna...
- o Ohiko euskalduntzean ere hitanoaren berri eman, zuka bakarrik egongo balitz bezala jokatu gabe
- o Euskararen ezagutza beharrak aintzat hartu eta ikastaroak antolatu herriko edo eskualdeko euskaltegiekin elkarlanean: herri hizkera, hitanoaz... Begirale, kirol entrenatzaile, eskolaz kanpoko jardueretako arduradun, merkataria, ostalarientzat ikastaroak antolatu.
- o Asteburuko egitarauak osatu interes bereko gazte taldeak, familiak... elkartu eta hitanoa erabiltzeko: irteerak, jolasak, poteoak...

### 3.-Irakaskuntza

#### SENTSIBILIZAZIOA

- o Horma-irudiak jarri ikastetxeetan erabilera egokia gogorarazteko.
- o Irakasleak motibatu tratamenduen gaiari hel diezaioaten.

#### MATERIAL BEREZIA SORTZEA BULTZATU ETA ERABILI

- o Hitanoa lantzeko unitate didaktikoak landu, Udalak eta ikastetxeek elkarlanean.
- o Irakasleak trebatu eta materiala erabiltzeko prestatu; etengabeko laguntza eskaini..
- o Gurasoei emateko aholkuen barruan hitanoarekin lotutakoak gehitu.

#### KOMUNIKAZIOA

- o Euskarazko eskolaz kanpoko prestakuntza zerbitzuetan<sup>62</sup> hitanoaren erabilera bultzatu: bisitak egin, argibideak eman...

#### ERABILERA SUSTATU

- o Arduradunei material lagungarria banatu (ikastetxekoaren antzekoa).

## 4.-Administrazioa

#### SENTSIBILIZAZIOA

- o Langileen artean kanpaina egin: erabilera-planaren barruko langileak, jarraibideak herritarrei arreta egiteko...
- o Udaletik kanpoko erakundeetan ere eragin: osasun zentroa, postetxea...

#### KOMUNIKAZIOA

- o Hika ondo egiteko aholkuak eman (irakasleen materiala egokituta).

#### LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

- o Aurrekontuetan diru-sailak aurreikusi hitanoa bultzatzeko materialak sortu eta jarduerak antolatzeko.
- o Zalantzak argitzeko zerbitzua eman Euskara zerbitzuan.

## 5.-Lan-mundua

#### SENTSIBILIZAZIOA

- o Euskara-plana duten edo izan duten enpresetan kanpainak egin (udaleko langileekin erabilitakoa).
- o Euskararekiko atxikimendua erakutsi duten eta hika egiten badakiten merkatari eta ostalariak erabiltzera gonbidatu: konfiantza eta gertutasuna nola transmititzen duen...

#### KOMUNIKAZIOA

- o Hika ondo egiteko aholkuak eman (irakasleen materiala egokituta).

#### LAGUNTZA TEKNIKOA ESKAINI

- o Zalantzak argitzeko zerbitzuaren berri eman.

## 6.-Aisia

#### SENTSIBILIZAZIOA

- o Lagun arteko giroan hika erabiltzen irakatsi.

#### KOMUNIKAZIOA

<sup>62</sup> Herrian badaude bi akademia eta eskola partikularrak ematen dituzten beste 4-5 lagun.



- o Hitanoari tokia egin, ahal denean, deialdi eta iragarkietan.

#### ESKAINZA SUSTATU

- o Ikastetxeetako estrategiarekin bat, ludotekan eta udaleku irekietan hitanoa landu ohiko programazioan: tailerrak, jolasak, antzezlanak...

#### LAGUNTZA TEKNIKOA ESKAINI

- o Begiraleei laguntza eskaini jarduerak egoki antolatzeko.
- o Irakasleekin egin bezala, begiraleak trebatu tratamenduak eta erregistroak egoki kudea ditzaten.

## 7.-Kirola

#### SENTSIBILIZAZIOA

- o Euskara bultzatzeko egitasmoan parte hartzen diren taldeetan gaia azaldu eta erabilera bultzatzeko kanpaina egin, batik bat haurrekin eta gazteekin ibiltzen diren pertsonengana iristeko.

#### KOMUNIKAZIOA

- o Hitanoa egoki erabiltzeko aholkuak eman (ikastetxeetan erabili den materiala, egokituta).

#### ESKAINZA SUSTATU

- o Herriko kiroldegiko monitoreentzako eta taldeetako entrenatzaileentzako saio bereziak antolatu.

#### LAGUNTZA TEKNIKOA ESKAINI

- o Zalantzak argitzeko zerbitzua eman.

## 8.-Kulturgintza

#### SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA

- o Kultur elkarte eta bestelako taldeen artean kanpaina egin jarduera jakin batzuetan hitanoa erabil dezaten: antzezlanak, bertso-saioak, lehiaketak...
- o Hitanoa lantzeko materiala ezagutzera eman: udalerriko webgunean, aldizkarian...
- o Herritarren eragin herriko hizkera ezagutzera emanda: webgunean, aldizkarietan...
  - o Ikastetxeekin hitzarmenak sinatu, gai interesgarri batzuk landu eta herrian ezagutarazteko: familiako kideei grabazioak, galderak....

#### LAGUNTZA TEKNIKOA ESKAINI

- o Zalantzak argitzeko zerbitzua eman.

#### SORMENA BULTZATU

- o Gaztetxo eta gazteei zuzendutako ekitaldi bereziak bultzatu edo antolatu: hitzaldiak, proiektzioak, zinema, kantak eta bestelako musika emanaldiak, antzezlanak...
- o Kultur arloko lehiaketak antolatzerakoan hitanoaren erabilera saritu<sup>63</sup>: SMSak, gutunak, ipuinak, bertsoak, komikiak... SAN TELMO, JULENE...

#### ESKAINZA SUSTATU

- o Hitanoa lantzeko materiala zerrendatu, hautatu eta pixkanaka eskuratu.

<sup>63</sup> San Telmo sariak gaztetxoetan (ipuinak, olerkiak eta bertsoak), helduen Julene Azpeitia lehiaketa, Bertso eskolak antolatzen dituenak (bertsopaperak...), txinparta euskara taldearen losintxa lehiaketa...

- o Idazle ezagunekin hitzaldiak edo ikastaroak: idazteko teknikak edo gidoigintza (elkarrizketak...), erregistro eta tratamenduen erabilera, liburuen komentarioak...
- o Herriko istorio zaharrak, kondairak, ohiturak... ezagutzera ematerakoan tratamenduen gaia txertatu<sup>64</sup>: hitzaldiak ikastetxeekin elkarlanean, herriko adineko jendearekin elkarlanean, grabaketak egin eta webgunean jarri...
- o Gai horiei lotuta lehiaketak antolatu herriko haur eta gazteen artean, edo lehen daudenetan txertatu.
- o Material didaktikoa sortzea eta zabaltzea bultzatu, honetan landu diren beste esperientzia batzuk aztertuta (Debarroa...).
- o Herrizko hizkera prestigiatzeko jardunaldiak edo saioak antolatu: berezitasunak gizarteratu, hitanoa...
- o Herriko euskararen erabilera bultzatu, eta horrekin batera hitanoa.

#### LAGUNTZA EKONOMIKOA IKERKETA ETA ARGITALPEN INTERESGARRIAK SUSTATZEKO

- o Diruz lagundu herritarrentzat interesgarriak izan daitezkeen eta ikertuta dauden gaiak argitaratzeko, webgunean zintzilikatzeko, erakusketa tematikoak egiteko...

## 9.-Komunikabideak

#### SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA

- o Kanpainak bultzatzeko orduan partaide bihurtu herriko eta eskualdeko hedabideak.

#### ESKAINZA SUSTATU

- o Hitanoarekin lotutako jarraibideak eta bitxikeriak landu artikulu labur batzuetan: inkestetako datu esanguratsuak, nola eta zeinekin erabili...
- o Adineko jendearen elkarrizketak eta pasarteak argitaratzen jarraitu, hika darabiltenak bereziki: ahotsak.com...
- o *Sasi-elkarrizketa* batzuen bidez, toka eta noka egoki erabiltzeko adibideak eman<sup>65</sup>.

#### LAGUNTZA TEKNIKOA ESKAINI

- o Aholkuak emateko zerbitzua eman.

## 10.-Teknologia berriak

#### SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA

- o Herrian, eskualdean eta oro har gaia nonahi bultzatzeko sarea eta bideak bultzatu.

#### ESKAINZA SUSTATU

- o Blog bat antolatu informazioa interesgarria bildu eta gaia bultzatzeko: material lagungarria, artikuluak, erreferentziak, zalantzak...

#### LAGUNTZA TEKNIKOA ESKAINI

- o Aholkuak emateko zerbitzua eman.

<sup>64</sup> Oso baliagarria izan daiteke laster (2009ko irailean, hasiera batean) ahotsak.com gunean egongo den atala, Zumaiaiko 30 lagunen hitzak eta ahotsak bilduko dituena.

<sup>65</sup> Ikus duela urte batzuk Baleike aldizkarian argitaratu ziren zutabeetako batzuk, batek noka eta besteak toka, herriko kontuei buruz. Jon Sarasuak *Autoeztabaida* izeneko elkarrizketa asmatu zuen antzeko egiturarekin, baina biak toka (Jazten aldizkariaren 4. zk., Gazteak eta euskara).

## Ditxosozko bakazixuak

Bukatu txun; kostata baño bukatu txun ditxosozko bakazixuak.

Ene! Aurtenguan e ezinat bate errezzatu agostua bukatzeko; izan e Caritas emate nau; bateko umia ta besteke jatekua, ni behintzat beti bukatu ezinian ibiltze naun. Normalian semia etortzen den goizian goiz Mikelekin, etxeko txikixakin ta alaba geo Amaia eta Itsaso bixikexekin. Maitagarrixak hirurak, baña zezen txikixak baño bihurrixo.

Ordurarte jasotako guztixak aitarren batian nahastu ta segituan txun sukaldian:

- Amama, Triskis!

- Amama, amama, nik txokokrispis!

- Amama Arritxu, guazen parkea

- Amama....

- IXO!! Hainbeste triskis ta traskis geo. Ala, jaso atea txozuen trastuak ta guazen noabaitea.

Etxia hankaz gora utzi ta parkea jute gattun laurok; han e ixa egunero izate nu zirkua; bat kolunpixuan bultzatzeko ifñez, bestia berriz txirristan eroi ta near batian, ta askotan hirugarrena nun dabilkiun arrastoik gabe.

Hamabixak aldian erraña ta alaba etortze txun, plaiatik bueltan umiak jasotzea; ni berriz etxea presaka gizonai bazkixa prepaatzea. Ta etxia hankaz gora, nork jasoko zai. Akabo atsaldeko siesta.

Ta aste bukaera alleatu orduko, ala! Danak geurera:

- Ama, plaiatik bueltan jungo al gea bazkaita?

- Ama, eukiko al txozu umiak gaur gabian? Afaita jun nahi deu lasai-lasai aspaldiko partez

Nik entenditze dinat, gaztiak txun ta bakazixuak disfrutatu nahi dizkine, baña "amama Arritxuk" e mereziko txu ba bakazixuak, eo? Ba, ezetz ematen din, agostuan ez behintzat, hil hontan baño lan gehixo

ez diñat eta inoiz iten.

Gizonak zeoze ingo balu sikiera...

Hura bai bizi dala bakazixotan, jubilau zanetik gure Damian bakazixotan bizi den. Beti badin zeoze etxetik ihesixan juteko, batian bate-la atxikatu bihar dula, hurrengo semia ta bixak itxasoa dijuazela, hurrengo berriz lagunekin geatu dala... Batzuk ondo bizi txun, ondogi. Denbora nola pasa etzikine ta hor ibiltze txun, batei punta atea ta bestiai zirixa sartu, estalapien. Gure Damianek e majina ordu alperrik galtzen dixkin Erribera kalia gora ta bera zurrutian.

Ta ikusi nunian Joxe Luis Mokok ta bere akolituek (tartian gure Damian) Baleiken "jubilauen izenian" eskribitu bihar tzuela pentastu niñan:

- Alper kuadrila honek tontokexak besteik ez dizkiñe kontatuko, bai, ta neuk e Baleikekuekin hitzeingo ñat aber lan iten deun "jubilauentzat" e tarte bat daon.

Baleikeko hoxek etzikinat ze maketazixo problema ziala ta etziala behintzat bixak batea ezin tziala atea esan zinenan, ta batian bat ta hurrenguan bestia txandaka ateako zittuela. Nei soluzixo ona iruitzen zikan, batez e Joxe Luis Mokoi ta gure Damiane bere tontakexen partez hau ikusten duenian jarriko zaien tripako miñakin akorratzen zaxenian.

Guain herriko plaia, disfrutatzea.

## sukaldetik



Arritxu

## Hemen gaituk berriz e

Hemen gaituk berriz e; hemen gaituk bueltan. Ta gañia seguru gatzibek guk dakiun batek nahi baño irakurle gehiok bota txula faltan gure kontuak. Guri behintzat majina bat herritar arrimatu zikuk kezkatuta; aber ba aurreko hilian zeatik ez deun eskribitu, ia ez deun gehio eskribitu bihar, ta holakuak.

Egia esan, Baleikeko tximoso hoiek ezte besteik meezi; nola leike ezerre esan gabe fiñ-fiñ indako kronika ez publikatzia, ta hori izango bauke dana... guria kendu ta beste kontakatilu horren inpertinentziyak jarri etzixkien ba!

Hamabost egunian eztek giro izan kuadrilan; bateko biraua ta beste-ko madarikaziya! Lotsik ez, ez batek ta ezta bestiak e; batek, kontakatilu piiiiiiniiiii! horrek esan dittunak esateatik, eta beste tximoso piiiiiiniiiii hoiek gurian partez beria jartzeatik.

Etorri huan hurrengo hila ta han zitorrek Baleikeko tximosua e punttu puntuan "kronika" eske. Jesukristonak eta bi aitu zizkian gizajo harek! Damian heldu in bihar izan ginian, lepoa salto ingo zitxion bestela. Hura huan marrua in hura, Oriyoko balianak txiki laga zizkian Damiane. Baña ez huan bakarra izan; zeñek esan tzian euskeraz birauik etzala? Etxixian ondo ezautzen kuadrilakuak!

Azkenian, aurrez erabakita bezelaxe, zea esan ginitxion tximosuai, huelgan gebela ta hil hontan etzeola kronikaik. Tximosuak marziano arpeya jarri zian:

- Huelgan? Ta ze eskatzen dezue?

- Ze eskatuko diau ba, beste kontakatilu piiiiiiniiiii horren inpertinentzi gehio ez jartzia!

- Baña esan genizuen igual beste batenbatekin txandaka ateako gendula ta— tximosuak.

- Ba oain badakik zein dan kondiziyua, kronika nahi badek hilero jarri biharko dek, beste-la batez!

Han jun huan tximosua, mela-mela inda, putzutatik ertenda bezelaxe.

Astebetara azaldu huan gure tximosua, marziano arpeyakin, baño lasai xamar:

- Ze oaindik huelgan?

- Aber ba! Ta kronika ze, hilero?

- Juxtu hortaz hitzegin nahi nun zuekin. Arritxukin eon gea ta esan diyau ze eskatzen dezuen...

- Ta ze esan dik piiiiiiniiiii horrek!

- Esan diu lasai eoteko, beak hilero hilero eskribituko dula; gañia zuenak baño gauza inportantiauak omen dazka kontatzeko.

- Ta zuek kasu in ezta, txoro hoiek

- Ez, guk nahio txandaka iten badezue baña huelgan segitzen dezuen bitartian Arritxuk ingo omeen txu.

Berehala bukatu huan huelga; hori bakarrik falta diau ba, kontakatiluak eskribitzia hilero.

Orduan badakizue, ondo disfrutau kronika hau, letu bi aldiz, datoren hilian ezta ezer interesateik eongo ta.

Hurrenguan kontu gehio.

## estalapetik



Joxe Luis

### 6.3. Zenbait material lagungarri

Dagoeneko aurreko puntuetan aipatu ditut eredutzat balio lezaketen material batzuk, baina hitanoa erakusteko eta irakasteko beste asko ere badauzkagu eskura.

Baliagarria izango litzateke, beraz, inbentario edo bilduma moduko bat lantzen hastea, gaia landu nahi duenaren lagungarri. Zerrenda batzuk zabalduko ditut, ahal eta nahi duenak luza ditzan:

#### Irakurgaiak:

- *Galduta arte* (Juan Luis Zabala)
- *Zozoak beleari* (Andoni Egaña eta Jon Sarasua)
- *Lehenago zen berandu* (Arantxa Iturbe)
- *Pirtzina zilborrean* (Antton Kazabon)
- (...)
- Sarean aurki daitezkeenak<sup>66</sup>.

#### Ikusgaiak:

- Goenkale
- Marrazki bizidunak, Lazkao Txikirenak...
- Wazemank
- ahotsak.com
- Antzezlan batzuk<sup>67</sup>: *Ate joka...*
- (...)

#### Entzungaiak:

- ahotsak.com
- lkasbil.net
- Txantxangorri kantaria (Salbador Zapirain *Ataño*)<sup>68</sup>, HABErentzat Joxe Ramon Zubimendik egokitua.
- (...)

### KANTU ETA BERTSO EZAGUNAK

Aparteko puntua eskatzen dute kantu herrikoi eta bertsoek. Eskura dagoen material ugariaz jabetzeko, hara bi liburu eta liburuxka bat hartuta zer aurkitu dugun:

#### Bertsotan 1789-1936 liburu (Joanito Dorronsoro)

- Iturengo harotza (20 or.): senar-emazteen arteko elkarriketa
- Prantxisku, zer dakarrek(24-25): nagusia hika, morroia zuka
- Iragan festa biharamunian (72): 7-8 bertsoak
- Itsua eta sastrea (76): itsua ilobari, eta sastrea eta itsua elkarri toka
- Aizak hi, mutil mainontzi (92)
- Sasoia daukan eta (101)
- Saltoa egin zan, neska (162)

<sup>66</sup> Bergarako amodiozko gutunen 2009 lehiaketan sarituetako lan bat hika idatzita dago, bergarar onenarena: <http://www.jardun.net/> Hitanoa bultzatu nahiko balute, erraza da sari berezi bat jartzea hika ondoen erabiltzen duenarentzat.

<sup>67</sup> Amezketako Zumadi eskolan, esaterako, Pernando amezketarraren pasadizoak antzeztzen dituzte, Jose Mari Satrustegiren lan bat moldatu dute (Mattin Motela) eta beste lan labor batzuk sortu eta egokitu ere egin dituzte. Arduraduna: Agustin Amiano.

<sup>68</sup> Auspoa sailean hika idatzitako pasarte asko aurki ditzakegu, baina zaindu beharko litzateke iturri horretatik gehiegi ez edatea, ikasleek hitanoa eredu zahar eta klasikoaren lotu ez dezaten.

- Bertso polit bat (175): txirritak zuka, pello errotak hika
- Hargin andaluza (209)
- Gure basotik ostutzen dituk (224)
- Neska zahar bat tentatzen (241-2): neskaren amak mutilari hika
- Behi zaharraren bertsuak (262-3)
- Alukerira etorri al haiz (293)

**Kantu, Kanta, Khantore** (1967). Ezkila argitaletxea, Baiona.

Lehen hauetan ikasleei gustatzeko moduko istorio bat kontatzen da, historia edo literatura aldetik interesgarriak dira, eta gainera hika ageri da:

- Brodatzen ari nintzen (135)
- Haltzak ez du bihotzik (142)
- Ene hauzotegian bi senhar-emazte (154)
- Itsua eta sastrea (155)
- Buneta eta txapela, Ligueix (179)
- O Pello, Pello (202)
- Iragan besta biharamunian (223)

Beste hauek ere hikako elkarriketa dute:

- Apexa eta lorea, Elizanburu (150)
- Xakur eta gathua (158)
- Xinaurria eta xoria (159)
- Ezkondua eta donadoa (168)
- Antton eta Maria (171)

Zumaiako Udalak 2007an atera zuen **kantu-liburuxkan** ere badaude adibide politak, Zumaian oso ezagunak diren kantuak:

- Amak ezkondu ninduen (5)
- Astoarena (7)
- Santana zaharra (43)

## KANTU BERRIAGOAK

Azken 30 urte inguruko abestiak hartuta ere, material ugari dago. Batzuek, gainera, balio dute akatsak erakutsi eta okerrak zuzentzen ikasteko. Ezagunak dira horietako batzuk:

- Zu atrapatu arte (Kortatu)<sup>69</sup>
- Eh Txo (Hertzainak)<sup>70</sup>
- Mari (Su ta Gar)<sup>71</sup>
- Gazte nora hoa (Gozategi)<sup>72</sup>
- Oinazearen indarra (Su ta Gar)<sup>73</sup>
- Lehertuz (Kasbahd)<sup>74</sup>

<sup>69</sup> **Hi** burges madarikatua / ez **duzu** inoiz / ezer ulertuko.

<sup>70</sup> Eh txo! Gehiegi itxoitzen **duk** / **Hire** begirada herabetiak agertzen / **Dik** zer egin jakingabetasunak.

<sup>71</sup> Nik ez diat inoiz esango / hire egin beharra zein den / entzun jendearen ahotsa / Jotake irabazi arte.

<sup>72</sup> Mezua jaso orduko / egin **iezaio** uko / zinez ez **haiz** damutuko / ez **zaik** ezer gertatuko.

<sup>73</sup> Kanpora atera / atera kanpora / behar **duzuna** / askatu **hadi** behingoz / **hire** minatik.

<sup>74</sup> Beren zentsurari uko egin **dio(n)ala** / **hirea**, **heurea dukelako** / **hirea**, **heurea dukelako!!** / Hire pentsamenduak ez **ditukela** ixilak, hitz-hilak!! / Aske haizela nahi **du(n)ana** esateko.

Gaur egungo teknologiaz eta bilatzaileez baliatuta, erraza da hitanoa erabiltzen duten abestiak topatzea. Adibidez, guk **MUSIKAZ BLAI gunera** jo dugu<sup>75</sup>, eta hitz gako batzuk sartuta adierazgarrienak bistaritzen dizkigu.

### HIRE hitzarekin

- [Hire bila nabilen \(Sen\)](#)
- [Beheko plaza \(Itoiz\)](#)
- [Bizi hire bizia \(Izeba Pilarren ilobak\)](#)
- [Herri adaniz gabekoa \(Anje Duhalde\)](#)
- [Hire begirada \(Akelarre\)](#)
- [Hire bideak \(Itoiz\)](#)
- [Bai ala ez \(Urtz\)](#)
- [Vente \(Betagarri\)](#)
- [Azkeneko anarkista \(Bap!!\)](#)
- [Gaueko txoria \(Gorka Knörr\)](#)
- [Afrika Beltzean \(Lorelei\)](#)
- [Oi gure lurra \(Benito Lertxundi\)](#)
- [Ohitura apalak \(Trapatoni\)](#)
- [Diruaren esklabu \(Su ta gar\)](#)
- [Ezagutu hire lagunak \(Negu Gorriak\)](#)
- [Itsugor \(Kriston\)](#)
- [Marilyn: sagardotegia eta jazzmana \(Itoiz\)](#)
- [Besamotza \(Tapia eta Leturia\)](#)
- [Etsaiaren hatzaparretan \(Lin Ton Taun\)](#)
- [Bai, zein haiz? \(Eraso\)](#)
- [Zatoz, asemen! \(Mikel Markez\)](#)
- [Hire aurrean \(Kenon\)](#)
- [Itzaltzuko bardoa \(Benito Lertxundi\)](#)
- [Hire garaia \(Hartu arte\)](#)
- [Itsu bezain mutu hago \(Eraso\)](#)

### HADI hitzarekin

- [Hi bizi hadi \(Urgabe\) \(albuma\)](#)
- [Haika mutil \(Mikel Laboa\)](#)
- [Haika mutil \(Su ta gar\)](#)
- [Kontrapas \(Xabier Lete\)](#)
- [Kontrapas \(Herrikoia\)](#)
- [Kontrapas \(Oskorri\)](#)
- [Ahopean \(Jabier Muguruza\)](#)
- [Lo hadi aingürüa \(Maddi Oihenart\)](#)
- [Euskaraz jauntzi hadi eta haugi \(Skalariak\)](#)
- [Itxura \(Anestesia\)](#)
- [Bizi edo hil \(Captain Nemo\)](#)
- [Izorra hadi \(Xabier Montoia\)](#)
- [Nora goaz? \(Errobi\)](#)
- [Izan heu \(Lin Ton Taun\)](#)
- [Ratzinger \(The Solanos\)](#)
- [Welcome to Polloe \(The Solanos\)](#)
- [Itzali \(Harrika\)](#)
- [Askatasun egarriz \(Lin Ton Taun\)](#)
- [Jaiki, jaiki, Maria \(Txirri, Mirri eta Txiribiton\)](#)
- [Entzun \(Harlax\)](#)
- [Iratzarri \(Ruper Ordorika\)](#)
- [Fede faltsua \(Eraso\)](#)
- [Zatoz, asemen! \(Mikel Markez\)](#)
- [Kinkirrinera \(Txirri, Mirri eta Txiribiton\)](#)
- [Txikia \(Pantxo eta Peio\)](#)

### HAIZ hitzarekin

- [Lehendakaria \(Banda Batxoki\)](#)
- [Ihes \(Urtz\)](#)
- [Bizitzeko bizi \(Etzakit\)](#)
- [Runaway \(Pi LT\)](#)
- [Ez haiz ezer \(Urtz\)](#)
- [Bai, zein haiz? \(Eraso\)](#)
- [Zai, hago zai \(Su ta gar\)](#)
- [Lurraren oihua \(Su ta gar\)](#)
- [Aukera okerra \(Brigada Criminal\)](#)
- [Afrika Beltzean \(Lorelei\)](#)
- [Ohitura apalak \(Trapatoni\)](#)
- [Kapitalaren ondoan \(ezin bizi\) \(Brigada Criminal\)](#)
- [Mari \(Su ta gar\)](#)
- [Amaren negarra \(Su ta gar\)](#)
- [Lizardi \(Mikel Laboa\)](#)
- [Lizardi \(Herrikoia\)](#)
- [Diruaren esklabu \(Su ta gar\)](#)
- [Pailazo \(Txirri, Mirri eta Txiribiton\)](#)
- [Hilezkorra \(Hira\)](#)
- [Lehengo ikasgaia \(Urko\)](#)
- [Tirauki \(Oskorri\)](#)

<sup>75</sup> <http://eu.musikazblai.com/>

## VII.

# BIBLIOGRAFIA

Non **hago**, zer larretan  
Urepeleko artzaina  
mendi hegaletan gora  
oroitzapenen gerora  
ihesetan joan **hintzana**

**Xabier Lete**  
*Xalbadorren heriotzean*

## 7. BIBLIOGRAFIA

- AGIRREBEÑA, Aintzane; MAIZ, Belen; MUNIOZGUREN, Fernando; SARASUA, Asier; ZABALETA, Miren (2007). *Zarautz hizketan*. Zarautz: Zarauzko Udala.
- AHOTSAK.COM. [www.ahotsak.com](http://www.ahotsak.com) *Euskal Herriko ahotsak*. Eibar: Badihardugu Euskara Elkarte.
- ALBERDI, Andres (2002). *Eskola gramatika (DBH)*. Donostia: Elkar eta Gipuzkoako Ikastolen elkarte.
- ALBERDI, Andres (2008). *Oinarrizko gramatika*. Donostia: Elkar eta Ikastolen elkarte.
- ALBERDI LARIZGOITIA, Xabier (1986a). Euskarazko tratamenduen ikuspegia: I. Historia apur bat. In Anuario del Seminario de Filología Julio Urkixo XX-1.
- ALBERDI LARIZGOITIA, Xabier (1986b). Alokutibotasuna eta tratamenduak euskaraz: II. Markinaldeko kasua. In Anuario del Seminario de Filología Julio Urkixo XX-2.
- ALBERDI LARIZGOITIA, Xabier (1991). Hikako tratamenduaren balore sozio-afektiboak. In: *Fontes Linguae Vasconum*, 64 (1993).
- ALBERDI LARIZGOITIA, Xabier (1994). Hitanoa non eta nork erabiltzen duen. In *Euskera* agerkaria XXXIX-2.
- ALBERDI LARIZGOITIA, Xabier (1996). *Euskararen Tratamenduak: erabilera*. Iker atalak 9. Bilbo: Euskaltzaindia.
- ALBERDI LARIZGOITIA, Xabier (2003). *Hitanoa nork eta nola erabiltzen duen*. Azpeitia: [www.erabili.com](http://www.erabili.com)
- ALBERDI LARIZGOITIA, Xabier (2003). *Hikako tratamenduaren balore sozio-afektiboak*. Azpeitia: [www.erabili.com](http://www.erabili.com)
- ALTUNA, Jaime (2004). *Lagunarteko gazte-hizkerarekin jolasean*. Azpeitia: [www.erabili.com](http://www.erabili.com)
- AMONARRIZ, Kike (2009). XXI. mendeko euskaldunak: Nola aldatu(ko) diren gauzak, kamarada! In: *Transmisinoa eta erabilera*. Bilbo: Mendebalde Euskal Kultur Alkartea.
- AMORRORTU, Estibaliz (2003). Hizkuntza aldakortasuna eta identitatea. In: *Ahozketasuna aztergai*. Bilbo: Mendebalde Euskal Kultur Alkartea.
- APODKA, Marije. *UPV/EHU euskararen eta irudien erabilera ez-sexistarako gida*. [www.unibertsitate-hedakuntza.ehu.es](http://www.unibertsitate-hedakuntza.ehu.es)
- ARRATIBEL, Imanol (1994). *Tratamenduak Goierri*. Argitaratu gabeko lana.
- AURREKOETXEA, Gotzon; BIDEKAIN, Xarles (1994) Galdekizuna (EHHA). In: *Euskera* agerkaria, 1994ko 3. zenbakian.
- AURREKOETXEA, Gotzon(1986). *Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa: inkesta metodologia eta ezezeko datuak*. In: *Euskera* agerkaria, 1986ko 2. zenbakia.
- AURREKOETXEA, Gotzon (1994). Hitanoa ahozko hizkuntzan. In: *Euskera* agerkaria XXXIX (2. aldia)
- AURREKOETXEA, Gotzon (2003). Arratiako hitanoaren arautzea. In: *Euskalingua* aldizkaria (3. zk.)



- AZKARATE, Miren (1993). Emakumea eta Euskara. In: Emakumea: sexu ala generoa? Bilbo: UEU, Filosofia Saila.
- AZKUE IBARBIA, Xabier (2000). *Hitanoa Zumaian*. Zumaia: Zumaiko Udala.
- BARQUIN, Amelia (2008). *Euskararen erabilera ez sexista*. Gasteiz: Emakunde.
- BEASAINGO UDALA (2008). *Beasaindio*. Beasain: Beasaingo Udala.
- BILBAO BIZKAIA KUTXA. *BBKn berdintasunezko hizkuntza-eredurako gidaliburua*. [www.bbk.es](http://www.bbk.es)
- BUSTURIALDEKO HIZKUNTZ NORMALKUNTZA (2002). *Berbeteari gatz eta piperra*. Busturialdea: Gernika-Lumoko eta Bermeoko Udalak.
- DORRONSORO, Joanito (1981). Bertsota 1789-1936. Donostia: Gipuzkoako Ikastolen Elkarte.
- ECHEVERRIA, Begoña (2000). *Basque schooling: What is it Goo For?* University of California, San Diego: UMI.
- ECHEVERRIA, Begoña (2003). Language ideologies and practices in (en)gendering the Basque nation. In: *Language in Society* 32(3) 383-413.
- ECHEVERRIA, Begoña (2007). *Hizkuntza ikasgaiak, genero ikasgaiak: euskara-ingeles hiztegi baten eduki androzentrikoa*. Hizkunea ([www.euskara.euskadi.net](http://www.euskara.euskadi.net)): Eusko Jaurlaritza.
- ECHEVERRIA, Begoña (2009). *Arimak salbatu, hizkuntzetan hitz egin: erlijio gatazka, generoen aldaketa euskararen*. Hizkunea ([www.euskara.euskadi.net](http://www.euskara.euskadi.net)): Eusko Jaurlaritza.
- EIBARKO UDALA (1998) *Eibarko aditza*. Eibar: Aditz Batzordia.
- ELEXPURU, Juan Martin (2001). Deba arroan badihardugu euskalkixaren alde. In: *Euskalkia eta hezkuntza*. Bilbo: Mendebalde Euskal Kultur Alkartea.
- EMAKUNDE (1988). *Hizkuntza, hitzak baino zeozer gehiago. Hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako proposamenak*. Gasteiz: Emakunde.
- ETXABE, Karmele; GARMENDIA, Larraitz (2003). *Zaldibiako euskara*. Zaldibia: Zaldibiako Udala.
- ETXANIZ ITURBE, Pello (2001). Tratamenduen bilakaera, to eta no. In: *Fontes Linguae Vasconum*, 87.
- EUSKALDUNON EGUNKARIA (1992). *Estilo liburua*. Donostia: Egunkaria S.A.
- EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA; EUSKALTZAINDIA (2008). *Zenbait orientabide erregistroen trataeraz*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA (2009): *Ikastolen hizkuntz proiektua*. Zamudio: E.H.ko Ikastolen Konfederazioa.
- EUSKALTZAINDIA (1987). *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak II. (EGLU II)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- EUSKALTZAINDIA (1995). *Adizki alokutiboak (hikako moldeak)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- EUSKALTZAINDIA (2004). Euskalkien erabileraz irakaskuntzan, komunikabideetan eta Administrazioan. In: *Euskera* 49.
- EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (2004). *Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (2008a): *Euskara 21. Batzorde atal bereziko kideen ekarpenak*. Kultura Saila. 2008

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (2008b): *Euskara 21. Eztabaidarako gaiak*. Kultura Saila.

FONTANEDA, Gontzal (2007). *HIKASI Hika mintzatzen ikasteko metodoa*. AEB: Lulu.

FRAILE, Ainhoa eta Idoia (1996). *Oiartzungo hizkera*. Oiartzun: Oiartzungo Udala.

GAMINDE, Iñaki (1985). *Aditz etikoa*. Bilbo: AEK.

GAMINDE, Iñaki (1989). *Leioako euskararen gramatikaz*. Leioa: Leioako Udala.

GARZIA, Joxerra (2004a). *Kurrin-kurrin vitae*. Irun: Alberdania.

GARZIA, Joxerra (2004b). Euskara komunikatiboa. Euskarazko kazetaritzaren I. Kongresua.  
<http://www.argia.com/kazetaritza2004/joxerragarzia.pdf>

GOIKOETXEA, Juan Luis (2001). Euskal diglosia irazia eta irakaskuntza esanguratsua euskalkia eskolaratzeko. In: Euskalkia eta Hezkuntza. Bilbo: Mendebalde Euskal Kultur Alkartea.

GOIKOETXEA, Juan Luis (2003). Euskalkia eta hezkuntza. Dakigunetik ez dakigunera euskal diglosia irazian (Iker 13). Bilbo: Euskaltzaindia.

GOIKOETXEA, Nekane; ZINKUNEGI, Amaia (1997). *Gazteak eta euskara*. Deba: Debako Udala.

GUTIERREZ, Arantza (2005). *Irratsaio bat egiteko tailer praktikoa*. Bilbo: UEU.

HIK HASI (2000) *Gazteen euskararen erabilera sustatzeko gida*. Lasarte-Oria: Xangorin.

ITURAIN, Iñaki; LOIDI, Loren (1995). *Orioko euskara*. Orio: Orioko Udala.

KINTANA, Xabier (2005). *Lazarraga poeta zahar gaztearen berri onak*. Azpeitia: www.erabili.com

KNÖRR, Endrike (1977). Hiketa edo hitanoaz zenbait argi. In: Euskera agerkaria XXII.

LARRAÑAGA, Jone (1998). *Antzuolako hizkera*. Antzuola: Antzuolako Udala

LARRINAGA, Asier (2004). Hizkuntzalariak telebistagintzan. In: Senez (27. zk.). Donostia: EIZIE.

LOPEZ DE ARANA ARRIETA, Inaxio (2002). Eibar eta Oleta herrietako hikako tratamenduak. In: Fontes Linguae Vasconum (90 zk.).

MAIA, Jon (2009). Ni bi munduetakoa naiz. In: Euskalgintza sindikalgintzan txertatu (V). Bilbo: Manu Robles-Arangiz Institutua.

MANTXI, Jon (2009). *Ia dena*. Zumaia: egilea bera editore.

MEDRANO, Bea (2006). Euskararen erabilera ez sexista astialdian. In: "Aisia euskaaraz bizi" jardunaldiak. Durango: topagunea

OREGI, Josu (1977) . Birrazterpen bat: hiketa eta zuketa. In: Euskera agerkaria XXII.

OYHARTZABAL, Beñat (1992). *Hikaren morfologia*. Arrasate: San Frantzisko Xabier ikastola (Hika tratamenduari buruzko ihardunaldiak).

OYHARÇABAL, Beñat (1994). Hikako adizkeren paradigmaren azterketa. In: Euskera agerkaria XXXIX (2. aldia)

- PEILLEN, Txomin (2008). Iparraldea. In: Euskalgintza XXI. mendeari buruz (IKER 19). Bilbo: Euskaltzaindia.
- PLAZAOLA, Estepan (2009). Herriko berbeta oinarri, ahozko jarduna hobetzeko ahaleginetan. In: Transmisinoa eta erabilerea. Bilbo: Mendebalde Euskal Kultur Alkartea.
- RAMIREZ DE LA PISCINA, Txema (1998): *Kazetari-lana Euskal Herrian. Interpretaziorako eta espezializaziorako abiaburuak*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- SANTAZILIA, Ekaitz (2007). *Hitanoa unibertsitatean*. Azpeitia: erabili.com
- SARASOLA, Ibon (2007). *Euskal Hiztegia*. Donostia: Elkar.
- SEGUROLA, Iñaki (1992). Gizon, gizarte, gizagaixo. In: Euskaldunon Egunkaria. Lasarte-Oria. (26. or.)
- SIADeco (2001): *Zumaiako azterketa soziolinguistikoa. Hizkuntza-diagnosia*. Zumaiako Udala (argitaratu gabeko txostena).
- SUBERBIOLA, Pablo (2004) Euskararen erabileran nondik eragin? Zenbait gogoeta. In: Topagunearen IV. Jardunaldiak (2004-11-16) Bilbo.
- TXILLARDEGI (1968). Hika eta Zukako aditz-joko edo konjugazioaz. In: Euskera agerkaria XIV.
- TXILLARDEGI (1977). *Oinarri bila*. Donostia: egilea editore.
- UNANUA GARMENDIA, Migel Anjel (2008). *To eta no sesioan euskaraz*. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- URTXINTXA ESKOLA (2005). *Gazt\_ hizkera jardunaldien hitzaldiak eta ondorioak*. Donostia: Urtxintxa Eskola.
- UNED (1988). *Bergarako euskera*. Bergara: UNED.
- URMENETA, Asisko (2000). *Mantxut?* Lasarte-Oria: Komunikazio Biziagoa.
- URMENETA, Asisko (2001). *Mantxut Mantxut?* Lasarte-Oria: Komunikazio Biziagoa.
- URMENETA, Asisko (2002). *Freexkue*. Lasarte-Oria: Komunikazio Biziagoa.
- URMENETA, Asisko (2003). Kolokiala = Kolokiala (?). In: Ahozkotasuna aztergai. Bilbo: Mendebalde Euskal Kultur Alkartea.
- YRIZAR, Pedro de (1981). *Contribución a la dialectología de la lengua vasca (I eta II)*. Donostia: GAK
- YRIZAR, Pedro de (1991). *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano*. Bilbo: Euskaltzaindia
- YURRAMENDI, Xabier (1996). Hik eta... In: Hizpide 71. Donostia: HABE.
- ZABALONDO, Beatriz (2004). Zuzenketa elkarlanean. In: Senez (27. zk.). Donostia: EIZIE.
- ZATARAIN, A. (1977) Ni naiz eta i aiz. In: Euskera, 22, (739-745)
- ZUAZO, Koldo (2005). *Euskara batua: ezina ekinez egina*. Donostia: Elkar.
- ZUAZO, Koldo (2008). Euskara normaltzeko bideak. In: Euskalgintza XXI. mendeari buruz (IKER 19). Bilbo: Euskaltzaindia.